# goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2013-03-08
EGUBAKOITZA
544. ZENBAKIA
13. URTEA
DOAKOA
GOIENA.NET
TOKIKOM

## 200 haur kantuan Arrasaten

Abesbatzen topaketa da, eskolartekoa | 31



Iazko saioa, Uarkapen. | GOIENA

Antzuola-Getaria bihar Estalan: puntu garrantzitsuak jokoan | 28



Aretxabaletan eta Oñatin merkealdiak asteburuan | 20 eta 22

Korrika Kulturalak asteburuan utziko du aurtengo uzta Debagoienean | 33



Rufina Olasagasti, Maitane Unamuno, Tamara Perez eta Marije Lezeta, Arrasateko Ekin Emakumeak Elkarteko kideak, Kulturateko klaustroetan. 36ko gerraren gaineko argazki erakusketaren aurrean.

# Aldarrikatu eta gozatu

Martxoaren 8aren bueltan, Debagoieneko herri guztietan antolatu dituzte emakumeen aldeko ekitaldiak, aldarrikapenetik haratago | ikus Herriak saila

JAGOBA DOMINGO

# Ahotsak proiektuak lagun dituenei esker ona adieraziko diete Elgetan

Martxoaren 15erako hitzordu berezia antolatu du Badihardugук Elgetako Espaloia antzokian. Euskal Herriko Ahotsak proiektuak aurten hamar urte bete ditu eta *www.ahotsak.com* webguneak, bost. Hori ospatzeko eta orain arteko ibilbidea laburtzeko antolatu dute jaialdia. | 12

## SINADURAK



Eman euskara elkarri | 6
OSKAR ELIZBURU



6 | Kamera aurreko lanak
MIREIA BIKUÑA



Bestelako Mallorca | 40
MIKEL IRIZAR

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 6 | ELKARRIZKETA 10 | HERRIAK 12 | KIROLA 28 | KULTURA 31 | ZURE IRAGARKIAK 35 | TELEBISTA-IRRATIA 36 | EZKONTZAK 37 | ESKELAK 37 | NON-ZER 38

## Urte amaierarako helduko da TAO Arrasatera, unibertsitatera

Proba gisa ezarriko dute unibertsitateko hiru eremutan | 13

## "Edukiontzien sistemarekin ezin zaitezke iritsi hiri hondakin guztien %80 birziklatzera"



**Lluis Verdaguer** | Bartzelonako Taradell herriko alkatea (CIU) | 10

## Mugikortasuna oztopatzen duten puntu beltzak, identifikatuta

Bergarako Udalak egin du, herritarren laguntzarekin | 18



## MUko LEINN graduko 250 ikasle atzerrian daude ikasten | 2

# Mundua, ekintzaileen ikasgela







- LEINN graduko 250 ikasle atzerrian daude, ikasten
- Finlandia, AEBak, Txina eta India bisitatzen dituzte
- Aurten irtengo da LEINNeko lehenengo promozioa

**LEIRE KORTABARRIA** | OÑATI

Mondragon Unibertsitateak ikasketa berritzaile batzuen aldeko apustua egin zuen orain lau urte, eta denborak arrazoia eman diela dirudi. Espainolezko LEINN akronimoaz dira ezagunak ikasketa horiek: Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza Gradua. Ikasketa horien berezitasunetako bat hauxe da: urte akademiko bakoitzean, ikasleek atzerrira bidaiatzen dute, ikasketa-planaren zati gisa. Hala, MUren Enpresagintza Fakultatean ematen den LEINN graduko 250 ikasle daude egunotan atzerrian, edo oraintsu bueltatu dira handik.

LEINNen, ikasleek autonomia handia dute: hasieratik, enpresa baten batzen dira, eta enpresa horren zereginetako bat da urte horretan egin behar duten bidaiarako dirua batu eta, aldez aurretik, leku horretan egin behar dutena ahalik eta gehien lotu.

Joan den martitzena ezkero, San Frantziskon daude 80 ikasle, horietatik 56, LEINNeko 2. urteko ikasleak; 56 horiek hilabeterako joan dira. Ikas-bidaia hori hirugarren urtez egiten da aurten; baina, berritasun gisa, aurten MINN masterreko ikasleak eta San Frantzisko inguruko enpresak bisitatzeko beste espedizio bat ere joango da. Azken talde hori martxoaren 17tik 24ra izango da han.

Ikas-bidaia hori ikasle beteranoagoek antolatzen dute. Horretan ibili zen Idoia Valencia, Noanean enpresakoa eta Mondragon Team Academyrako (MTA; 2007an, ikasle horiek batzeko sortu zen komunitatea) ikasketa bidaiak antolatzeko arduradunetako bat. San Frantzisko eta inguruak munduko berrikuntzaren guneetako bat direnez, egitarau oparoa izaten dute: "LEINN graduarentzat antolatzen duguna ondorengoa da: hainbat bisita (Angeles Arrien, Stanford-eko unibertsitatea, D.School, Ideo, Hub...), tailerrak, lan egiteko espazioa gestionatu eta MTA komunitatearentzako ekitaldi eta aktibitateak".

### Aldez aurreko lana, ikasleek

San Frantziskora egiten duten bidaia, ikasketetan eta norbere hazkuntzan, LEINNeko ikasleendako aurrerapauso handia izaten da, eta ikasketen 1. urtean Finlandiara egiten duten bidaiaren oso bestelakoa. Horrela onartu ziguten, oraindik Oñatiko campusean, Glow enpresako kideek: "Orain hobeto prestatuta gaude. San Frantziskon, berrikuntza eta ekintzailetza kultura handia eta irekia dago. Nik oso pozik eta kontaktu piloarekin bueltatzea espero dut", esaten zigun Ana Larrea bilbotarrak.

Jon Montiel bergararrak hau gaineratu zuen: "Enpresa gisa hazi egingo gara eta asko ikasiko dugu, enpresak bisitatzen, baina geure proiektuak garatzen ere bai. Ondo irten edo ez, azkenean ikastean datza".

Bidaiaren zati handi bat eurek antolatu behar izan dute, eta posta elektronikoz eta telefonoz kontaktu berriak egiten eta bilerak lotzeko ahaleginetan ibili ziren azken momentura arte. Jonek azaltzen duenez, "antolatzaileek egitarauaren %20a lotzen dute, baina beste %80a geuk egin behar dugu".

LEINNek burujabetasun handia ematen die, beraz, ikasleei. Hala, urteroko bidaia antolatzea edo beste edozein proiektu aurrera ateratzea eta ikasturtea gainditzea enpresako kide guztien

## 'Pinguino' talde bat Finlandian

LEINNeko 1. urtekoak Finlandiara joaten dira, eta txoke-tratamendu antzeko bat da, Ana Larreak dioskunez: "Graduko hirugarren astean geunden eta, halako baten, *bi asteren buruan, Finlandiara zoazte* esaten etorri zitzaizkigun". Ez zuten proiektu askorik atera, baina beste herrialde baten bakarrik moldatzen ikasi zuten. "Pinguinoak deitzen ziguten", gogoratzen du Anak.

Finlandiako hezkuntza-sistema txalotua bertatik bertara ere ezagutu zuten: "Dena guztiz doan da, bakarrik bazkaria ordaintzen hasten dira 16 urterekin. Hori bai; zerga handiak ordaintzen dituzte, "eta han, zergekin iruzurra egiten baduzu, eskandalua da".



Glow ikasle-kooperatibakoek Finlandian atera zuten goiko argazkia. | GLOW KOOPERATIBA

Orain Arrasaten
Benetan pisua galdu nahi duzu?
PSE: 37/04


Rosa Sarabia doktorea
PronoKal® metodoa
Zientzia eta zorroztasuna pisua galtzeko
– Kontrol mediku zorrotza
– Pisu galtze handia – Gose gabezia
Bilbon: Clinica Sarabia: Ercilla kalea, 42.
CMU centro médico UDALAITZ
Euskal Herria plaza 3. ARRASATE
Tel.: 943 79 44 22.
Rosa Sarabia doktorea
Medikuntzan eta kirurgian lizentziaduna
OBESITATEAREN ETA GEHIEGIZKO PISUAREN UNITATEA
BOTOXA – EZPAINAK – MESOTERAPIA
BARIZEAK – HAZIERA FAKTOREAK
BULARRAK – SUDURRA – SABELALDEA
Medikuntza estetikoa eta kirurgia plastikoa









Beste talde batzuek San Frantziskon izan zituzten esperientziak islatzen dituzte argazki horiek. | IDOIA VALENCIA

erantzukizuna da: bakarrak ez badu gainditzen, enpresa osoak porrot egin duela kontsideratzen da. Horrez gain, asteko egun baten ohiko eskolak jasotzen dituzte, baina denbora gehiena euren proiektua aurrera ateratzeko daukate. Glow-ko Lauri Holja finlandiarrak dioenez, "gazteoi askatasun hori emateko beldurra dago gizartean, baina askatasun horrek arduratsuago jokatzea dakar. Hauek ohiko ikasketak balira, seguru asko egunean ordu gutxiago emango genituzke fakultatean".

Enpresekin aldez aurretik bisitak antolatzea ere ez da erraza izaten: "Idazten diezun 50 enpresatik, beharbada hamarrek edo bostek ematen dizute baiezkoa". Baina, era berean, egiteak berak erakutsi die: "Iaz, 17 urterekin, enpresetara deitzen eta nire burua aurkezten, Finlandian ikasten... nenbilen", esaten du Ana Larreak.

**LEINN, gero eta ezagunagoa**

Rosa Igarza da LEINN graduaren Oñatiko campuseko arduraduna. LEINNek duen arrakastaz, hauxe esaten du: "4. ikasturtea da Bidasoako campusean, eta 3.a Oñatikoan; beraz, oraindik ez da promoziorik irten, baina gero eta ezagunagoa egin da, eta Madrilen eta Herbehereetan ikasgela bana ireki dugu; datorren urtean Bilbon irekiko dugu". Bidaiak dira erakarpen handienetako bat: "Bueltan datozenean, zenbat ikasi duten konturatzen dira. San Frantziskon, gauza berriak ezagutu eta ekintzaileak nola moldatzen diren ikusten dute; benetan ikasten dute. Hirugarren bidaia Txina eta Indiara da, eta herrialde horietan ere berritu daitekeela konturatzen dira".

Glow-ko kideei galdetu diegu nola ikusten duten euren burua graduaren ondoren. "Hori da inkognita", erantzuten du Anak. Eta Jonek: "Burujabeak izateko gertatzen gabiltza. Gure enpresa sor dezakegu; edo enpresa batera joan eta hura berritzen saiatu…". Anak, berriz: "Ingeniaritza ikasi duen lagun batek masterra egin behar du, eta gero hasiko da lan bila edo zer egin dezakeen pentsatzen. Guk, gradua bukatzen dugunean, beharbada bagaude enpresa baten edo esperientzia piloa izan ditugu; ez gara zerotik hasten".

**Kezkarik ez etorkizunerako**

LEINNeko metodologia Finlandian asmatu zuten, eta 20 urteko historia du han. Lauri Holja finlandiarrak dioenez, "emaitzak benetan onak izan dira: gradua egin duten hirutik bat, gutxi gorabehera, ekintzaile bihurtzen da eta gainerakoak, soldatapekoak. Enplegu-maila oso altua izaten da horien artean. Finlandian, ikasketa-bukaerako proiekturako 1.000 ordu izaten ditugu, eta beste gradu batzuetakoen aldean, izugarrizko abantaila da; hor hasi gaitezke enpresekin kontaktuan jartzen eta lana bilatzen".

Euskal Herrian ere hala izaten dabil, Glow-koek esaten dutenez: "Aurten bukatu behar dutenak enpresa handietan daude, Madrilen, Shangain, Hego Korean… dagoeneko dirua irabazten. Gradua bukatzen dutenean, beharbada enpresa horietan jarraitzeko aukera izango dute, eta aldatzeko aukera ere bai".

Etorkizunarekin ez daude kezkatuta ikasle horiek: "Bi urtean zer gertatuko den ez dakigu", esaten du Jon Montielek. Lauri Holjaren iritziz, gradua egiten dutenendako "errazagoa da nork bere enpresa sortzea, eta edozein modutan, beste ikasketak egiten dabilen jende gehienari bururatu ere egin ez zaion aukera hori badaukagu guk".

**DATUAK**

**29**
URTE

LEINNeko ikasle gehienak 18 urterekin hasten dira, baina 28-29 urtekoak badira: beste ikasketa batzuetatik, lanetik...

**20**
URTE

Finlandian asmatu zuten LEINN metodologia, orain 20 urte. Euskal Herrian, MUren eskutik, orain lau urte inplantatu zen.

**ESANAK**

**"Bueltan datozenean konturatzen dira zenbat ikasi duten"**
ROSA IGARZA | ARDURADUNA

**"Kontaktu piloarekin bueltatzea espero dut San Frantziskotik"**
ANA LARREA | IKASLEA

**"Bidaiaren %80a ikasleok antolatu behar dugu; gure ardura da"**
JON MONTIEL | IKASLEA



Ane Gaztañaga, Lorea Barrutia, Izaskun Badiola eta Susana Lete | Coprecin arduradun

# "Eszedentziak hartzeak ez du galarazten gerente izatea"

Copreciren Aretxabaletako lantegian kargudun emakumezko asko dago

UBANE MADERA | ARETXABALETA

Ane Gaztañaga (Aretxabaleta, 1971) da Copreciko presidentea bi urte dela. Lorea Barrutia (Aretxabaleta, 1960) da lehendakariordea eta giza baliabideetako teknikaria. Izaskun Badiola (Urretxu, 1970) da Etxe Konforteko fabrikazio-burua eta Kontseilu Errektoreko kidea hiru urte eta erdi dela. Eta Susana Lete (Arrasate, 1973) da garbiketa negozioko kalitate arduraduna eta bi urte egingo ditu Kontseilu Errektorean. Eurekin izan gara, Martxoaren 8aren bueltan, erakusteko gero eta emakume gehiago daudela kargudun.



Lorea Barrutia, Ane Gaztañaga, Izaskun Badiola eta Susana Lete. | U.M.

**Copreciko kargudunak zarete; zuen kargu bera duten emakume asko ez dira inguruan egongo, ala?**
Badaude. Ausolan, CIM-Ahizke eta Ulma Taldeko lehendakariak emakumeak dira. Eta Fagor Taldeko idazkari orokorra ere emakumea da. Akaso, fabrika industrial batean bada zailagoa aurkitzea. Baina Ulma ere hor dago.

**Hala ere, horrenbeste emakumezko kargudun izateko, Coprecin sentsibilitate berezirik badago?**
Historikoki, lanak eskatzen zuelako profil hori, Coprecin inguruko beste lantegi batzuetan baino emakume gehiago aritu izan dira lanean taillerrean. Arduretako postuetan emakume izatea ez da oztopo Coprecin. Egia da Copreciko zuzendaritza batzordean emakume bakarra dagoela [giza baliabideetako zuzendaria], baina ardura duten postu askotan emakumeak dabiltza lanean: Etxe Konforteko fabrikazio-burua (Izaskun) emakumea da, Copreci Altsasuko kooperatibako gerentea neska da, Almacenesko burua, pertsonal-burua, kalitate arduradun gehienak emakumeak dira. Berezkoa izan da. Ez da egon diskriminazio positiborik.

> **"Emakume izanda posible da karguak izatea eta gizonen moduan jardutea"**

**Igartzen duzue desberdintasunik fabrika barruan gizonekiko? Eta enpresen artean?**
Bezero batzuek harrituta esan digute emakume asko daudela ingeniaritza sailean. Baina bestela, guztiz natural ikusten da. Eguneroko lanean ez gara kontziente emakume edo gizon garen. Ez dago desberdintasunik ez barruan eta ezta kanpoan ere.

**Emakume izateak (bereziki halakoak lotzen dira ume kontuekin) zaildu egiten du ibilbide profesionala?**
Gaur egun eta Coprecin, behintzat, izaera eta formazio kontua dela uste dugu. Egia da gehienetan emakumeok hartzen dugula sasoi batean umeen kargua. Guk baditugu seme-alabak (bik hiruna eta beste bik bina). Eta egia da gehiago garela eszedentzia hartzen dugun emakumeak gizonak baino. Horrek ez du esan nahi horregatik ezin garela gerente izatera heldu. Parentesi bat besterik ez da. Eta eszedentzia hartzearren, Coprecin ez da inor baztertu. Pertsonaren gaitasunaren arabera, norberaren espektatiba, anbizio, ilusio, eta gogoen araberakoa da traiektoria profesionala. Gaitasuna inportantea da, eta norbera jartzeko prest dagoena ere bai.

**Zer mezu emango zenigukete emakumeoi?**
Emakume izateak ez duela ezer galarazten. Oso erabaki pertsonala da. Baina posible da emakume izanda karguak izatea, eta lanean gizonen moduan jardutea.

## Ertzaintza auto istripu baten lekuko bila dabil

GOIATZ ARANA | ESKORIATZA

Joan den zapatuan Arrasateko saihesbidean izandako istripuaren lekuko bila dabil Ertzaintza. Norbaitek zerbait ikusi bazuen Bergarako komisariara joateko edo 943 43 57 20 telefono zenbakira deitu eta Ikerketa Sailarekin pasatzeko eskatzeko abisua eman du. Istripu hartan bi eskoriatzar larri zauritu ziren.

Hain justu ere, zapatuan 22:05ean gertatu zen istripua. Hyundai markako auto batek eta BMW markako auto batek aurrez aurre jo zuten, esandako moduan, Arrasateko saihesbidean, GI-627 errepidean. Istripuaren ondorioz, Hyundai markako ibilgailuan zihoazen bi lagunak, 69 urteko gizonezkoa eta 67ko emakumea, larri zauritu ziren; eskoriatzarrak dira biak. Suhiltzaileek atera behar izan zituzten ibilgailutik, eta Gasteizko Txagorritxu Ospitalera eraman zituzten. BMWaren gidariak, berriz, positibo eman zuen alkohol proban eta atxilotu egin zuten; edozein kasutan, Ertzaintzak ez du argitu nola gertatu zen istripua.



# Beherapenetan beheranzko joera berretsi dela diote ibarreko saltokiek

Debagoieneko merkatari elkarteek, orokorrean, kontatu dute lehenagotik zetorren makalaldiak jarraipena izan duela neguko beherapenetan

**UBANE MADERA** | DEBAGOIENA
Legeak beherapenak urteko edozein sasoitan egiteko askatasuna eman arren, gurean saltoki gehienek orain arteko datak errespetatu, eta bukatu berri dituzte, edo asteburuan *outlet* azokak dituztenen kasuetan, bukatzear dituzte neguko beherapenak. Eta orokorrean, beherapen tristeak izan direla kontatu dute.

**Arrasaten, joera aldaketa**
Arrasateko Ibai Arte elkarteko kide eta Elkoro dendako ugazaba Jesus Mari Elkorok hala izan dela baieztatu du: "Nahiko pobreak izan dira. %15-%20 gutxiago saldu da beste urte batzuekin konparatuz. Baina eredua bera aldatzen ari da. Lehen datak zaindu egiten ziren, eta orain lehenago (Gabonetan) egin dira deskontuak, eskaintza bereziak... Ondorioz, beherapenetan saldu behar zeneko zati bat pasa da sasoi arruntetara. Nire pentsamendua da beherapenak orain arte ezagutu ditugun moduan desagertu egingo direla. Promozio-oferta-deskontuekin nahasten doaz, beherapenak eurak desbirtuatuz".

**Bergaran, iaztik hona bereziki**
Triste antzean ibili dira, baita ere, Bergaran. Jon Ander Egaña Bedelkar elkarteko presidente eta Etxeberria erloju-dendako ugazabak kontatu du lehenagotik datorrela joera hau: "Aurten ez dugu jaitsiera berezirik igarri, baina geroago eta beherago doa; lehenagotik datorren kontu bat da; iaztik bai, behintzat. Eta urtarriletik hona beherakada igarri dela ere esan daiteke. Arrazoia krisia da, baina konprobatuta dago, baita ere, gazteek gero eta gehiago Internet erabiltzen dutela erosketak egiteko. Eta horrek ere min egiten du".

DATUA

**%20**

GUTXIAGO

Arrasateko merkatari elkartetik emandako datuaren arabera, aurten %15-%20 gutxiago saldu dute beherapenetan

**Oñatin, kontsumitzeko beldur**
"Oñatira ere iritsi da krisia. Iaztik hona hasi da, eta bereziki, irailetik hona gauza doa makal-makal; piloa igarri da. Oñatin langabezia beste herrietan baino txikiagoa izan arren, jendeak dagoeneko ez du %100 kobratzen. Soldatetan murrizketak egon dira, eta kontsumitzeko beldurra hedatzen hasi da, denean: elikagai dendetan, okindegietan, arropa dendetan… Beherapenak izan dira makalaldiaren jarraipena; ez da aparteko salmentarik izan", kontatu du Aitor Ugartek, Txanda elkarteko kide eta Bellotza dendako arduradunak.

**Aretxabaletan, erremateak**
Aretxabaletan, berriz, ez dute sentsazio hori "orokorrean". Idoia Elexpuruk, Aretxarteko presidente eta Belar Meta dendako arduradunak ez du "kontsideratzen" beherapenak bukatu direnik "azoka egin eta astebete gehiagoz" izaten dituztelako erremateak dendetan. "Belar Metaren kasuan, zabaldu genuenetik krisi egoera igarri dugu. Ez ditut garai oparoak ezagutu. Beti antzera saldu dugu", gaineratu du Elexpuruk.

**Maite Iturbe** | EiTBko zuzendari nagusi berria

# "Nahiko erronka gogorra izango da, baina ilusio handiarekin gaude"

**GOIENA** | ARRASATE
Legebiltzarrak atzo, eguena, onartu zuen Maite Iturberen hautagaitza EiTBko zuzendari nagusi kargurako eta, izendapena jaso berri, dituen asmoak aurreratu zituen Arrasatekoak: "Aldaketa dramatikorik gabeko kudeaketa" iragarri du eta, euskarazko kanalak indartzearekin batera, albistegien "independentziari eustea" eta entretenimendu modu berriak topatzea izango dira lehentasunak. Gaineratu du ohorea dela berarentzat zuzendaritza hartzea, bere etxea bezala delako EiTB. 30 urte daroatza bertan lanean.

Goienan egin ditu lehen adierazpenak Iturbek, EiTB zuzenduko duela jakin ostean.


Maite Iturbe Arrasaten. | E.A.

**Ez duzu erronka makala, bereziki, krisi koiuntura honetan…**
Ez, egia da. Nahiko gogorra izango da, baina, hasieran, behintzat, ilusio handiarekin gaude; izan ere, sinisten dugu gure komunikabideetan. Pozik, oso pozik gaude alde horretatik. Erronka polita da.
**Astelehenetik, jo eta ke.**
Bai, hala da, hasiera-hasieratik jo eta ke lanean. Seguruenez, EiTBko Administrazio Kontseilu berriarekin batzartuko gara astelehenean eta lanean hasiko gara.
**Zure izendapena jakinekoa da, baina zure taldea osatuko dutenen izenak noiz jakingo ditugu?**
Aurrerago, Administrazio Kontseiluaren bilera egin ostean.

# Antzuolako atez atekoa aztertuko dute Europan

"Adierazgarriena eta berritzaileena" izateagatik aztertuko dute Antzuolako sistema

**U.M.** | ANTZUOLA
"Herri zein eskualde mailetan, gaur egun indarrean dauden direktibetan zehaztuta daudenak baino helburu berritzaile eta anbiziosoagoak dituzten hondakinen kudeaketa ezberdinak" aztertu gura dituzte Europan. Eskualdeen Komiteak eta Europako Komisioak ikerketa egitea enkargatu dio Ecologic Instituteri, Austriako Ingurumen Ministerio Federalaren eta Vienako Unibertsitatearen kolaborazioarekin egin dezan.

Debagoieneko Mankomunitateak jakinarazi duenez, Antzuolako atez ateko hondakinen bilketa sistema aztertuko dute.

Azterlan hori egiteko, "Europako Batasuneko kide diren estatu bakoitzean eredugarri diren adibide bana hautatu eta Espainiako kasuan, autonomia erkidegoetako ereduak aztertu ondoren, adierazgarriena eta berritzaileena izateagatik, Debagoieneko Mankomunitateak Antzuolan daraman atez ateko hondakinen bilketa sistema aztertzea erabaki dute". Eta hori egin dezan, Mankomunitateak "ikerketarako beharrezkoak diren datuak" eskaini dizkio Ecologic Instituteri.

# Korrikan presoen argazkiak eraman izanagatik epaitutakoak absolbituta

**JULEN IRIONDO** | DEBAGOIENA
Duela bi urteko Korrikan euskal presoen argazkiak eramateagatik epaitutako Amaia Osa, Sebastian Etxeberria eta Iñaki Manuel bergararrak eta Joseba Garitaonaindia arrasatearra absolbitu egin ditu Espainiako Auzitegi Nazionalak. "Terrorismoa goratzea" egotzi zieten lauroi, baina epailearen arabera ez da frogatu horretarako asmorik zutenik. Hala, otsailean epaitu zituzten, eta hamabost hilabeteko kartzela zigorra eskatu zuen fiskalak auzipetu bakoitzarentzat. Baita zortzi urteko inhabilitazioa ere.

## Isaias Carrasco Arrasateko zinegotzi ohiari omenaldia egingo diote bihar, zapatua, bosgarren urteurrena dela-eta

PSE-EEk omenaldia eskainiko dio bihar, zapatua, duela bost urte ETAk hil zuen militante sozialista arrasatearrari. 12:00etan egingo dute ekitaldia, eraila izan zen lekuan bertan, San Andres auzoko Navas de Tolosa kalean; lore eskaintza egingo diote. Ekitaldian parte hartuko dute Sandra Carrascok, Isaias Carrasco zenaren alabak; eta Iñaki Arriolak, PSE-EEren Gipuzkoako idazkari nagusiak. 2008ko martxoaren 7an hil zuten Arrasateko zinegotzi ohia. Lanera joateko etxetik irten eta autora sartu berri zenean tirokatu zuten ETAko kideek; hiru bala jaso zituen etxe atarian, senitartekoen aurrean. Eguerdiko ordu bietarako minutu gutxi batzuen faltan ingresatu zuten Arrasateko Ospitalean, baina ezin izan zuten ezer egin, berehala hil zen.

MU (+) MONDRAGON UNIBERTSITATEA
professional learning space

DOAKO IKASTAROAK
HOBETUZ-ek SUBENTZIONATUTA

| IKASTAROA | ORDUAK | DATAK | ORDUTEGIA |
|---|---|---|---|
| **FINANTZAK** | | | |
| Fiskalitatea Enpresan | 12 ordu | Martxoak 18, 19 eta 20 | 15:00-19:00 |
| Finantzak Ez Finantzarioentzat | 15 ordu | Maiatzak 6, 8, 13, 15 eta 20 | 15:00-18:00 |
| Kostuetara Sarrera | 12 ordu | Ekainak 3, 5 eta 10 | 15:00-19:00 |
| **MARKETINGa** | | | |
| Salmenta Teknikak | 12 ordu | Apirilak 16<br>Apirilak 18 | 15:00-19:00<br>Egun osoa |
| Bezeroari zuzendutako arreta | 12 ordu | Ekainak 10, 12 eta 17 | 15:00-19:00 |

Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzua Servicio Vasco de Empleo
HOBETUZ
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

INFORMAZIO GEHIAGO: MU ENPRESAGINTZA - MONDRAGON UNIBERTSITATEA
Ibarra zelaia, 2 // OÑATI – Gipuzkoa
Tfn.: 943 71 80 09 // migarzabal@mondragon.edu // www.mondragon.edu/muplus

## ZABALIK



**OSKAR ELIZBURU**
http://goiena.net/iritzia/

# Eman euskara elkarri

Badator Korrika, zelako emozioa! Bai, bertan dugu, datorren astean hasiko da eta bi aste barru guretik pasatuko da. Ea eguraldiak apur bat laguntzen digun!

Eta emozioa zergatik, bada? Ez dakit Korrikak zer daukan, baina hunkitu egiten naiz parte hartzen dudan bakoitzean. Nik uste dut partaidetzagatik dela, taldekide sentitzen garelako. Surflaria olatuarekin bat egin eta ur sentitzen den bezala, gu eta euskara bat bihurtzen garelako izango da, gu garelako euskara bera. Euskara ez da hizkuntza bat bakarrik, ez da hizkuntza bat gehiago; euskara gure izaeraren parte da, gu egiten gaitu eta guk egiten dugu.

> **"Gure izaeraren parte da, gu egiten gaitu eta guk egiten dugu"**

Eta euskararekin bat egin hori besteokin konpartitzeko beharra dago. Hizkuntza, zein berak dakarkigun guztia, besteei eman behar diegu; azaldu egin behar diegu. *Euskara elkarri ematea,* beraz, konpartitzea da, ondokoari babesa ematea, ikastea, euskaraz egin nahi duenari bide ematea, erabiltzea, sustatzea, baliabidez laguntzea...

Aurreko Korrikan euskalakariak behar genituela esan genuen; euskara maitatu, ikasi eta erabiltzen dutenak. Ikasleak omendu ditu Korrika 18k, hain zuzen ere, ikasteko eta erabiltzeko pausoa eman dutelako; euskalakari direlako, pausoa eman dutelako. Bestalde, txalo bero bat bidali nahi nizueke, hemendik, Korrika antolatzen lanean diharduzuen denoi; euskararen sustapen ekintza handi honetan euskara maite duzuela erakusten ari zaretenoi, horretan ere euskalakari zaretela erakusten duzuenoi.

Parte hartze horiek guztiak dira *Eman euskara elkarri*-ren ispilu: egunero kontuan hartzea euskara gu garela, gure euskara hobetu behar dugula, erabili eta konpartitu behar dugula, transmititu behar dugula...

Euskaraz bizitzeko erabakia bihotzetik hartzen da, sentimenduetatik; hori horrela bada, ondokoari emateko beharra sentituko dugu, eta, maitasunez, emango diogu.

## USTEAK USTE

**MIREIA BIKUÑA** | mbikuna@goiena.com

# Kamera aurreko lanak

Oraintsu hasi naiz kamera aurreko lanak egiten. Orain arte, ahotsa sartu izan dut Goiena telebistako albisteetan eta aste bukaeretako grabazioetan nire eskua askotan agertu izan da. Baina gure amak alaba kamera aurrean ikusteko ametsa izan du beti. Eta, hara, otsailaren 14an bete zitzaion ametsa. *Planik, bai?* kultura saioa aurkeztu nuen lehen aldiz. Oroitzapen onak ditut. Oso gustura egin nuen. Saioari neurria hartu nionean, beste aukera bat: *Harmailatik* kirol saioa aurkeztea. Erronka handia, baina nire ametsa betetzeko aukera ematen zidana: kirol kazetari izatea. Horixe erantzun nion irakasle bati, handitan zer izan nahi nuen galdetu zidanean.

## MARRAZKIZ

**ALEX UGALDE** | http://goiena.net/iritzia/




*Harlem Shake delakoaren abestia.

## HANDIK ETA HEMENDIK

# Testu bidezko mezua hizketa da, atzamarrez egina

**Joxe Arantzabal**
http://blogak.goiena.net/faroa/

John McWhorter Columbia Unibertsitateko Hizkuntzalaritza irakasleak ohartarazi digu *TED2013* hitzaldi interesgarri batean oker gabiltzala pentsatzen badugu testu bidezko mezuak idazketa direla:

"Testu bidezko mezua ez da hizkuntza idatzia", esan zuen, "askoz ere hurbilago dago oso aspalditik izan dugun hizkuntzatik: hizkuntza mintzatua".

Gure artean, ados ote daude Kike Amonarriz eta Asier Sarasua baieztapen horrekin?

*Wired* aldizkariak jaso du hitzaldiaren berri.

Bertan hizlariak dioenez, gizakiok hizkera erabili dugu elkarren artean komunikatzeko, 150.000 urtez bai.

Idazketa, berriz, antzelan erabilgarria izanda ere, asmakizun nahiko berria da.

"Gizateria bizi izan balitz 24 orduz", esan zuen McWhorter-ek, "idazketa agertuko zatekeen gaueko 23:07etan".

Une jakin batean, idazketaren zehaztasuna eta formalismoa hizketan txertatu zen.

Harrezkero, denok ezagutu dugu norbait kode formalean hitz egiten duena, barroko samar.

Hortaz, hitz egin ahal badugu idazten dugun moduan, zergatik ez idatzi hitz egiten dugun gisan?

Orain arte erabili ditugun tresnak (arkatzak, idatz makinak, ordenagailuak…) ez dira egokiak izan, argudiatu du McWhorter-ek, motelegiak zirelako.

Telefono mobila, berriz, eskuragarria eta bizkorra da.

Hortaz, testu bidezko mezua ez bada idazketa, zer da orduan? "Hizketa, atzamarrez lagundua".

"Errazena da esatea testu bidezko mezularitza hizkuntzaren gainbehera dela", dio McWhorter irakasleak.

Baina ez gaitezen engaina, mendeetan barrena gauza bera esan du-eta jendeak, erromatarren garaian hasita.

"Hala ere, nolabaiteko konplexutasuna sortzen ari da hor, arau eta hizkera propioa garatzen ari baita atzamar bidez egindako hizketan".

# Handiosak

**Anjel Lertxundi Esnal**
http://berria.info/blogak/lertxundi/

Hedabideek egunero dakarte desberdinen aurkako erasoren baten berri, homosexualen kontra, etorkinen bizkar, emakumeen gaienean, beste kulturen mespretxuz. Sarri, urtetako formazioa gozatu dutenak dira ahoa neurri jarduten dutenak, unibertsitatetik pasatutakoak, kultura suposatzen zaienak.

[...]

Ohikoa bihurtu da nazismoaren adibidea jartzea: kultur eredutzat jotzen zen herri batek lautu zuen holokaustorako bidea. Izateko eta bizitzeko eredu bat baino gehiagoren existentziari aurre egiten dion pertsonak alferrik zintzilikatuko ditu bi doktorego eta bost titulu bere paparrean: ikasi izanak ez du ziurtatzen humanismoa, besteenganako errespetua, desberdinen onarpena.

Balirudike ikasteko ditxa izan duenak exijentzia gehiagorako trenpea behar lukeela. Askotan, ordea, banitatea da gehiago daukana: ustez besteen gainetik dagoenaren tonto haize handiosa.

goiena"
KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
**Lehendakaria** Estepan Plazaola
**Zuzendari nagusia** Iban Arantzabal

**Zuzendaria** Eneko Azkarate
**Erredaktore burua** Ubane Madera
**Sailetako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Maketazioa** Iñaki Iturbe, Imanol Soriano, Kepa Martelo
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate.
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia.
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

**EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPERA**
**ARRASATE 20500**:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

**ORDEZKARITZA**
**ARETXABALETA 20550**:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

**Harpidetza** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** NA-3329/2000
**ISSN:** 2174-369X
**Tirada:** 20.100 ale
**Difusioa:** 19.951 ale

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK

Gipuzkoako Foru Aldundia | Arrasateko Udala | Bergarako Udala | Oñatiko Udala | Aretxabaletako Udala | Eskoriatzako Udala | Antzuolako Udala | Aramaioko Udala | Elgetako Udala | Leintz Gatzagako Udala

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria**

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

# GUTUNAK

**Atal honetan argitaratzeko diren gutunek, gehienez izan behar dituzte 1.900 karaktere (hutsuneak barne). GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko.**

Gutunarekin batera bidali beharrekoak dira: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa.
Gutuna helarazteko bideak dira: Otalora Lizentziaduna, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

## Donostialdeko metroa

**Iñigo Trojaola Zubizarreta**
Aretxabaleta

Azkenaldi honetan hedabideetan hor ari dira Donostialdeko metroa gora eta behera. Honen aurrean harridura sortzen zait niri. Nola liteke posible horrelako planteamenduak egitea, oraindik gurea moduko eskualde batek autobus zerbitzuaren eraginkortasunean bidea egiteko daukanean. Egia esan, izugarri hobetu da egoera orain dela ez urte asko geneukanarekin alderatuz, baina nik autobusa hamar minuturo edukitzea aldarrikatzen dut. Gure inguruko hiriburuetako edozein auzok izaten du maiztasun hau garraio publikoan. Debagoienak hirurogei mila biztanle inguru ditu. Nire ustez, autoestimua hobetu beharrean gaude, pentsatzen dut gutxienez Gasteizko auzo batek besterainoko inportantzia izango dugula.

Dena dela, bada beste arrazoi bat eskakizun hau egiteko. Bailaran Arrasate dugu eskualdeburu. Hau horrela, ia bertatik bakarrik ateratzen dira Bilbo eta Donostiara joaten diren autobusak, baita Gasteizerako bidaia egiten dutenen erdiak ere. Ulergarria dirudien arren, ulertzen ez dena da linea hauek bertako linearekin koordinatuta ez egotea. Horrelako bidaietan, demagun Aretxabaletatik Donostiara joan behar dugula, bi autobusetan bidaiatu beharko dugu eta esperientzia izan dugunok badakigu hogei minuturoko maiztasuna oso motz geratzen dela aldaketa egiterakoan. Beraz, Debagoieneko alkate eta zinegotziei zera eskatzen diet, egon daitezela adi eta Donostialdeko metroa bezalako proiektuen aurrean gure garraio publikoa lehenetsi dezatela. Bukatzeko, herritarrak animatu gura nituzke ahal duten heinean autoa utzi eta autobusa erabiltzera, horrek ematen baitio benetako zilegitasuna aldarrikapen honi.

## Aintzane Oiarbide, errauskailuak eta minbizia (4)

**Ander Lizarralde Lizarralde**
Oñati

*"Minbizia bezalako gaixotasuna inolako arrazoirik gabe beldurra sartzeko erabiltzeak ez du izenik"* (Aintzane Oiarbidek, otsailaren 2ko GOIENAn).

Suedian errauskailuetako langileen osasuna ikertu zuten. Emaitzen arabera, biriketako minbizia izateko gainontzeko biztanleek baino 3-5 aldiz aukera gehiago zuten

Gustavsson P. (1989). *Mortality among workers at a municipal waste incinerator. American Journal of Industrial Medicine 15: 245-253.*

Triesten (Italia) errauskailu inguruan bizi ziren biztanleak ikertu zituzten. Emaitzen arabera, errauskailutik gertu bizi zirenek biriketako minbizia izateko 6-7 aldiz aukera gehiago zuten gainontzeko biztanleek baino.

*Biggeri A., Barbone F. and Stanta G. (1996). Air pollution and lung cancer in Trieste, Italy: Spatial analysis of risk as a function of distance from sources. Environmental Health Perspectives 104 (7): 750-754.*

Ingalaterran 72 errauskailuren inguruetako biztanleen minbizi-tasak ikertu zituzten. Emaitzen arabera, errauskailuen inguruko biztanleen artean urdaileko, gibeleko eta biriketako minbizien tasak nabarmen egiten zuen gora. Gibeleko minbiziaren kasuan 3,7 aldiz egiten zuen gora.

*Elliot P., Beresford J. and Grundy C. (1996). Cancer incidence near municipal solid waste incinerators in Great Britain. British Journal of Cancer 73: 702-710.*

Austrian errauskailuetatik gertu zeuden granjetako behien esnea ikertu zuten. Esnean dioxina kopuru oso handiak aurkitu zituzten.

*(MAFF (1997a). Dioxins and PCBs in cows 'milk from farms close to industrial sites: Rotherham 1997. Publ: Ministry of Agricuture Fisheries and Food, 4pp).*

Madrilen, Belgikan eta Polonian, azken teknologiadun errauskailu "moderno"-etako dioxina-isurketak ikertu dira. Eta emaitza onik ez!

Madrilgo Valdemingomezko errauskailuan legez onartutakoa baino 15 aldiz dioxina kopuru handiagoa agertu zen.

Belgikan ikertu zen errauskailuan legez onartutakoa baino 30 aldiz dioxina kopuru handiagoa agertu zen emaitzetan.

*De Fre R. and Wevers M. (1998). Underestimation in dioxin inventories. Organohalogen Compounds 36: 17-20.*

Polonian errauskailu moderno bat baino gehiago ikertu ziren. Haietako askok onartutako dioxina kopurua guztiz gainditu zuten.

*Grochowalski A. (1998). PCDDs and PCDFs concentration in combustion gases and bottom ash from incineration of hospital wastes in Poland. Chemosphere 37 (9-12): 2279-2291.*

Datu berrienak Madrilgo Osasunerako Carlos III.a Institututik iritsi zaizkigu. Eta hauek ere kezkagarriak! 1997-2006 urteen artekoa da lana. Ikerketa zientifiko honek errauskailuen ondoan bizitzearen eta minbiziaren arteko erlazioa baieztatu du, beste behin ere.

Bosgarren edukiontzia = errauskailua = kantzerra.

Debagoienean nahi al dugu errauskailurik? Ez? Ba, Zubietan ere ez dute nahi.

## Musakolako kiroldegikoon partez, eskerrik asko!

**Larraitz Sanzberro**
(Aukeako zuzendaritza)
Arrasate

Joan den otsailaren 5ean, kiroldegiko erabiltzaile bati bihotzekoak eman zion eta, erabiltzaileei eta desfibriladoreari esker, bizitza salbatu genion. Arrasateko Udalak eta/edo AUKEAk erabiltzaile horiei zuzenean eman zizkien eskerrak eta, idatzi honen bitartez, lan hori jendaurrean ere eskertzeaz gain, jendarte oso berekoi honetan horrelako ekintzak egitea goraipatu nahi du.

Gertaera jazo zenean, AUKEAk abisua eman zien larrialdietako zerbitzuei, bitartean Institutuko bi irakaslek bihotzeko masajea egiteari ekin zioten, bihotzaren taupada mantentzeko. Jarraian erizaina den erabiltzaile baten laguntza jaso zuten eta AUKEAko sorosle batek, desfibriladorea erabiliz, bihotza berriz ere taupadaka hastea lortu zuten. Une horretan Gurutze Gorria eta Osakidetzako anbulantziak iritsi ziren eta bihotzekoa jasan zuena egonkortu eta ospitalera eraman zuten. Erabateko talde lana izan zen eta, zorionez, oso zuzen egindakoa. Izan ere, Osakidetzako larrialdietakoek zoriondu egin dituzte AUKEAkoak, ezbeharra gertatu zenean erakutsitako profesionaltasunagatik: "Kiroldegian gauzak azkar eta ondo" egin izana azpimarratu dute.

Kontuan izan behar dugu halako tresna batez bizirauteko aukera dagoela %90ean, bihotzekoa izan eta lehen lau minutuetan jardunez gero. Minutu bakoitzeko, errekuperatzeko itxaropena mugatzen da %10era. Berehala jardun ezean, arriskua dago buruan kalteak izateko edo hiltzeko ere bai.

Kontuan hartu behar dugu jeneralean deia egin eta larrialdietako zerbitzuak etorri arte batez beste 10 bat minutu edo gehiago behar direla.

Denbora horretan biktimaren biziraupena ingurukoen mende egoten da, haien lehen jarduna azkar eta agudo egitearen mende, hain zuzen ere. Bihotza-birikak berpizteko maniobrek bikoiztu edo hirukoiztu egin dezakete bat-bateko bihotz-gelditze baten biziraupena, eta denbora irabazten dute desfibrilazioa egin arte. Izan ere, bihotz taupada errekuperatu dezakeen neurri bakarra da hori, bentrikulu fibrilazio batek sortzen duenean bihotz-gelditzea.

Bihotz-birikak berpizteko maniobrek eta desfibrilazioak lehen 3–5 minutuetan, bihotzak gelditu eta gero, bizirik geratzeko tasa oso handiak lortu ditzakete, %49tik %75erako tartean.

Desfibrilazioa egin arte, minutu bakoitzeko, bizirik irauteko aukera murrizten da %10etik %15erako tartean.

Gaineratu nahi dugu Arrasateko Udalak hiru desfibriladore dauzkala erabiltzeko prest: bata Udaltzaingoan, bigarrena Iturbide egoitzan eta bestea Musakolako kiroldegian.

## Martxoak 8

**Marisol Andrade**
Eskoriatza

Emakumea naiz, bai, eta harro nago.

Ama naiz. Lana etxean zein at egiten dut, eta harro nago.

Ama, ahizpa, amama, birramama, etxeko emakume guztiak oroitzen ditut, eta harro nago.

Lagunak, lankideak, ezagunak, herriko zein kanpotarrak diren emakumeak baloratzen ditut, eta harro nago.

Lorena alaba ikusten dut eta Unai, anaia, bere ondoan ikustean, harrotasuna baino askoz gehiago sentitzen du ene buruak. Berdintasun hitza biendako gura baino ez dut nahi. Horretarako, Platonen hitzak heldu besterik ez dut.

"Ez dago ezin-ulermen handiagoa nire Euskal Herrian, emakumeen zein gizonen artean dagoen bidea berdintasunaren helburua lortzeko hauxe egitea baino: ezberdintasunaren bidea erabiltzen dute, garun bat izan beharrean. Hori dela eta, Euskal Herri bat berdintasunaren bidean kokatuta izateaz baino gehiago, erdibana aurkitzen da, emakumearen eguna / gizonaren eguna ospatzerakoan".

Senarrak eta biok ez dugu ospatuko Martxoaren 8a, Emakumeen Eguna; nire etxean hitza baitago aplikatuta.

Gizakiaren Eguna izatekotan, berdintasunaren alde izanda, orduan bai, geure eguna. Guk gura dugu geure seme-alabaren eremuak izan eta.

## Bost arrazoi martxoaren 9an Bilbora joateko

**Ander Gallego, Ana Sebal, Amaia Arana, Aittor Aranzabal, Jose Ramon Kortabarria, Jesus Markez, Naiara Arregi eta Luis Garcia**
(LAB)
Debagoiena

1-Aurreko esperientzietan izandako balorazio baikorrean oinarrituta, LABeko hainbat delegatu eta beste sindikatuetako delegatuek enplegu galera gaiarekin edukitako eztabaidari irteera emateko proposamena delako. Borroka luze eta gogorretan murgilduta dauden delegatuek eta komiteek konbokatu dutelako.

2-Alarma gorria da egoera definitzeko denok erabiltzen dugun terminoa. Enplegu suntsiketa izugarria da eta aurreikuspen guztiek argi utzi dute goraka doala. Enplegu suntsiketak estatistika guztiak gainditu ditu eta aurrera doa. Eszenatoki honetan, LAB prest dago siglen borrokak alboratu eta langileen mobilizazio zabal honen mesedetan lan egiteko.

3-Jendartearen inplikazioa beharrezkoa da, enpresa eremua gainditzen duen eta langile klase osoaren aurkako eraso honen aurrean. Logika guztia dauka, beraz, konfliktoak orokortzen

>

diren momentuan ideia hauek komiteen eta delegatuen artean nagusitzea, jendartea beraien borroketan inplikatu nahi izatea, gazteak, pentsionistak, langabeak... Guztien kontra datorren eraso bat denon artean geldituko dugu; baina gehituz, inondik inora banatuz.

4-LABek bai mobilizazioari, bai manifestuari ere, ez dio inondik inora ezetzik esango, edukietan arazorik ikusten ez baitu. Aurka egitetik banaketa baino ez dator eta hori da patronalarentzat eszenatokirik hoberena enplegu suntsiketarekin aurrera egiteko.

5-Krisiaren ia seigarren urtean gaudela eta enplegu suntsiketa ikusita, oraindik ere enpleguaren aldeko mobilizazio nazionalik ez egotea LABek ez du positibotzat hartzen, kezkagarri dela deritzogu. Honengatik guztiagatik, komiteek eta delegatuek planteatutako ekimen hau bultzatuko dugu eta langileak animatu nahi ditugu, desberdintasunen gainetik, komiteen arteko dinamika bultzatzera eta gehitzera larunbatean Bilbon egingo den manifestaziora.

## Agur eta ohore, Hugo Chavez komandantea

**Kirmen Gaztelu**
(Askapena erakundeko militantea)
Arrasate

Askapenak, Euskal Herriko Erakunde Internazionalistak, Hugo Chavez Frias komandantearen heriotza dela eta, Venezuela bolibariarrari besarkadarik iraultzaile eta sentikorrena bidali nahi dio.

Ukaezina da berri latz honek eragin digun samina euskal herritarron bihotz internazionalistetan, eta ukaezina da duela 15 urtetatik hona errepublikako buruzagi eta prozesuaren ikur izan denaren heriotzak suposatu duen galera Inperialismoaren aurkako borrokan.

Herri antolatu honek duda izpirik gabe jakingo du aurrera egiten, hain justu, iraultza bolibariarraren etsaiek desestabilizazio eta intoxikazio makineriak azkartuko dituzten garaiotan.

Milioika lagun dira, lehen bezala orain, hasitako prozesua sakondu eta sendotuko dutenak.

Venezuela bolibariarra izango da!

Orain eta beti!

Euskal Herritik gure konfiantza berrestu nahi dugu Venezuelako herri langilean, atzera bueltarik ez duen prozesu iraultzailea aurrera eraman dezan.

Prozesu bolibariarraren borrokak eta lorpenak izaera estrategikoa dute sistema bidegabe eta kriminal hau gainditzea helburu dugun herri guztiontzat.

Honegatik Euskal herritik gure elkartasun internazionalista eta iraultzailea berresten dugu iraultza bolibariarrarekin, gurea ere badelako.

Hamaika herri, borroka bakarra!

## Juan Karlos Garitanori erantzuna

**Enrike Letona Biteri**
Arrasate

Joan den astean idatzi zenuen artikuluan esaten dituzunei erantzuten saiatuko naiz. Zuk zortzi urte daramazu konposta egiten –zorionak!– eta animalia-jatorriko hondakinekin ez duzu konpostik egiten. Zure erabakia da. Oso errespetagarria, gainera, baina gure baserrietan zer egin da betidanik animalia-jatorriko hondakinekin? Bada, txerri, txakur, katu edo oiloei eman edo besterik gabe konposta egin beste hondakinekin batera, sats-piloan. Salbuespena egiten zuten animalia handi bat hiltzen zenean; orduan, lurperatu egiten zen zelaian. Urte askotako praktika da. Intoxikazio asko ezagutu dituzu hemengo baserrietan?

Bestalde, 1069/2009 Europako araudia aipatzen duzu (norbaitek irakurri nahi badu, hemen: *http://www.madrid.org/rlma_web/html/web/FichaNormativa.icm?ID=1825).* Udalak martxan jarri duen konposta egiteko modu honen kontra hitz egiteko zergatik aipatzen duzu araudi hori? Izan ere, zuk esaten duzunaren kontra doa. Nire ustez, araudi hau ez da zentratzen bereziki etxeko hondakinetan, hauek ere aipatzen dituen arren. Etxeko hondakinak 3. kategorian sartzen dira eta horiek tratatzeko modu desberdinak aipatzen dira araudian eta horietako bat konposta egitea da (14. art., F puntua), hain zuzen ere, Udaletik planteatzen dena.

Bestalde, konpostaren erabilpenari dagokionez, esan beharrekoa da konpostak erabilera ugari dituela, ez bakarrik lorategietarako, gure mendi ihartuak biziberritzeko ere erabil dezakegu.

Europan gai honen inguruan zer esaten den gogoko baduzu, hona hemen Europako Ingurumeneko Zuzendaritzak egin zuen txostena konposta egiteko praktika onekin: (norbaitek ikusi nahi badu, hona hemen helbidea: *http://ec.europa.eu/environment/waste/publications/pdf/compost_es.pdf*). Praktika on horien artean honako hauek agertzen dira: Espainiako Estatuan, Area del Baix Camp, Area Metropolitana de Barcelona eta Montejurra; Frantziako Estatuan, Bapaume, Gironde, Niort; Irlandan, Cork, Kerry eta Limerick; Italian, Cupello, Monza, Padova; Portugalen, Amtres eta Lipor; eta Britainia Handian, Arun, Castle Morpeth eta Wyecycle. Leku hauetan guztietan jasotzen dira etxeko hondakinak, arraina eta haragia barne. Eta harrigarria! Europako praktika onak dira.

Azkenean arratoiak aipatzen dituzu. Usurbil, Oiartzun, Hernani eta Antzuola arratoiz beteta daude? Lasai egon, egongo balira behin eta berriz azalduko lirateke guztiok dakigun hedabideetan. Nik ez ditut ikusi, eta zuk?

Eta Europatik babestu eta txalotzen den proiektu ekologiko, jasangarri, osasungarri, serio, praktiko, eginerraza, eta garrantzitsuena, gure ondorengoei etorkizuna eskaintzen dien honetan, arazoak aurkituz gero, egon egongo direlako, denon artean bilatu beharko diegu irtenbidea. A! Ez da erraza; bai, ordea, ezinbestekoa. Bestela, hau bezalako hiru mundu beharko liratekeelako, eta bakarra daukagu.

Bukatzeko, konposta egiteko izena eman duzuenoi, animo!

Gure seme-alabek mundu honetan etorkizuna izan dezaten bide onetik goaz eta. Udaleko Bildukoei eta zehazki gai honetaz arduratzen den Josu Peredari, animo eta eutsi goiari!

## Xalanan egunerokua (4)

**Amaia Azpeitia eta Amaia Ortigosa**
Bergara

Eskerrik asko, Xalanan egunerokua irakurri dozuen danoi. Gaurkuan, azken hiru astietakua azaltzera gatoz. Bergaran, berdintasunan aldeko taldetxo bat sortu nahi daben emakume talde bat ga. Urtebete-ero izango da ideia honekin buruan gabizela, baiña fiñian ezer itxeke. Martxuan 8xa gerturatzen zijoian eiñian batu in giñan "zeozer" itxeko asmuakin. Ideiak botatzen hasi ta Martxuan 8ra arte geratzen zan eguakoitz bakoitzian GOIENAra gutun bat bialduko giñuala adostu giñuan. Biñaka jarri ta bikote bakoitzak data baterako idatzi biharra zeukan. Ederra izan da guretako, behintzat, ez zekigun-ta beste bikotiek zer idatziko zeben. Azken gutun honetan, Martxuan 8rako antolatutako ekintzetara gerturatzeko deialdixa itxia adostu giñun.

Gaur, 17:00etan, jatorri ezberdineko emakumien te-hartzia egongo da kultur etxian, Auzokok antolatuta. 19:30ian, Ariznoa kalian, *POST-eskerrak-IT performance*-a egongo da. Honen bitxartez nahi dozuen emakumiei berdintasuna lortzera bidian eindako lana eskertzeko aukeria eukiko dou. Segidan, 20:30ian afari-pasada herrikoia egongo da Gaztetxian. Animau zaitxe, afaldu bitxarteko tertuliatxua ahalik eta anitzena izan dain! Gero, 22:30 aldian, 3 euron truke *King-kong neska* antzezlana ikusteko aukeria egongo da, Gaztetxian baitxa.

Berdintasunan alde egunero ta momentuoro ein bihar dan arren, gaurko eguna aitzaki izan da guretzako be deialdi hau itxeko. Ondorengo idatzitxua interesgarrixa pentzau jakun, aber gustatzen jatzuen!

"Morea" feminismuan koloria da. Iñok ez daki zergaitixa, zehatz. Legendiak esaten dau 1908xan Estatu Batuetako ehun-fabrika batian hil zien 129 emakumien omenez hartu zala, enpresarixak langillien grebian aurrian, emakumiak barruan zerela lantegixai su emanda hil zienen izenian. Legenda berian agertzen da langilliak itxen zebizen ehunak moreak ziela. Poetikuenek esaten dabe lantegitxik irtetzen zan keia, eta kilometrotara ikus zittekeena, kolore horretakua zala. New Yorkeko Cotton ehun-lantegixan sutiak eta ehunek koloriak feminismuan mitologian parte die, historia baino gehixau, baiña bai koloria, bai eguna, Martxuan 8xa, munduko feminista guztiok konpartitzen dou.

## GSR Debagoienari esker ona

**Iñaki Atxa**
Aretxabaleta

Nire aitaren irudia zeuek ere oraindik oso presente izango duzuela jakinik, lerro hauen bidez, Aretxabaletako GSR Debagoiena egoitzako talde osoari nire esker ona helarazi nahi dizuet: zuzendariari, medikuari, erizainei, gizarte langileari eta laguntzaileei.

Profesionaltasunez eta maitasunez egiten duzuen lanari esker, familia handi bateko partaide sentiarazi gaituzue; zenbaitetan egoera latzak tarteko izan arren, egun bakoitza ahalik eta zoriontsuena bihurtzen saiatu zarete eta azkeneko trantze hau ere ahalik eta errazena izan dadin lagundu diguzue.

Bihotz-bihotzez, eskerrik asko.

## Zergatik ez, alkate jauna?

**Josu Leturia**
(Bergara Garbia Herri Plataforma)
Bergara

Urtarrilaren 30ean, Bergara Garbia Herri Plataformak Bergarako alkateari zuzendutako dokumentu bati sarrera eman zion herri horretako Udalean. Proposamen bat zen, akordioa egite aldera hondakinen bilketari dagokionez; eta, gainera, eskaera egiten zen atez ateko sistemaren ezarpena atzeratzeko, bosgarren edukiontziari aukera bat emateko probaldi bat eginda, eta bergararrek birziklatzearekin daukaten konpromisoa berresteko. Bada, hilabete baino gehiago pasatu da, eta gure alkate jaunak, beste behin, dokumentua bera jaso duenik ere ez digu komunikatu. Aurrekoan, zazpi hilabete behar izan zituen erreakzionatzeko, eta Udaleko osoko bilkura batean salaketa publikoa egin genuelako! Harendako –eta nahiz eta beste gauza bat esaten duen, gauza bat esan eta bestea egiten duelako–, 4.691 bergarar hutsaren hurrengo dira; agian, ustez kontsultatu diren ehun bat atarte baino garrantzi txikiagoa daukate. Argi dago haren helburu bakarra atez atekoa ezartzea dela, guztiaren gainetik. Nahiz eta bizilagun gehienek ez duten nahi. Alkatea ez dago herriaren ahotsa entzuteko, atez atekoa ezartzeko baizik, kosta ahala kosta.

Egoera honen aurrean bizilagun askok iradokitzen digute ekintza sendoak aurrera eramateko. "Intsumisioa" edo "desobedientzia zibila", adibidez; argi eta garbi. Bada, 4.691 sinatzaileek eta zabor-poltsen bidez atez atekoari gaitzespena erakusten dioten bizilagun guztiek agindutakoari jarraituta, Bergara Garbia Herri Plataforma ez da kikilduko azken orduko ekologismo faltsu horren aurrean, kanpotik asmatua eta ezarrita dagoena, Biduko Gipuzkoako agintari nagusiek Donostiarako bosgarren edukiontzia defendatzen duten bitartean zalaparta handiz –justu guk geuk eskatzen duguna–, baina dirulaguntza barne. Azal egiguzu, alkate jauna: zergatik ez da kantzerigenoa Donostian eta bai Bergaran? Zergatik nahi dute herria engainatu? Zergatik ez dute Donostian esaten eta egiten duten gauza bera Bergaran ere egiten eta esaten? Bergararrok Udal Gobernu Taldeari exijitzen diogu erantzun publikoa eman dezan kontu hauen gainean. Eskatzen dugu: alde batetik, herri kontsulta; eta bestetik, bergararrek –eta ez beste inork– hautatzen duten sistema instalatzea.



Eider Eraña, Nerea Urbieta eta Koldo Atxotegi, Arrasateko Instituto Opticok duen entzumen zentroan.



Instituto Opticok Arrasaten duen entzumen zentroa.




Instituto Opticok Bergaran duen entzumen zentroa.

# Entzumen arazo bakoitzerako audifonoak dira irtenbidea

## Audiometria, diagnostikoa eta audifonoa probatzeko aukera eskaintzen ditu Instituto Opticok

Begien osasunaz gainera, gure belarri edo entzumenaren osasunaz ere arduratzen dira Debagoienean. Kasu honetan, Bergaran zein Arrasaten, Instituto Opticon tituludun hiru profesional dituzte esparru horren lanketara bideratuta.

**ENTZUMEN ARAZOAK**

"Entzumen galerak eguneroko bizimodua asaldatu egiten du", adierazi du Koldo Atxotegik, Arrasate eta Bergarako Instituto Opticoetako audioprotesistak. "Entzumen galerak eragina dauka harreman pertsonal, profesional eta sozialetan. Baita telefonoz berba egitea moduko ekintza sinple batean ere", gehitu du.

**ZERGATIK JARRI AUDIFONOA**

"Gaur egun existitzen diren teknologia aurreratudun audifono diskretoen kantitate eta barietatea kontuan hartuta, ez dago arrazoirik entzumen galera bat ahalik eta lasterren ez tratatzeko", esan du Atxotegik. "Are gehiago, audifonorik modernoenekin, nire bezeroek hasieratik igartzen dituzte entzumen hobeagoak ematen dituen onurak".

**Belarri barruan doan audifono ikusezina da Oticon Intiga**

"Bestalde, gaur egungo audifonoek teknologia oso aurreratuak erabiltzen dituzte, eta modelo diskreto eta dotoreetan aurkeztuta daude, mota askotako pazienteendako eta lehentasunendako negokiak direnak", gaineratu du Atxotegik.

**AGERIKO ONURA BIZKORRAK**

Koldo Atxotegi da Debagoienean Oticon Intiga berria eskaintzen duen lehenengoetariko audioprotesista. Belarri barruan kokatzen den entzumen arazoendako irtenbide ikusezina da Oticon Intiga. Ageriko onurak laster ematen ditu, bai berbetaren ulermen egokiagoa ematen duelako, eta baita ere entzuteko ahalegin txikiagoa bideratzen duelako ere. Intiga txikia dago diseinatuta egun osoan modu ikusezinean eraman daitekeen audifonoen erabiltzaile berriengan bereziki pentsatuta. Intigarekin, entzumenak berehala eta agerian egiten du hobera, bai erailtzailearendako berarendako, eta baita haren senide eta lagunendako ere. Baina gainera, audifonoa bera ikusezina da modu atsegin batean, eta ezkutuan gorde daiteke", azaldu du Koldo Atxotegik.

**Belarri ostean ezkutatzeko audifonoak ere badituzte**

Bestalde, arrazoi fisiologikoengatik neurrira egindako irtenbide horretarako egokiak ez diren pertsonei begira, belarri ostean modu diskretoan ezkuta daitezkeen audifono txikiak ere badituzte Instituto Opticon.

**HILABETEKO PROBALDIA**

Bukatzeko, Koldo Atxotegik herritarrak gonbidatu gura ditu entzumen azterketa osoa egitera Instituto Opticon. Haren araberako diagnostikoa ematen diete herritarrei ostean. Eta gero, behar duten audifonoarekin hilabeteko proga egiteko aukera ere ematen dute, konpromiso barik, eta erosketa egin barik", azpimarratu du Atxotegik.

Eman lehenengo pausoa entzumena zaintzeko
Oticon | Intiga
Informazio gehiago jaso gura baduzu, etor zaitez.
fonalia
ENTZUMEN ZENTROA I AUDIFONOAK
ARRASATE: 943 79 71 68 • Erdiko kale 22
BERGARA: 943 76 97 03 • Bidekurutzeta kalea 10
instituto optico


**Lluis Verdaguer** | Bartzelonako Taradell herriko alkatea (CIU)

# "Edukiontzien sistemarekin ezin zaitezke iritsi hiri hondakin guztien %80 birziklatzera"

- Kataluniako atez ateko sistemaren gaineko azalpenak eman ditu gurean Verdaguerrek
- Dio Katalunian atez atekoa ez dela alderdi politiko jakin baten kontua

**ENEKO AZKARATE** | BERGARA

Lluis Verdaguer Taradelleko (Bartzelona) alkatea eta La Planako Mankomunitateko presidentea da. Bergaran izan berri da, hiri hondakinen gainean eta, batez ere, hondakinok batzeko euren herrian ezarrita duten atez atekoaren gainean berba egiteko. CIU alderdiko alkatea da eta 2007a ezkero daroa karguan.

**Taradellen sailkatuta batzen dituzue hiri hondakinak. Ze sistema darabilzue?**

2002an hasi ginen atez atekoarekin, baina herriko auzo batean. Eta 2005ean hasi ginen herri osoan, hondakin guztiekin, beirarekin izan ezik. Izan ere, kristala, gaur egun ere, ohiko edukiontzi berdeetan jasotzen dugu.

**Zenbat biztanle ditu Taradellek?**

6.200 inguru. Bestetik, La Planako Mankomunitatean batzen gara 12 herri; guztira, 32.000 biztanle. Herri handiena Tona da eta 8.500 bat biztanle ditu. 2000. urtean hasi ziren herri horretakoak atez atekoarekin. Kataluniako lehen herria izan zen sistema hori ezartzen.

**Gaur egun, mankomunitateko herri guztietan jasotzen dituzue hiri hondakinak atez ate?**

Bai, nekazaritza-guneko herri txiki batean izan ezik, hark ez dauka-eta hirigunerik. Osterantzean, 2000 eta 2011 artean 12 herrietan ezarri zen.

**Modu berezituan, zenbat hiri hondakin batzen duzue La Planan?**

Batez beste, %80.

**Aurretik, zenbat birziklatzen zenuten?**

Batez beste, %25. Beirarekin emaitza hobeak lortzen genituen eta %45eraino heltzen ginen.

**Materia organikoa batzeko edukiontzirik ez zenuten?**

Ez.

**Hasierakoak zelakoak izan ziren?**

Zalantzak eta mesfidantzak baziren biztanle batzuen partetik. Hori egia da, ez gaitezen engaina. Baina, gehiago, ezezaguna izatearren. Ez zen egon kontrakotasun gogorrik. Mesfidantzak zetozen ohiturak aldatzearren, egun eta ordutegi jakin bati lotzearren, hondakinak kalera ateratzeko lehen zegoen askatasuna mugatzearren. Baina gure helburu nagusia zen ahalik eta gehien birziklatzea eta ahalik eta gutxien eroatea zabortegira. Erronka hori geneukan eta argumentu horrekin eskatu zitzaien herritarrei ahalegina egitea.

**Ulertuta daukat papera eta kartoia eta beira ontzi berean batzen dituzuela. Hala da?**

Bai. Guretako samurra da, dena ontzi berean jaso ondoren, gero, bakoitza bereiztea. Papera eta kartoia, eta beira, samur bereiz daitezke. Material ezberdinak bereizteko planta bat daukagu eta horregatik batzen ditugu hondakindegi urdinean batera, papera, kartoia eta beira.

**Ez dizue arazorik ematen?**

Ez. Arazoa da materia organikoa, errefusa eta gainerako ontziak edo papera nahastea. Atez atekoarekin hasi ginenerako, hau da, lehenagotik ere, ez geneukan edukiontzi horirik eta urdinean jasotzen genituen papera, kartoia eta beste ontziak.

**Atez atekoarekin hasi eta berehala izan zenituzten emaitza onak?**

Bai; bizpahiru hilabetera, %70eko birziklatze mailan geunden. Gerora, poliki-poliki, emaitzak hobetzen joan gara eta ekimen bereziak ere antolatu ditugu hori lortzeko: puntu berde mugikorrak oso kutsakorrak izan daitezkeen materialendako, eta abar. Egia da, edozelan ere, hasieran pedagogia lan handia egin genuela, eta hasierako emaitza onak izan bezain laster horren jakitun jarri genituen herritarrak… Jendeak ikusi zuen, hasieratik, bere ahaleginak bazuela erantzuna. Guretako, Taradelleko herritarrondako, ohorea da, esaterako, 2011n Katalunian gehien birziklatu zuen herria izatea. Hiri hondakinen %86 gaika sailkatuta jaso genuen.

**Atez atekoa deserosoa dela esaten duenari zer esango zenioke?**

Zabor poltsa etxetik jaitsi eta bi kale beherago ontzi batera botatzea baino deserosoagoa al da zure etxepean uztea, nahi baduzu etxeko zapatiletan jaits zaitezkeelarik?

**Zikina eta estetikaren kontrakoa dela diote batzuek.**

Guk gauez jasotzen ditugu, 22:00etatik arrera. Gauerdirako jasota dago dena. Egia da tarte horretan hondakin asko dagoela kalean, baina, behin kamioia pasata, hurrengo egunean ez dago ez poltsarik ez eta edukiontzirik ere. Dena oso txukun dago. Ez dago usain txarrik... Ohitura aldatzeaz gain, ez dauka bestelako trabarik sistema honek. Gehiago esango nuke: orain erabakiko bagenu lehenagoko sistemara itzultzea, seguru nago gehiago kostatuko litzaigukeela eta kontrako ahots gehiago izango genituzkeela.

**Katalunian zenbat herritan dago atez atekoa?**

2011ko datuen arabera, 110 bat herritan. Guztira, 750 bat herri



Lluis Verdaguer, Bergarako udaletxean, joan den astean. | AMAIA TXINTXURRETA

**"Taradell da Katalunian gehien birziklatzen duen herria: %86"**

**"Gure eskuetan dago birzikla daitekeen guztia birziklatzea"**

**"Erraustegia edo zabortegia, bietako bat beharrezkoa da ezinbestean"**

daude Katalunian. Urtetik urtera gehiago gara. Dena den, hemen badago tabu moduko bat; izan ere, uste da herri txikiendako bakarrik balio duela atez atekoak eta ez 30.000 biztanletik gorakoendako. Esaterako, eraikin bertikal askoko herrietan zailagoa da. Dena den, Vic herrian aztertzen dabiltza atez atekoa jartzea. 40.000 biztanle inguru dira. Atez atekoak eskatzen du herri bakoitzaren ezaugarrietara egokitzea, moldatzea, herri guztiak ez baitira igualak.

**Atez atekoa vs erraustegia esaten da Gipuzkoan. Zuek ere arrazoi horrengatik egin zenuten atez atekoaren alde?**

Ez. Egia da hemen, Tona herrian, 80ko hamarkada amaieran, erraustе planta txiki bat jarri zela eta hark kontrako ahots asko sortu zituela eta herrian zatiketa eragin zuela. 10 bat urte egon zen martxan, eta, hura itxi zenean, atez atekoarekin hastea erabaki zuten. Aipatu dudan moduan, Katalunian sistema hau ezarri zuten lehen herria izan zen.

**Zergatik itxi zen erraustegi hura?**

Egunean jartzeak eta segurtasun neurriak ezartzeak inbertsio handia eskatzen zuelako. Eta zabortegiaren aldeko apustua egin zen. Nire ustez, zaila da esatea zein den irtenbide egokiagoa: zabortegia edo erraustegia. Biek kutsatzen dute: erraustegiak modu azkarragoan eta zabortegiak modu geldoagoan. Edozelan ere, biak dira beharrezkoak. Orain, helburuak izan behar du, lehenbizi, ahalik eta gehien birziklatzea, eta, horretarako, guri atez atekoa ondo doakigu. Ondoren, geratzen den hondarra erraustegira edo zabortegira eroan behar da. Ez dago beste aukerarik. Gure eskuetan dago birzikla daitekeen guztia birziklatzea.

**Zuek nora eroaten dituzue birzikla ezin daitezkeen hondarrak?**

Zabortegira. Horren alde egin genuen, erraustegiaren alde egin genezakeen moduan. Bi aukeren kostua garestia da, biak dira ingurumenarendako kaltegarriak, baina beharrezkoak dira. Zein aukeratu? Kostu kontua da. Aztertu eta komeni dena aukeratu behar da.

**Atez atekoa erraustegiari alternatiba da?**

Ez. Taradell da Katalunian gehien birziklatzen duen herria, eta, halere, %15 bat dago ezin daitekeena birziklatu. Zer egin behar duzu horrekin? Edo zabortegira edo erraustegira eroan. Egia da, bestalde, edukiontzien sistemarekin ezin zaitezkeela ailegatu %80 birziklatzera. Gaur egun teknologia berriak daude eta gaur egun txip bitarteko edukiontziak ere badaude, baina...

**Gurean ez bezala, Katalunian politika ez da nahastu hiri hondakinen kudeaketarekin, ezta?**

Ez. Gure mankomunitatean hiru udalerritan CIUk dauka alkatetza eta gainerakoetan independenteek. Atez atekoa ezarrita dagoen beste eskualde batzuetan, badira ERCko edo PSCko alkateak dituzten udalerriak. Atez atekoa ez da alderdi politiko jakin baten kontua Katalunian.

**Elkarrizketa osoa:** eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.

# Martxoan, eskaintza berezia sukaldeko altzarietan




www.kibuc.com jarrai gaitzazu

KIBUC Gure Ametsa

gureametsa@kibuc.com
Landeta Hiribidea, 1 - 20730 Azpeitia
Tel. 943 15 16 81

KIBUC
Azkenean gure etxean

# HERRIAK

ELGETA

# Ahotsak proiektuak lagun dituen guztiei esker ona emateko ekitaldia

- Martxoaren 15erako hitzordu berezia antolatu du Badihardunguk Espaloian, 18:30erako
- Proiektuak hamar urte bete ditu aurten eta 'Ahotsak.com' webguneak, berriz, bost urte

JOKIN BEREZIARTUA | ELGETA

Euskal Herriko Ahotsak proiektuak aurten hamar urte bete ditu eta *www.ahotsak.com* webguneak, bost. Hori ospatzeko, eta orain arteko ibilbidea laburtzeko, jaialdia antolatu du Debagoieneko eta Debabarreneko Badihardugu euskara elkarteak Elgetako Espaloia antzokian.

Martxoaren 15ean izango da ekitaldia, 18.30ean. Elgetan zergatik? Honela erantzun digu Asier Sarasuak, Badihardunguko kideak: "Arrazoi asko daude: proiektua Bergara, Elgeta eta Eibar artean jaio zelako, leku estrategikoa delako, Espaloiak azpiegitura egokia duelako eta, batez ere, bertakoak lagunak ditugulako".



2011ko apirilaren 13an Arrasateko Ahotsak proiektuaren aurkezpena egin zuten Kulturaten. Protagonistek talde argazkia atera zuten amaieran. | JOKIN BEREZIARTUA

**Ekitaldia, eskerrak emateko**

Ekitaldiak hiru helburu nagusi ditu. Hasteko, hamar urte hauetako ibilbidea errepasatzea: "Egin duguna eta egin nahi duguna jakinaraztea". Bigarrenik, webgunean egin diren berrikuntzen berri ematea, eta, azkenik, helburu "garrantzitsuena" dena: "Hamar urteotan bidean aurkitu ditugun lagun guztiei eskerrak ematea. Izan ere, Ahotsak guztion artean egiten dugu. Urteotan 500 lagun baino gehiago izan ditugu laguntzaile", dio Sarasuak. Laguntzaileen artean daude beste zenbait euskara elkarte, udalak, ikerlariak, transkripzioetan zein elkarrizketetan lagundu duten dozenaka lagun... "Horiei guztiei gure esker ona erakutsi nahi diegu".

Mikel Laskurain aktore bergararrak gidatuko du ekitaldia. Hasteko, bideo erakusgarri baten bidez historia, ibilbidea eta datu nagusiak emango dira. Gero, proiektuaren balioaz ohartarazteko grabatutako zenbait pasarte eskainiko dira, besteak beste. Gainera, proiektuarekin zerikusia izan duten Onintza Enbeita bertsolariak eta MP5 musika taldeak ere hartuko dute parte. Horren ostean, webgune berriaren aurkezpena egingo da –*Komunitatea* atal berriaren aurkezpen eta guzti–, eta baita laguntzaile guztiei eskerrak emateko ekitaldi bat ere. Ekitaldia amaitzeko, sari banaketa egingo dute, ahozko ondarearen bilketan "zeresan berezia" izan duten zenbait laguni oroigarri bat emanda.

Gero, pintxo batzuk dastatzeko eta berriketarako tartea egongo da eta 20:30ean kontzertua eskainiko du MP5 taldeak.



Asier Sarasua elkarrizketa egiten Hondarribiko edadetu bati. | AINARA MAYA

ESANAK

"Hasieran ez genuen uste horren urrun helduko ginenik"

"Proiektu sendoa gara, erreferentzia Euskal Herrian"

ASIER SARASUA | BADIHARDUGU EUSKARA ELKARTEKO KIDEA

**Ahozko ondarea jaso eta hedatu**

Ahotsak proiektuaren helburu nagusia da Euskal Herriko ahozko ondarea eta herri hizkerak katalogatu eta hedatzea. Hau da, herrietako adineko jendea elkarrizketatu eta haien euskara eta bizipenak jasotzea, gero herritarren artean zabaltzeko.

Proiektuaren oinarriak 2002-2003 urteetan landu ziren, metodologia, baliabideak eta alderdi teknikoa ezarrita. Ondorengo hiru urteetan, 2004-2007 bitartean, bilketa lana hasi zen eta jasotako materiala lantzen hasi ziren Badihardunguko kideak. Ordutik hona, Interneteko webgunea ere atontzen dihardute. Izan ere, webgunea 2008ko apirilaren 16an aurkeztu zuten. Beraz, proiektuak aurrera segitzen du, etengabe ari dira-eta materiala biltzen, lantzen eta datu-basea eguneratzen.

**"Orain, proiektu sendoa gara"**

Hamar urte pasatu dira, eta Sarasuari orain arteko balorazioa eskatu diogu. Haren arabera, balorazioa ezin da positiboagoa izan: "Orain dela hamar urte oinarriak ipini genituenean eta lehenengo elkarrizketekin hasi ginenean, ez genuen pentsatzen hain urrun helduko ginenik. Elkarte txiki bat ginen –eta gara oraindik–, eta gure asmoa zen Debagoieneko eta Debabarreneko ahozko ondarearen lekukotasun batzuk jasotzea. Txiki-txikitik hasi ginen, gutxinaka, eguneroko lanarekin. Orain, proiektu sendoa gara. Esango nuke egun erreferentzia garela Euskal Herri mailan", uste du.

**Lana hedatzea lehentasun**

Orain arteko lehentasuna grabazioak izan dira, galtzen dagoen ahozko ondarea batu nahian. 1936ko gerra aurreko Euskal Herria ezagutu zuten gazte haien lekukotasuna jaso nahi zuten, eta hori, neurri batean, egindа dagoela dio Sarasuak. Orain, beste fase batean sartzen da proiektua, betiere, grabazioak ahaztu barik: "Batetik, orain arte jasotako guztiaren lanketa egingo dugu; katalogazioa eta ikerketa, besteak beste. Bestetik, hedapena eta gizarteratzea da erronka. Izan ere lan horretan ere lan askotxo egin badugu ere, pentsatzen dugu horixe izango dela gure lan nagusietako bat datozen hamar urteotan. Hau da, jasotakoa modu errazean gizarteratzea: ikerlarientzat, ikastetxeetan haurrekin erabiltzeko, eta abar".

Dagoeneko lehenengo urratsak ere egin dituzte, eta *Ahotsak Ikasgelan* du izena urrats horrek: "Proiektu bat abiatu dugu dagoeneko Debagoieneko zenbait herri eta ikastetxetan. Guk jasotakoa ikasgelan zelan erabili aztertzen dihardugu, eta nahiko emaitza politekin, gainera", uste du Badihardugu elkarteko kideak.

DATUA

**4.186**

AHOTS JASO DIRA ORAIN ARTE

Euskal Herriko 245 herri bisitatu ditu proiektuak, eta 4.186 hizlarirengana heldu. Hizlarietatik 2.022 dira emakumeak eta 2.144, berriz, gizonezkoak. 43.398 pasarte jaso dira.

# Urte amaieran helduko da TAO unibertsitate ingurura, proba gisa

Hiru eremu autoen txandakatze beharraren arabera; isunak eta egoiliarrendako txartelak egongo dira

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

TAO indarrean jartzeko tramitazioa luzea da, eta, horregatik, urte amaierarako helduko dela aurreikusten du Udalak. Mugikortasun Planaren barruan kokatu du erabakia Udalak, argi duelako arrasatearren artean beste era batera mugitzeko ohiturak finkatu behar direla. Martitzeneko osokoan aho batez onartu ziren ordenantzek arautuko dute Arrasateko aparkamendu erregulatuaren funtzionamendua. Bertan daude jasota TAO jarriko den zonetan aparkamendua espazio eta denbora aldetik definitzen duten neurriak.

**Autoak txandakatzeko beharra**

TAO ezarriko den eremu osoan ordutegia izango da 09:00etatik 19:00etara, eta ez da TAOrik egongo zapatuetan, domeketan, jaiegunetan eta abuztuan. Eremu osoaren barruan hiru azpi-eremu zehaztu ditu Udalak, autoen txandakatze beharraren arabera. Unibertsitatetik gertuen dagoen eremuan daude aparkatzeko arazo larrienak eta eremu horretan ordu eta erdi bakarrik aparkatu ahalko da (1.1 azpi-eremua). Ordu eta erdiko epemuga gainditu ostean autoa tokiz aldatu beharko da. Egonaldi motzeko eremu horrek honako kaleak hartzen ditu: Jose Mari Arizmendiarrieta pasealekua, Arrasate pasealekua eta Loramendi kaleak –Arimazubi plaza inguratuz.

Egonaldi ertaineko eremuan, lehenengo ordu eta erdia doakoa izango da eta hortik aurrera, hiru orduko gehienezko aparkatzeko muga bete arte, denboraren araberako tarifa progresibo bat ezarriko da (1.2 azpi-eremua). Uribarri etorbidea, Uribe kalea eta Torre Eguzki inguruan dagoen Loramendi kalearen zatiak osatzen dute, baita Iturripeko iparraldeko sarrerako tramuak ere.

Azkenik, egonaldi luzeko eremua Loramendi kaleko erdialdeko eta mendebaldeko zatiek eta Iturripe kiroldegirako sarreraren hegoaldeko tramuak osatzen dute (1.3 azpi-eremua). Ibilgailua bertan eduki ahalko da aparkatzen den unetik egun bereko 19:00ak arte. Lehenengo ordu eta erdia doakoa izango da, baina hortik aurrera eta aparkatzeko gehienezko epea bete arte denboraren araberako tarifa progresibo bat jarriko da.

**Helburua ez da dirua biltzea**

Isunak egongo dira baina, tarifak moduan, oraindik ez dira ordenantza fiskaletan zehaztu. Hori bai, Omer Arregik argi utzi du helburua ez dela dirua biltzea, autoa hartzerakoan herritar zein ikasleen artean txip aldaketa eragitea baizik. Bestalde, egoiliarrendako txartelak ere egongo dira eta txartel horiek erroldatutako autoei egongo dira lotuta.

**DATUA**

**1,5**

ORDU DOAN

Gehienez ordu eta erdiz aparkatu ahalko da doan. Azpi-eremu bakoitzak ezaugarri ezberdinak ditu.



**AITOR URKIZA**
IKASLEA

"Ikasleak beti izaten ditu arazoak diruarekin eta egunero aurrera eta atzera dabilenarendako ez da ona izango. Ikasleei tarifa bereziak ezartzea da nire proposamena".



**ALEXANDRA ZAMORA**
LANGILEA

"Ez nago ados. Zer egin beharko dut, egunero hemendik kilometro batera aparkatu? Gainera, ez dago aparkaleku publikorik gertu... Ez lukete TAOrik jarri behar".



**LEIRE BIDEGAIN**
IKASLEA

"Gaizki iruditzen zait. Ikasle asko etortzen dira ikastera eta ez dut uste leku hau aproposa denik TAO jartzeko. Ikasleak dira eta ez dute dirurik izaten...".



**CARLOS LEZETA**
HERRITARRA

"Hasiera batean, ondo ikusten dut. Proba moduan jarriko dutela entzun dut, gero herriko beste gune batzuetara zabaltzeko. Ondo iruditzen zait".



**MIKEL GALARTZA**
IKASLEA

"Bere alde onak eta txarrak ditu. Aparkalekuen arazoa konponduko du, baina ordaintzea ez zaigu inori gustatzen. Gehiegizko prezioak ez badira, ondo iruditzen zait".

## TAO JARRIKO DEN EREMU OSOAREN PLANOA

**1.1 AZPI-EREMUA**
- Mugatutako eremua
- Bertakoak

**1.2 AZPI-EREMUA**
- Mugatutako eremua
- Bertakoak

**1.3 AZPI-EREMUA**
- Mugatutako eremua




ARRASATEKO UDALA

**OMER ARREGI**
HIRIGINTZA ZINEGOTZIA

## "Mugikortasuna hobetzeko apustuaren barruan kokatu behar da TAO"



J.B.

Unibertsitate inguruko eragileek ondo hartu dute, "orokorrean".

**Zein da TAOren helburua?**

Bi hitzetan esateko, aparkalekuen eta auto partikularren erabilera arrazionalagoa bultzatu gura dugu. TAO ezin da ekintza isolatu moduan ulertu, herriko mugikortasuna hobetzeko egin dugun apustuaren barruan ulertu behar da, alde zaharrean oinezkoei lehentasuna ematea edo garraio publikoaren erabilera sustatzea bezala.

**Nolakoa izan da bertakoen erantzuna?**

Gai guztietan moduan, denok interes bera izatea oso zaila da. Baina hainbat ekarpen jaso ditugu eta saiatu gara horiei erantzun eta proposamen bateratua egiten, betiere, gure hasierako helburuak ahaztu gabe. Orokorrean, onarpen maila nahiko altua izan da.

GOIAZ!
Debagoieneko Lanbide Heziketaren Azoka

LASTER
LANBIDE HEZIKETAREN AZOKA GUREAN!

*Lanbide bat ikasi nahi duzu, baina ez dakizu nondik hasi?*
–
*Langabezian zaude eta lan aukerak zabaldu nahi dituzu?*
–
*Edota esperientzia handia duzu lanbide batean, baina titulurik ez?*

***Lanbide Heziketa** izan daiteke **zure aukera!***

**GOIAZ! 2013**
*Lanbide Heziketaren Azoka*
Maiatzak 8 eta 9an;
Kulturaten, Arrasaten.

***Etorri Azokara eta ezagutu zure aukerak!***

www.facebook.com/goiazdebagoiena

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA

Gipuzkoako Foru Aldundia
Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentua
Departamento de Innovación, Desarrollo Rural y Turismo

Gipuzkoa BERRIA

LANBIDE HEZIKETAKO ESPERIENTZIAK EZAGUTUZ

## *Lanpostu konkretu batzuetan, lanbide heziketak erraztasun handiagoa eskaintzen du lan munduan sartzeko*

Roberto Lozanok Mariaren Lagundia Ikastolan goi mailako Gizarte Integrazio heziketa zikloa ikasi zuen, 10 urtez lantegi batean lanean jardun eta gero. Ekainean bukatu eta orduz geroztik, Aita Menni ospitalean lanean dihardu ikasitako horretan.



**Zerk bultzatu zintuen Lanbide Heziketa ikastera?**

Aurretik Mekanizazioko erdi mailako zikloa ikasi nuen Miguel Altunan, eta 10 urte neramatzan lantegi batean lanean. Zalantzan jartzen hasi nintzen, ea horrela jarraitzea nahi nuen eta erabaki nuen aldaketa bat bilatzea. Lanean jarraitzen nuen bitartean, Bergarako EPAn 25 urtetik gorakoendako unibertsitaterako sarbide froga prestatzen hasi nintzen eta baita lortu ere. Sarbide froga hori gainditutakoan 2 aukera nituen; unibertsitate mailako ikasketak egitea edota goi mailako heziketa ziklo bat.

**Eta zergatik aukeratu zenuen Lanbide Heziketa?**

Gaia edo arloa argi nuen; pertsonekin lan egin nahi nuen, pertsonei denbora eskaini eta lagundu. Begira hasi nintzen eta Bergaran Mariaren Lagundian topatu nuen bila nenbilena. Lanbide Heziketa 2 urteko ikasketak izateaz gain, lan munduan sartzeko, lanpostu konkretu batzuetan, erraztasun handiagoa eskaintzen du, unibertsitate ikasketak baino.

**Zer egin zitzaizun gogorrena?**

Heziketa zikloa ikasten egon naizen denboran goizez eskolara joaten nintzen, eta arratsaldez, 14:00etatik 22:00etara lanera. Azkenean norberaren gauzetarako, inguruko pertsonentzako ezta erosketak egin edo bazkaria prestatzeko ere ez duzu denborarik!

**Zer eman zizun Lanbide Heziketak? Zer azpimarratuko zenuke?**

Nahi nuen arloan lana topatzeko aukeraz gain, zentroak eman didan gertuko harremana, gertutasuna ere aipatzekoa da.

**Nola hasi zinen Aita Mennin lanean?**

Praktikak bertan egin nituen monitore bezala; tailerrak antolatu eta kanpoko ekintzetara taldeak laguntzea zen nire zeregina. Bukatutakoan lana eskaini zidaten eta hor jarraitzen dut. Orain Diputazioko unitate berri batean nabil lanean, adimen urritasuna eta portaera-nahasmendua duten pertsonekin.

**Eta ikasten ere jarraitzen duzu, ezta?**

Bai, Arizmendin Erizaintzako Zaintza Osagarriak, erdi mailako zikloa burutzen ari naiz, hainbat ikasgai baliozkotuta, nire perfila osasun arloko jakintzaz osatzeko. Agian, datorren urtean Gizarte Hezkuntza ikasten hasiko naiz UNED-en, sarbide froga gaindituta dudala aprobetxatuz.

# Zuhaitz Egunak izango dira gaur eta bihar, herritar guztiei zabalik

J.B. | ARRASATE
Gaur eta bihar izango dira Zuhaitz Egunak Arrasaten. Aurten bi egunetan egingo da lehenengoz, Udalak herritar guztiei parte hartzeko aukera zabaltzea erabaki duelako. Helburua da Udalaren lursailetan apurka zuhaitzak landatzea eta jendeari basoaren "balio handiaz" ohartaraztea. 20 gaztainondo eta 20 intxaurrondo landatuko dituzte. Joan den asteburuan zen egitekoa, baina elurraren eraginez landare-mintegiek landarez hornitzeko trabak izan zituzten, eta atzeratu egin behar izan dute. Gaur, Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleen txanda izango da; Uribe auzoan elkartuko dira, 10:30ean. Landaketa Markulete inguruan egingo da. Biharko, berriz, herritar oro dago gonbidatuta; Institutuko sarreran elkartuko dira, 10:00etan. Landaketa *Antoniñaerrekan* egingo da, kiroldegiaren atzealdean.


Bi ikasle iazko edizioan. | GOIENA

## Jesus Mari Zabarte presoaren alde Jaenera egingo den martxa babestu du Udalak

J.B. | ARRASATE
Jesus Mari Zabarte *Garratz* preso arrasatearrari aplikatu zaion 197/2006 doktrina bertan behera uztea eta martxoaren 16an Jaengo espetxera egingo den martxa babestea erabaki zuen udalbatzak martitzeneko osokoan, Herrirak aurkeztutako mozioa onartuz; Bilduk eta Aralarrek alde bozkatu zuten (12), EAJ abstenitu egin zen (3) eta PSE-EEk kontra (4) bozkatu zuen. Iban Garai Herrirako kideak "mendekua eta gorrotoa" oinarri dituen doktrina bertan behera uzteko eskatu zuen. Paco Gartzia zinegotzi sozialistak, berriz, Zabarte "aitortua den hiltzailea" dela esan zuen.

## Mugi txartelaren gainean informatzeko aukera egongo da berriro martxoaren 11n eta 12an BAZen

Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza Mugi txartelaren gainean informatzen ari da Gipuzkoa osoan zehar. Martxoaren 1ean informazio gune bat jarri zuten BAZen, eta, herritarren artean informazio gehiagoren beharra dagoela ikusirik, datorren astean berriz etorriko dira. Leku berean jarriko dute informazio puntua, sistema berriaren inguruko azalpenak emateko. Martxoaren 11n eta 12an egongo dira, goizez eta arratsaldez: 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 18:00etara.

## Maisu Arano kaleari izena aldatzea aho batez onartu du Udalak; laster, 'Arano eta Garcia maisu-maistrak'

Martitzeneko osoko bilkuran aho batez onartu zuen Udalak Maisu Arano kaleari *Arano eta Garcia maisu-maistrak* izena jartzea. Proposamena Intxorta 1937 Kultur Elkarteak egin zion udalbatzari, Teresa Gartzia maistrak egindako lana goraipatzeko. Julia Monge elkarteko kideak eskertu egin zuen Udalaren atxikimendua eta gogora ekarri zuen herriak dituen 146 kaleetatik orain arte bat berak ere ez duela izan emakume baten izena.


Ane Zabala arrasatearra iazko Takarraran lasterketako helmugan. | ARTXIBOA

# Berdintasuna ekintza ezberdinen bidez aldarrikatzeko eguna

### Manifestazioa gaur Seber Altubetik (19:00); bihar, azoka eta Takarraran lasterketa Portaloitik (12:30)

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE
Gaur da Emakumearen Nazioarteko Eguna. Udaleko Berdintasun Sailak eta Emakume Txokoak *Feminismoaren bidetik, emakumeak libre!* aukeratu dute lelo, eta lelo horrek gidatuko du gaur bertan Seber Altube plazatik 19:00etan irtengo den manifestazioa. Amets Beltran de Gebara Emakume Txokoko dinamizatzaileak aurreratu du berezia izango dela: "Aurten manifestazioa ezberdina izango da. Zertan? Etorri!", adierazi du. Gaur irekiko da, era berean, Martxoaren 8ko kartelen erakusketa Emakume Txokoan eta hilaren 22ra arte egongo da zabalik. Bestalde, bihar emakume artisau eta baserritarren azoka egingo da Seber Altube plazan. Antolatzaileen arabera, 60 bat postu egongo dira eta Arrasateko zein Euskal Herriko artisau eta baserritarrak etorriko dira. Eskaintza zabala izango da oso: "Produktuak ez errepikatzen saiatu gara, urtero moduan".

**ESANAK**

**"Manifestazioa ezberdina izango da. Zertan? Etorri!"**

AMETS B. DE GEBARA | EMAKUME TXOKOA

**Giro ona Takarraran egiteko**
Eta ezin aipatu gabe utzi Takarraran. Bihar irtengo da emakumeen lasterketaren bosgarren edizioa Portaloitik (12:30). Helmuga ere Portaloian egongo da eta ibilbideak 2.820 metro izango ditu. 12 urtetik gorako edozein emakumek har dezake parte, doan. Iragarrita dagoen eguraldi ona ikusita, antolatzaileek iazko kopurua gainditu gura dute; iaz 60 bat korrikalari izan ziren. Hala, Udalak herriko eta bailarako emakume guztiak animatu gura ditugu lasterketan parte har dezaten. Era berean, borondatez lanean arituko diren Arrasate Atletiko atletismo taldeari eta Zikloturista elkarteari eskerrak eman gura dizkie Udalak.

Martxoaren 8ko egitaraua martitzenean hasi zuten Kulturaten, *Mariposas en el hierro* dokumentalaren proiekzioarekin. 80 bat lagun elkartu ziren. Azkenik, Udaleko talde guztiek testu bateratua onartu zuten osoko bilkuran berdintasunaren bidean politika eraginkorragoak lortzeko.

# Udal Gobernuaren inkesta salatu du Arrasate Garbik

### Hondakinen gaineko galdetegia "alderdikoia" dela uste du atez atekoaren aurkako plataformak

J.B. | ARRASATE
Hiri hondakinak atez ate biltzearen aurka dagoen Arrasate Garbi plataformak Udalak otsailean zehar arrasatearren etxeetara bidali zuen galdetegia kritikatu du: "Udalak herritar guztiok tontotzat hartu gaitu edo gure kolkotik barre egin nahi du halako inkesta bidalita. Nola interpretatzen da?", galdegin dute, besteak beste. Inkesta "alderdikoia" dela uste dute: "Atez atekoaren alde erantzuna izan dadin prestatuta dago eta galderetan ere gezurrak daude", adierazi dute. Gainera, beste modu bat proposatzen dute herritarren iritzia jakiteko: "Udalak, herritarron iritziz zaborrak batzeko sistemarik onena zein den jakin nahi baldin badu, zergatik ez du demokratikoki galdetzen? Horrela emaitzekin denok egongo ginateke konforme".

**Udala, "herritarrekin zuzenean"**
Udal Gobernuak, berriz, ez die Arrasate Garbiren akusazioei erantzun gura izan. Diotenez, hondakinen gainean "herritarrekin zuzenean" berba egin nahi dute; "eta ez komunikabideen bitartez". Hala, gogoratu dute Gazte Bulegoa informaziorako puntua dela eguaztenero, 18:30etik 20:00etara. Udalak herritar guztiei dei egin die hiri hondakinen bilketa sistemaren gainean edozein zalantza edo kexa badute Gazte Bulegora gerturatzeko. Era berean, gogorarazi dute galdetegiak betetzeko azken eguna martxoaren 22a dela.

arbolapeta
arrasate
beinke




MONTE TABERNA
edari, jana eta kirola
Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56


Istar Dapena pertikalaria lehiatzen. | JONATHAN PEREZ JORGE

# Podiumetik kanpo Istar Dapena gazte mailako txapelketan

16 urteko pertikalari arrasatearrak 4. postua lortu zuen, 4,30 metroko jauziarekin, Antequeran

**MAITE FRAILE** | ARRASATE

Aurreko aste bukaeran Espainiako txapelketa jokatu zuten junior mailako atletek. Lehiaketa martxoaren 2an, zapatuan, Antequeran (Malaga) jokatu zen, hango atletismoko teknifikazio zentroan.

Ehunka atletak hartu zuten parte txapelketan eta Istar Dapena arrasatear gazteak laugarren postua eskuratu zuen pista estaliko eremuan; hala, podiumetik kanpo geratu zen.

**Talonamendu arazoak**

Hasiera batean, 4,30 metroko jauziarekin jaun eta jabe zen txapelketan, arerioekin alderatuz lasaitasun eta malgutasun handiarekin baitzebilen lehiatzen. Baina geroago, urduri jarri zen arrasatear gaztea, eta, horren ondorioz, talonamendu arazoak izan zituen: jauzia egin aurretik egin beharreko urratsak gaizki eman, eta 4,40 metroko jauzian hiru nulu egin zituen.

Arazo horiez gainera, pertikalari arrasatearra deseroso sentitu zen eguneroko entrenamenduetan, Antequerako gazte mailako txapelketako baldintzak ezberdinak zirelako. Bere entrenatzaile eta aldi berean Maialen Axpe eta Malen Ruiz de Azua altleten entrenatzaile Jonathan Perez Jorgek hauxe adierazi digu: "Istar Dapena Ermuko instalazio txiki batean entrenatzen da pertika txiki batzuekin, eta, Antequerako txapelketan pertika handiagoak izanda, lasterketarako inpultsua hartzean kaltetu egin zuen. Oso urduri jarri zen, eta, horrez gainera, presioak ere asko eragin zion".

**Aintzat hartzeko pertikalaria**

Hiru urte hauetan ondorengo txapelketak eta markak eskuratu ditu; 4,40 eta 4,50 metroko jauzietan Gipuzkoako gazte mailako errekorra, bere adinekoen mailan, Gipuzkoa eta Euskadiko txapeldun, eta aurten, Espainiako gazte rankinean hirugarren geratu da. Orain, Euskadiko Kopa eta Iruñean jokatuko den Espainiako kluben txapelketa ditu helburu.

## Zaldibarko txapelketan final-zortzirenak eta final-laurdenak jokoan aste bukaeran

**M.F.** | ARRASATE

Sonografos izan da liga erregularreko txapelduna, 32 punturekin: jokatutako 12 partiduetatik ez du bakar bat ere galdu.

Asteburuan bigarren faseari ekingo diete Arrasateko eta Aldatz Eskoriatzako taldeek, final-zortzirenei eta final-laurdenei hasiera emanda.

**Finalen jardunaldia**

Bihar, zapatua, bost partidu jokatuko dira egunean zehar. 10:30ean, final-zortzirenei hasiera emango die Fidel -Haizea's W partiduak eta 17:00etan, amaiera, Aldatz -Lasagabasterrek.

Domekan hiru partidu jokatuko dira, final-laurdenetara sailkatutakoen artean.

## Gimnasiako Udaberri Torneoko lehen fasea izango da domekan Oiartzunen

**M.F.** | ARRASATE

Martxoaren 10ean, domekan, 2012-2013 denboraldiko gimnasia txapelketaren hasiera izango da; udaberri torneoko lehen fasea jokatuko da, Oiartzungo kiroldegian, 10:00etan.

Bertan, alebin eta infantil mailek hartuko dute parte.

**Arrasatearrak bertan**

Arrasate Dragoi Gimnasia Taldetik hiru maila ezberdineko kirolariak joango dira; alebin taldekoak (pilota eta esku librea), infantilekoak (uztaia) eta kategoria berezitik Aintzane Kintana. Guztira, 40 gimnastak hartuko dute parte.

## Emakumeen Egunean irekiera berezia izango da, Ekinen eskutik

Gaur, Martxoak 8, Ekin Emakumeak Elkartearen eskutik, *Debagoieneko emakumeak gerra zibilean eta frankismoan* argazki erakusketa irekiko dute: Kulturaten martitzenetik domekara egongo da (17:30-20:30). Antzerki bat egingo dute gaur.

## Laburbirak geldialdia egingo du martxoaren 12an, kulturaten

Herriz herri dabil Laburbira joan den martxoaren 4az geroztik. Hilaren 12an, martitzenean, Arrasate Euskaldun Dezagun elkartearen eskutik, lehen geldialdia egingo du gurean, Kulturaten 19:00etan. Zortzi film eta askotariko gaiak ikusteko aukera egongo da ordu eta laurdeneko saioan.

# Alebinen eta benjaminen errugbi topaketa domekan

Lurraldeko eskoletako 130 neska-mutiko izango dira Mojategin jokatuko den errugbi topaketan

**M.F.** | ARRASATE

Gipuzkoako Federazioak astero antolatzen ditu lurraldeko eskolen arteko partiduak, eta, oraingoan, gurean daukagu errugbi topaketa, Arrasateko Mojategin izango baita domekan, 10:30ean, hain zuzen ere. 10 urtez beherako alebinen eta 12 urtez beherako benjaminen artean jokatuko dira partiduak.

Arrasateko Errugbi Taldeko Isei Barbero Gutierrez arduradunaren arabera, 130 neska-mutiko inguru elkartuko dira errugbi zelaian.

**Oñatin saioa**

Arrasate Errugbi Taldeak aspalditik egiten du lan eskola mailan, eta zapatuan, 09:00etan, saioa eskainiko die Leintz Eskola Kiroleko neska-mutikoei Oñatin. Ohikoa den moduan, klubak dei egin die guztiei domeka goizean Mojategira gertura daitezen.

### 5. jardunaldia

**ALEBIN MAILA ( -12)**

- Eibar RT/ Arrasate - Gaztedi RT **( A zelaia)**
- Hernani CRE- La Unica RT **( B zelaia)**
- Eibar RT/Arrasate RT- La Unica RT **( A zelaia)**
- Hernani CRE- Gaztedi RT **( B zelaia)**
- Eibar RT/ Arrasate RT - Hernani CRE **( A zelaia)**
- Gaztedi RT La Unica RT- **( A zelaia)**

**BENJAMIN MAILA ( -10)**

- Eibar RT/ Arrasate - Hernani CRE" B" **( A zelaia)**
- Hernani CRE " A"- Gaztedi RT **( B zelaia)**
- La Unica RT - Eibar RT / Arrasate RT **( A zelaia)**
- Hernani CRE " B"- Hernani CRE "A" **( B zelaia)**
- Gaztedi RT - La Unica RT **( A zelaia)**
- Eibar RT/Arrasate RT- Hernani CRE "A" **( B zelaia)**
- Hernani CRE "B"- Gaztedi RT **( A zelaia)**
- La Unica RT - Hernani CRE " A" **( B zelaia)**

Goiena i-rent
Ibilgailuen alokairua
IBILGAILUA NAHI DUZUN TOKIRA ERAMANGO DIZUGU:
- LANTOKIRA
- ETXEKO ATARIRA
AIREPORTUKO ZERBITZU EZIN HOBEA.
IBILGAILU-FLOTA ZABALA.
AUTOAK, EGUNEKO, 19,95 €TIK AURRERA.

INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK:
943 71 66 52 / 619 44 71 75
info.goienarent@i-rent.es
www.goienarent.com

Lore
• Lurrindegia
• Kabina
• Fotodepilazioa
Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

Sili Sili
Martxa eta estilo handiko arropa
Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA
- Diagnosia-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonei laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.
- Estimulazio goiztiarra.
Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel: 943 79 48 77 ARRASATE

# Zapatuan ospatuko du Bergarak Natura Eguna

Ekitaldia San Martzialen izango da eta Gerriko Berdea izango da protagonista

**IMANOL GALLEGO** | BERGARA

Martxoaren 9an, hau da, zapatu honetan bertan, Natura Eguna egingo dute Bergaran. Hori ospatzeko, San Martzialen hainbat ekintza antolatu dituzte; besteak beste, San Martzialerako ibilaldia, oinez eta ipuin kontalari baten konpainian, zuhaitz landatzea... Parte-hartzaileek, gainera, San Martzial baselizaren inguruetan duela gutxi garbitu eta berreskuratu duten kobazulo txiki bat ikusteko aukera ere izango dute.

Gauzak honela, azken urteotan Udalak egin duen ohiko Zuhaitz Eguna beste udal ingurumen egitasmo batzuekin bateratu eta aberastuko du. Aurten, Bergarako Eraztun edo Gerriko Berdea izango da protagonista, eta horren inguruan izango da ospakizuna.



Amaia Arriaran –ipuin kontalaria– eta Iñaki Irizar –museoko teknikaria. | ARRITXU BARRUSO

**Gerriko Berdea**

Hainbat herritan bezala, Bergarako Udalak garatutako Agenda 21ean ere jasotzen da natura kontserbatzeko eta aisialdirako herriaren inguruan eremu berezi bat osatzen joateko helburu edo proiektua. Eremu hori, gainera, seinale egokien bitartez ingurumen sentsibilizaziorako gune bilakatuko litzateke.

Gune berri hori, Gerriko Berdea delakoa, ez da berehala sor daitekeen zerbait, eta, horregatik, Udalak progresiboki zehazten eta egiten joan nahi du. Horrelako ekimenen bitartez, gainera, Udalak Eraztun Berdeari buruzko informazio eta sentsibilizazio kanpaina indartu egingo du.

**Aisialdia eta kontserbazioa**

Zapatuko aurkezpenak bi helburu nagusi uztartuko ditu: aisialdia eta naturaren zaintza. Naturaren kontserbazioaren ikuspegitik, bioaniztasuna zaintzea ezinbestekoa da eta Gerriko Berdearen helburuetako bat da aberastasun handien duten guneak kontserbatzea eta, oro har, bertakoak diren flora eta faunaren habitatak berreskuratzea eta aldi berean paisaia ere hobetzea.

Aisialdiaren ikuspegitik, eta Gerriko Berdea herritik hurbil egongo denez, naturaz gozatzeko beste eremu atsegin eta erakargarri bat eskainiko dio Bergarako herriari. Gerriko Berdeak herriaren eta naturaren arteko loturak indartuko ditu eta naturaz gozatu nahi dutenek ekintza ugari egiteko aukera izango dute: landare eta animalia espezieen behaketa, kirola, jolasa, atseden lasaia, erromeria...

Natura hondatu barik hark eskaintzen dituen aisialdirako aukerak bertatik bertara ezagutzeko aukera izango da zapatu goizean.

## NATURA EGUNA: HITZORDUAK

**10:00** Oinezkoak San Martzialera azoka paretik igoko dira.

**10:00** Ziklistek Agorrosindik ekigo diote San Martzialera joateko bideari.

**11:45** Zuhaitz landatzea.

**12:15** Hamarretakoa baselizako aterpean.

**12:45** Itzulera, oinez edo bizikletaz.

**IÑAKI IRIZAR**
MUSEOKO TEKNIKARIA

## "Natura bera izango da aurtengo protagonista"

Bergarako Udal Museoko teknikari Iñaki Irizarri zapatuko Natura Egunari buruz galdetu diogu.

**Lehen, Zuhaitz Eguna; orain, Natura Eguna. Zergatik aldaketa hori?**

Egun eta ekintza osoagoak antolatzera pasatu gara. Lehen, zuhaitzekin zerikusia zuten gauzak egiten genituen; orain, berriz, natura bere osotasunean izango da protagonista.

**Zein izango da nobedadea?**

Gerriko Berdearen beste zati batzuk aurkeztuko ditugu, baina ez gara hor geldituko. Udalak erositako lursailetako batean bertako zuhaitzak landatuko ditugu.

**San Martzial oso eremu aproposa da.**

Bai, herritik gertu dago eta aukera asko ematen dituen gunea da. Lehendik lan batzuk eginda bazeuden ere, azken bi urte hauetan Udalak ingurua hobetzeko aurrerapauso politak eman ditu.

# Bilketa moduak zehazteko beste hiru saio izango dira astean

**M.B.** | BERGARA

Aste honetan egindako lau saioen ostean, datorren astean jarraituko dute hiri hondakinen bilketa moduak zehazteko parte-hartze saioek. Beste hiru egingo dira: martxoaren 12an, San Antoniotik Labegaraietarainoko bizilagunei zuzendutako batzarra egongo da, 18:30ean, Labegaraietan; martxoaren 13an, Alde Zaharreko bizilagunendako batzarra egongo da, 18:30ean. Aranzadi ikastolan; eta 14an, Osintxun (ludotekan) egingo da saioa, 18:30ean.

Errefusa eta organikoa atez ate batuko direla erabakita dauka Udal Gobernuak, baina papera eta ontzi arinen bilketa nola egin herritarrek erabakiko dute egunotan egiten ari diren parte-hartze saioetan. Gobernu taldeak, berriz, bi proposamen egin ditu: orain arte bezala edukiontzien bitartez batzea edo atez atez, esekitokien bitartez. Hondakinak ateratzeko ordutegia eta bilketa puntuak ere herritarrek erabakiko dituzte. Hain justu ere, bilketa puntuei dagokienez, erakusketa jarri dute osoko bilkuren aretoan, bilketa puntu horiek non aurreikusi dituzten erakusteko. Norbaiti proposamena ezegokia irudituz gero, alegazioa aurkez daiteke –atariko bizilagun guztien izenean– hilaren 22a baino lehen.



Martitzenean 150 bat lagun batu ziren Ipintzan egindako saioan. | R.C.

# EAJk dio "Bilduren herri partaidetza iruzurra" dela

**G.A.** | BERGARA

EAJko zinegotzi eta arduradunen iritziz, "Udal Gobernuak antolatu dituen auzokako bilerak bergararrei iruzur egitea dira". EAJren esanetan, "bilerok parte hartze prozesu bezala aurkeztu dituzte, eta, gainera, erabakitzaileak izango direla diote", baina EAJk dio "ez direla ez parte-hartze bilerak ez eta erabakitzaileak ere". Eta gehitzen dute: "Udal Gobernuak jadanik hartuta duen erabakia ezkutatu nahi du, itxuraz, hondakin bilketa sistema bergararrek erabakiko dutela sinestaraziz. Guztia erabakita dute".

Ohar bidez aditzera eman dutenez, "Bilduk eta Aralarrek, bilera hauekin, euren eredua zilegi bihurtzea eta babesa lortzea besterik ez dute nahi, guztion artean erabakitako eredua dela saltzeko". Baina bergararrek poltsak balkoietan zintzilikatuz eta ia 5.000 sinadura udaletxean aurkeztuz dagoeneko hitz egin dute, jeltzaleen esanetan.

Era berean, salatu dute "Udal Gobernua ematen ari den informazioa gezurrezkoa eta manipulatzailea" dela, "herri administrazio batean erabat onartezina".

'Las Viudas' eta 'Aitalia' antzezlanak

Montserrat Rodriguez
Nuria Colorado
ELGETAKO espaloia KAFE ANTZOKIA
Martxoaren 8an, 22:30ean.
Elgetako Udaleko gizarte departamenduak lagunduta

# Antzerkia, afaria eta beste Emakumeen Eguna ospatzeko gaur, Martxoak 8

## Nazionalitate ezberdinetako emakumeek tea hartzeko hitzordua egin dute

**MONIKA BELASTEGI** | BERGARA

Martxoak 8 da gaur, Emakumeen Nazioarteko Eguna eta ospakizun horren bueltan hainbat ekitaldi egongo dira gaur bertan.

15:00etan jatorri askotariko emakumeak batuko dira kultura etxean tea hartzera Auzoko egitasmoko ordezkariek antolatuta eta interesa duten guztiak daude gonbidatuta parte hartzera.

Gaztetxearen eskutik beste hainbat ekintza ere egongo dira gaur. 19:30ean *Post–eskerrak–it* izeneko permormance-a ikusteko aukera egongo da Irala kalean. 20:30ean, afari herrikoia egongo da gaztetxean eta 22:30ean, *King-Kong neska* izeneko antzezlana. Virginie Despentesek idatzitako *Teoria King Kong* liburuaren hitzaurrean oinarrituta, Josune Monton aktoreak ezarritako eredua jarraitzeko gai ez den emakume okerra izatea aldarrikatuko du: "Proletario diren haiei zuzendurik dago, Barbie eta Kent bezalakoak izan ezin duten –edo agian izan nahi ez duten– emakume eta gizonei", dio.



*King-Kong neska*-ren kartela. | GOIENA

Bestalde, Osintxun ere emakumeen afaria egingo dute gaur Martxoaren 8a ospatzeko.

# Bihar, zapatua, hainbat kale itxita egongo dira

**M.B.** | BERGARA

*Bergara 1936. Guerra y represión* izeneko DVDaren zenbait eszena grabatzeko itxiko dituzte. 08:00etatik 10:00ak arte, San Antonioko biribilgunetik Martokorainoko kale zatia eta San Miguel kalea egongo dira itxita. Hala, herribusaren zerbitzua saihesbidetik egingo da eta Espoloian ohiko ibilbidea hartuko du. 10:30etik 12:30ak arte Artekalea itxiko dute eta 17:00etatik 18:00etara, San Pedro. Hala, herribusa Ramon Maria Lilitik Ibargaraira jaitsiko da eta Infernokuatik Bolu aldera igoko da.

# Emakume afrikarren aldeko ospakizuna

**IMANOL GALLEGO** | BERGARA

Zapatuko ekitaldian Afrikako emakumeen ondarea ezagutzeko aukera egongo da: zinema, musika, gastronomia... 12:00etan Moussa Sene Absa zuzendariaren *Madame Brouette* filma emango dute Bergarako Irizar jauregian, eta, ondoren, zuzendariarekin solasaldia egongo da.

Eguna borobiltzeko, Biko tabernan janari eta musika senegaldarrez gozatzeko aukera egongo da. Interesa dutenek aldez aurretik izena ematea komeni da: *ndank.ndank.elkartea@gmail.com* edo Biko taberna.

# Herriko Kontseilua aurkeztuko du Sortuk etzi San Martin plazan

**M.B.** | BERGARA

Bergarako Sortuk Herriko Kontseilua aurkeztuko du domekan, 13:00etan, San Martin plazan egingo duten ekitaldian. Gainera, asteburuan 32 urte beteko dira Telesforo Monzon hil zela eta aurkezpen ekitaldian politikari eta kultura sortzaile izan zen hari omenaldia egingo diote. Ekitaldia janzteko, txalaparta, abestiak eta dantza ez dira falta izango.

Hain zuzen, Bergarako Sortutik Monzonen ibilbide politikoa azpimarratzearekin batera, erbestean 40 urte eman ostean "Euskal Herrira bueltan bakea eta Euskal Herriaren eskubideen alde egin den saiakera garrantzitsuenetako baten bultzatzaile nagusi izan" zela ekarri dute gogora. "Txibertan, eta hark porrot egin ostean, Herri Batasunaren sortzaile, bozeramaile eta Madrilen berriz ere senatari izan" zela ere azpimarratu dute.

Horrekin guztiarekin, domekako ekitaldian, Monzon bezala "beste ehunka bergarar ere omenduko" dituztela aurreratu dute Bildutik, "euren lanak ekarri gaituelako honaino".


IPINTZA IKASTETXEA

# Kalitate Hezkuntzan ziurtagiria

Bergarako San Martin Agirre eta Ipintza ikastetxeek Kalitatea Hezkuntzan ziurtagiriari dagozkion diploma eta oroigarria jaso dituzte Urkullu lehendakariaren eta Uriarte sailburuaren eskutik. Saria martxoaren 4an eta 5ean Bilbon egindako Kalitatea Hezkuntzan sareko jardunaldietan jaso zuten erkidegoko beste bost ikastetxerekin batera.

## ZUZENKETA

**Aurreko astean egindako aurrekontuen albistean akatsa zegoen. Datuen taulan argitaratutako ehunekoak ez ziren zuzenak. Hemen behean taula zuzena: aurtengo aurrekontua, 2012. urtekoarekiko aldearekin, ehunekotan.**

AURREKONTUAREN BANAKETA

| | AURREKONTUA | 2012 ALDEA |
|---|---|---|
| Talde politikoen gastua | 264.660 | -%3,5 |
| Zerbitzu orokorrak | 1.892.012 | -%0,8 |
| Udaltzaingoa eta babes zibila | 951.990 | -%2,6 |
| Gizarte Ongizatea | 2.350.339 | -%2,5 |
| Obra eta zerbitzuak | 1.593.630 | %3,7 |
| Hezkuntza | 680.171 | %0,2 |
| Hirigintza eta etxebizitzak | 2.495.840 | -%8,8 |
| Estolderia eta ura | 1.511.640 | -%2,2 |
| Kale garbiketa eta zabor bilketa | 2.330.030 | %10,0 |
| Ingurumena | 37.965 | -%22,0 |
| Kultura, jaiak eta gazteria | 1.426.148 | -%4,5 |
| Turismoa, museoa eta ondare hist. | 317.335 | -%13,2 |
| Kirolak | 1.923.420 | %4,5 |
| Euskara | 619.615 | -%8,2 |
| Auzoak eta mendiak | 408.264 | %12,7 |
| Gastu finantzarioak | 2.007.341 | %14,0 |
| AURREKONTUA | 20.810.400 | %0,4 |
| Paga extra aurreratuak | 470.000 | |
| AURREKONTUA GUZTIRA | **21.280.400** | |

ITURRIA: UDALA

### Irizar jauregian 'Herri eta harri' hitzaldia Iñaki Perurenaren eskutik

Martxoaren 13an, 19:00etan, Jardunek antolatuta, Perurenak hitzaldia egingo du. Harri-jasotzaileak bere kontakizun partikularra ezagutzera emango du; harriak eta herriak duten garrantziaz mintzatuko da. Hitzaldiaz gain, Gabriel Arestik idatzitako olerki batean oinarrituko bideo bat emango dute.

### Erramu-zapatuko herri bazkarirako sarrerak salgai

Martxoaren 23an, Erramu-zapatuan, urtero moduan, herri bazkaria egingo dute pilotalekuan. Bada, bazkarirako txartelak ondorengo tabernetan erosteko aukera dago: Deportibo, Kortazar, Eusebio, Bulebar eta Ariznoan. Eta aurten txartelek 12 euroko kostua izango dute.

### San Joxepe elkarteak hausteskundeetarako epealdia zabaldu du

Aurtengo batzar orokorrean, martxoaren 20an, zuzendaritza batzordeko hiru kide aldatu beharko dira eta batzordekide izan nahi dutenek hilaren 10a baino lehen eman beharko dute izena. Bi egun geroago argitarako dira hilaren 20ko batzar orokorrean aukeratuak izateko hautagaiak.

### Hanka-Lanbakak patinaje saioa 24ra atzeratu du

Hasiera baten martxoaren 10erako aurreikusita zegoen arren, espazioen okupazioa dela-eta, hil honetako saioa atzeratu egin behar izan dute. Hortaz, Bergarako patinzaleok, argi! Hanka-lanbaka taldeak Labegaraietako espazioan irrist egiteko gonbita 15 egun atzeratu da.

Kabutzia
ARRANDEGIA
Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

CLINICA DENTAL
BERGARA
Bidekurutzeta 36 behea
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 05 77

ASEGURUAK
DKV / Previasa • Aegon • Mapfre • Adeslas / IMQ / Iquimesa
Santa Lucia • Previsora Bilbaina • Ocaso
Mutuak
PADI Haurren hortzak zaintzeko Osakidetzaren programa
Hirugarren adinekoentzako deskontu bereziak!

ESTREINATU IRRIBARREA
Odontologia eta protesiak
A. Pastor doktorea (873 kolegiatu zk.)
U. Artetxe doktorea (984 kolegiatu zk.)
B. Esteban doktorea (521 kolegiatu zk.)
Inplanteak
F. Juarros doktorea (472 kolegiatu zk.)
Periodontziak
P. González doktorea (1133 kolegiatu zk.)
Ortodontziak
Y. Otero doktorea (1295 kolegiatu zk.)
Endodontziak
M. Iruretagoiena doktorea (750 kolegiatu zk.)
PSE 207/12

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*
Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09



Zubieta kalea espaloi estuengatik da puntu beltza. | IMANOL GALLEGO


Algodonerako tunela ere txosteneko puntuetako bat da. | I.G.


Fleming kaleko plaza bateko zorua altzatuta. | I.G.

# Udalak herriko puntu beltzak identifikatu ditu

## Txostenean mugikortasunarekin zerikusia duten guneak ere agertzen dira

**IMANOL GALLEGO** | BERGARA

Puntu beltzak, normalean, emakumeek segurtasunik eza sentitzen edo antzematen duten leku edo puntu bezala identifikatzeko ohitura badago ere, Bergarako Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin garatutako txostenean, mugikortasunarekin zerikusia duten puntuak ere identifikatu ditu. Besteak beste, oinezkoentzako ibilbide jarraiturik ez duten kaleak zeintzuk diren, ikuspegia oztopatzen duten elementuak non dauden, irisgarritsun arazoak dituzten puntuak zeintzuk diren, argiztapen egokirik ez duten txokoak zeintzuk diren...

Txosten hori garatzeko orduan, Udala hiru emakume talderekin batzartu zen eta guztien ekarpenak jaso ditu txostenean. Dena den, emakume talde ezberdinen proposamenak batu aurretik, udaltzain eta teknikariek zenbait puntu beltz identifikatu zituzten, ondoren herritarrei puntu horien iritzia jasotzeko. Txostenaren ondorioetan, adin askotariko emakume talde guztiek egindako ekarpenak ageri dira, eta, kalean herritarrek *puntu beltz* hitzak ez erabili arren, mapako zenbait gune "gatazkatsu" bezala identifikatu dituzte.

### Jarraipena egiteko guneak

Txostena aurkeztu berri denez, oraindik goiz da Udalak zein neurri hartuko dituen jakiteko, baina Maren Belastegi zinegotziaren hitzetan: "Jarraipen berezia egingo diegu guneei". Belastegik txostena egiteko orduan parte hartu duten bergararren lan eskertu nahi izan du; bereziki, San Joxepeko emakumeena: "Haien ekarpenak mugikortasun arazoak identifikatzeko ezinbestekoak izan dira".

Dena den, bergararrek ez dute mugikortasunaren inguruko kexa handirik, Udalak puntu beltzak idenfikatzeko egindako lana positibotzat jaso duten arren. "Guztiok ezagutzen baditugu, kontu handiagoa izango dugu", zioen bergarar batek.

Bidegorriko tunelei buruz, aldiz, emakume gehientsuenek arrazoia eman diote txostenari. Bi bergarar gaztek argi dute zeintzuk diren puntu beltzetako batzuk: "Ozaetan bizi gara eta gauean Martoko-Zubiaurreko gunean ez da inor ibiltzen eta Algodonerako tunelak ere ez digu ziurtasun handirik ematen"; hauen kontrara, beste emakume batek tunel beraren inguruan "argi nahikoa da eta nik ez du beldurrik sentitzen" adierazi zuen. Dena den, batzuek zein besteek puntu beltzak idenfikatzea lan ona dela azpimarratu dute.


I.G.

**MAREN BELASTEGI**
ZINEGOTZIA

### "Orain, puntu beltzei buelta nola eman aztertzen hasiko gara"

Bergarako Bilduren lehentasun bat berdintasuna da. Horregatik, azken urte eta erdian, Berdintasun Planaren barruan, hiru emakume talderen laguntzarekin herriko puntu beltzak identikatzeko lan handia egin dute.

**Identifikatutako puntuak ez dira ohiko puntu beltzak, ezta?**

Ez; kasu honetan, puntu beltzak gune gatazkatsu bezala bakarrik hartu beharrean, mugikortasun arazoak dituzten puntuak ere identifikatu nahi izan ditugu.

**Puntuak identifikatzeko herritarren laguntza izan duzue.**

Horren aurretik udaltzainen laguntzarekin lana aurreratu genuen, baina bai, hiru emakume talderen laguntza izan dugu eta haien ekarpenak oso aberasgarriak izan dira. San Joxepeko emakumeen ekarpenak beharrezkoak izan dira mugikortasun puntua idenfikatzeko.

**Orain, puntuak konpontzeko lanei ekingo diezue, ezta?**

Bai; txostena aurkeztu berri dugu eta puntu horiei buelta nola eman behar zaion aztertzen hasi beharko dugu.

# Andoni Moñux Euskadiko Ikasleen Orkestran sartu da

## Guztira, 14 eta 18 urte bitarteko 75 musika-ikasle gazte aukeratu dituzte

**I.G.** | BERGARA

15 urte bete ondoren, Euskadiko Ikasleen Orkestra gaztetik nagusienera egin du salto Andoni Moñuxek. Ez da lan erraza izan, eta hautaproba gogor batzuk pasa behar izan ditu. Tuba ez da instrumenturik ohikoena, baina probetan "oso maila handia zegoela" azpimarratu digu.

Maila handiak eta egin beharreko esfortzuak garrantzi handirik izango ez balute bezala, Moñuxek musika gustura egiten duen eginbehar moduan hartzen du. "Musikari izan nahi dut eta honek guztiak asko lagunduko dit", dio musikari gazteak.

### Esperientzia aberasgarria

Musikak etxean presentzia berezia dauka, bere gurasoen pasioa ere bada-eta. Egongelan musikari handien irudi eta koadroak daude, eta, oraingoz, Moñux bide beretik doa: "Tuba jotzen hasi aurretik biolina jotzen ikasi nuen eta gitarra nahiz pianoan ere moldatzen naiz". Musikari osoa denik ezin ukatu. Horregatik, EIOn parte hartzea "garrantzitsua" dela dela esan digu, eta ez da gutxiagorako, orkestrak 75 musikari besterik ez du-eta.

Iker Sanchez zuzendari famatuaren eskutik zazpi kontzertu eskainiko dituzte; gehienak Euskal Herrian izango dira, baina azkena Zaragozan izango da. Bergarar horren talentua entzuteko, baina, hilabete itxaron beharko dugu; izan ere, Euskadiko Ikasleen Orkestraren lehen kontzertua apirilaren 13an izango da Bilboko kontserbatorioan.


Andoni Moñux, etxeko egongelan, tuba alboan duela. | I.G.


Iturrigorrin joan den urteko ekainean ateratako argazkia. | GOIENA.

# Basogintzako printzipioak onartu ditu udalbatzak

## Egurraren ekoizpena bertan behera uztea eta pista berririk ez eraikitzea dira jasotako puntuetako bi

TXOMIN MADINA | OÑATI
Herri onurako mendiak, hau da, Udalarenak diren mendiak eta bertako basoak printzipio zehatz batzuen arabera kudeatuko dira aurrerantzean Oñatin.

Horixe erabaki zuen udalbatzak aho batez egindako azken osoko bilkuran, eta orain, mendi bakoitzaren inguruko plangintza landu beharko dute.

**Herritarren interesa**
Herri onurako 2.000 hektarea mendi daude Oñatin: heren bat larrea da, heren bat konifera basoa eta heren bat hostozabalen basoa. Hemendik aurrera, mendi horiek printzipio batzuen arabera kudeatuko ditu Udalak, egindako azken osoko bilkuran, otsailean, aho batez onartu ziren printzipio batzuen arabera, hain zuzen ere. "Onartutako printzipio orokor horien artean daude, adibidez: egurraren ekoizpena bertan behera uztea, pista berririk ez eraikitzea, bertako landaretza sustatzea eta bertako fauna eta flora ikertzea", argitu du Leire Egañak, Oñatiko Udaleko Ingurumen batzordeburuak.

Printzipio horiek landu eta onartzearen jatorria 2011n Udalak aho batez onartu zuen biodibertsitatearen aldeko konpromisoan dago, baita herritar talde batek erakutsitako interesean ere. Interes hori ikusita, Basogintza Herrijorran ekimena jarri zuten martxan Udalean, eta hor landu zituzten onartu dituzten printzipioak. "Ikusi genuen herriko sektore batek bazuela interesa eta sentsibilizazioa mendiaren inguruan eta, batez ere, Udalarenak direnen inguruan.Planifikazio beharra ikusten zen mendi horiek zelan kudeatu jakiteko, eta Basogintza Herrijorran sortu zen. Lau bilera egin genituen", zehaztu du Leire Egañak, Oñatiko Udaleko Ingurumen batzordeburuak.

**Lau gunetan banatuta**
Egin beharrekoak, baina, ez dira bukatzen. Herri onurako lau mendi daude egun Oñatin: Aloña, Artia, Araotz-txirialeku eta Iturrigorri, eta bakoitzaren kudeaketaren xehetasunak zehazteri ekingo diote laster. "Momentu honetan Iturrigorri da ordenazio plana duen gune bakarra, eta beste hirurek ere bakoitzak bere plana izatea ondo ikusten dugu", adierazi du Egañak.

**DATUA**
**2**
MILA HEKTAREA
Herri onurako 2.000 hektarea mendi daude Oñatin: heren bat pinua da, beste bat basoa eta hirugarrena, ostozabala.

**Egur ekoizpenik ez**
Leire Egañaren esanetan, ez dute ukatzen herri onurako mendiak egurra lortzeko ustiatzeak herriari etekinak ekarri dizkiola, baina gaineratzen du egurraren sektoreak bizi duen krisiak eredu berri baten alde egiteko beharra erakutsi duela. "Parke naturala ere badugu ondoan, eta horren sintonian egon beharko dute gainerako herri basoek ere. Pinu landaketak ez dira horrenbeste ikusiko, ustiaketarako ez da zuhaitzik landatuko, pistarik ez da eraikiko... Bestalde, parke naturalaren barruan ere arautu egin beharko da, adibidez, motorzaleak ibil daitezkeen edo ez eta nondik nora", dio Egañak.

**Hemendik aurrera**
Aurrera begira, mendi bakoitzaren inguruan egingo egingo diren plangintzak herritarren parte -hartzearekin egingo dituzte. Noiz eta nola egingo duten zehazteke dago oraindik, baina aurtengo aurrekontuan dagoeneko badago horretara bideratutako partida bat. 2012ko abenduan onartutako aurrekontuen arabera, 15.000 euro ditu gordeta Udalak basoen ordenazio planerako eta beste 18.000 euro ingurune naturalaren ikerketarako; fauna eta flora ikertzeko, alegia.

### Elkarretaratzea bihar, Krisiaren Aurkako Plataformak deituta

Oñatiko Krisiaren Aurkako Plataformak deituta, elkarretaratzea egingo dute bihar, zapatua, 12:30ean, Foruen plazan. *Heriotza gehiagorik ez!* lelopean egingo dute, Bilbon bere alokairuzko etxea desjabetzera zihoazenean bere buruaz beste egin zuen 50 urteko gizonaren heriotza salatzearekin batera. Plataforma horretan gaur egungo egoerarekin haserre dauden herriko eragile eta norbanakoak daude eta ateak zabalik ditu.

### Jose Luis Kortak hitzaldia egingo du eguaztenean Batzokian

Jose Luis Korta dator hurrengo eguaztenean, hilak 13, Oñatiko Batzokira. *Kirola eta gizartea* izenburua duen hitzaldia egingo du, 19:00etan. Bere esperientzia kontatzeaz gain, bilerara joango direnen galderei ere erantzungo die oriotarrak. Aurkezpen handirik behar ez duen Jose Luis Kortaren hitzaldia hurrengo astean izango da, eguaztenean, Oñatiko EAJk antolatuta, eta irekia izango da: interesa duen edozein herritar joan ahal izango da.

### Salgai daude Korrika asteburuan egingo den bazkarirako txartelak

Martxoaren 16an, hurrengo zapatuan, egingo da Korrika asteburua Oñatin. Eguerdian herri bazkaria egingo da berdura azokan, eta txartelak dagoeneko salgai daude Gaztelekuan, Pake Lekun, Onan, Arranon eta Ongin; zortzi eurotan langabe eta erretiratuendako eta 12 eurotan langileendako. Musika, dantza, material salmenta eta herri kirolak ere izango dira.

Bezperan, hilak 15, Anai Arrebak eta Kerobia taldeen kontzertua egongo da gaztelekuan.

### Argentinarako materiala batzen hasiko dira berriro

Oñatitik Argentinara bidalitako azken kontainerrak, 31.ak, ia urtebete egin du geldi Buenos Airesko aduanan, baina laster berreskuratu ahal izango den abisua jaso du materiala batzen ibiltzen den taldeak. Horrela, herritarrei esan gura die berriro hasiko direla materiala batzen Bidebarrietako lokalean. "Hurrengo kontainerra Kubarako izango da, Acesma elkartearekin batera bidaliko dugun laguntza izango da", zehaztu dute Hermasoloña elkarteko ordezkariek.

# Hasi dira koloretako zakarrontziak jartzen

## Ikastetxeen eta eraikin publikoen ondoan jarriko dituzte orain, eta gero, kaleetan eta auzoetan


Berdura azokatik ikastolara bitartean dauden koloretako zakarrontziak. | O.E.

OIHANA ELORTZA | OÑATI
Hasi dira koloretako zakarrontziak jartzen herriko hainbat puntutan. Aste honetan bertan, Azkoagainen eta berdura azokatik Txantxiku Ikastolara bitarteko bidean jarri dituzte, eta datozen egunetan gehiago jarriko dituzte.

Lehen fasean, herriko ikastetxeen ondoan, udal eraikinen bueltan eta herriko kirol instalazioetan jarriko dituzte, eta bigarren fasean jarriko dituzte herriko kale, plaza eta auzo ezberdinetan.

**120 zakarrontzi berritu**
Herrian 420 zakarrontzi daude, guztira, eta horietatik 120 kendu dituzte orain arte. Horiek txukundu eta margotu egin dituzte, lau koloretan, eta dagoeneko hasi dira herriko hainbat puntutan jartzen. Horiek jarri ahalaz bat, kendu egingo dituzte beste batzuk, birziklatu ostean berriro kalean jartzeko. Denak, baina, ez dira berdinak izango. Lehen fase honetakoak, adibidez, horiz, urdinez, marroiz eta grisez margotutako zakarrontziak dira; bigarren fasean jarriko dituzten askok, ordea, pegatina bat izango dute, barrura zein hondakin bota behar den adierazten duena. Birziklatze lanak Osiñurdinen dagoen Errekabarren enpresak egin ditu eta inprenta lanak, Zubillagako Gertu lantegiak.

Oraingoz, toki batzuetan lau zakarrontzi jarriko dituzte elkarren segidan eta beste leku batzuetan, bi.

# Txandako produktu onak merke-merke gaurko eta biharko 'outlet'-ean

## Herriko 21 komertziok aurrealdera aterako dituzte produktuak dendako ordutegian

OIHANA ELORTZA | OÑATI
*Outlet*-a egingo dute gaur eta bihar Txandako hainbat dendak eta produktu onak merke-merke erosteko aukera izango da.

**Batukada ere bai**
*Outlet*-a dendako ordutegiaren barruan egingo dute komertzioek: gaur, egubakoitza, 10:00etatik 13:00etara eta 16:30etik 20:00etara eta bihar, zapatua, 10:00etatik 13:00etara. Ordutegi horretan denda aurrealdera aterako dituzte produktuak komertzioek. "Denda gehienek aurrealdera aterako dituzte, baina beste batzuk desplazatu egingo dira. Adibidez, denda batzuk Etxaluzeko aterpera eramango dituzte eta beste batzuk udaletxe ondoan dagoen Sustrai fruta-dendaren arkupetara eramango dituzte", zehaztu du Aitor Ugartek, Txandako presidenteak.

*Outlet*-arekin batera, Zumaiako Dardarada batukadak kaleak girotuko ditu gaur iluntzean.

**Desfilea**
Bestalde, Txandako zuzendaritzako ordezkariek azaldu duten moduan, desfile bat ari dira prestatzen. "Aurten ez dugu Txanda egunik egingo. Pentsatu dugu ekitaldi hori bi urtean behin egitea. Baina ekintza bereziak egiten jarraituko dugu, eta, adibidez, desfile bat egiteko ideia darabilgu buruan. Datak zehaztu barik ditugu, baina horixe da ideia", aurreratu du Txandako presidente Aitor Ugartek.


Joan den urtean egindako *outlet*-ean ateratako argazkia. | GOIENA

**PARTE-HARTZAILEAK**

- Bellotza loradenda
- Beloki iturgintza
- Mendizabal Kirolak
- Baio arropa denda
- Urrutia arropa denda
- NI moda
- Maibi etxeko ehungintza
- Alzu
- Urtaza mertzeria
- Arantxa mertzeria
- Arkauz optika
- Olalde zapata-denda
- Sua bitxigintza
- Haritza
- Itziar optika
- Ane haur arropa denda
- Aramburu pinturak
- Juanitosa
- D'or estetika
- Kuttun lentzeria
- Chic moda

## Espetxean bizitakoa kontatu dute emakumeek

*Emakumeak eta espetxeak* izeneko mahai-ingurua egin zuten eguazten iluntzean kultura etxeko bilera aretoan, Oñatiko Emakumeen Asanbladak deituta. Larraitz Ugarte oñatiarra izan zen moderatzailea, eta bizitakoa kontatzen Bergarako Maite Guridi eta Aitziber Plazaola eta Amaia Arrieta arrasatearra izan ziren.


AMAIA TXINTXURRETA


Kultura etxean zabalik dagoen erakusketa. | O.E.

# Gizakiaren eboluzioaren erakusketa, arrakastatsua

## Natur Eskolak antolatu du eta domeka, hilak 10, da zabalik egongo den azken eguna

O.E. | OÑATI
Gizakiaren eboluzioa eta arkeologiaren ibilbidea Gipuzkoan jasotzen duen erakusketak herritar asko erakarri ditu.

Orain dela hiru milioi urte Afrikan sortu zen *Australophitecus Afarensis* gizakitik duela 150.000 urtetik hona ezagutzen dugun *Homo Sapiens*-erainoko eboluzioa erakusten du, alde batetik, tamaina errealeko posterrekin. Eta bestetik, Gipuzkoan egindako lehen aurkikuntza arkeologikoak zeintzuk izan ziren eta ordutik hona aztarnategietan egindako lana nolakoa izan den azaltzen du, esaterako. Animalien burezurrak, argazki zaharrak, Altxerriko margoak, aztarnategi baten irudikapena eta marrazkiak batzen ditu, besteak beste.

**Burgosera irteera**
Bestalde, 40 lagunek eman dute izena asteburuan Burgosera egingo duten irteerarako. Atapuercako aztarnategia bisitatuko dute, besteak beste.

### Martxoko odol ateratzea egingo dute gaur, egubakoitza, iluntzean, Txantxiku Ikastolan

Martxoko odol ateratzea egingo dute gaur, egubakoitza, Oñatiko Odol Emaileen Elkarteak deituta. Ohi denez, Txantxiku Ikastolan izango da odol ateratzea, 17:30etik 19:30era, eta herritar guztiak daude deituta, baita odola inoiz eman ez dutenak ere. Ateratzearen ostean mokadutxoak eskainiko dizkiete guztiei. Hurrengo odol ateratzea apirilaren 19an izango da.

### Gimnasia abdominal hipopresibo tailerra eta fit bike master klasea gaur Zubikoa kiroldegian

Udaleko Kirol Zerbitzuak antolatuta, bi hitzordu gaur arratsaldean Zubikoa kiroldegian: batetik, gimnasia abdominal hipopresiboak ezagutzen ez dituzten herritarrendako tailer teoriko-praktikoa, 17:15ean. Ordubete iraungo du. Bigarren hitzordua da fit bike master klasa, bi monitorerekin. Ordu eta erdi iraungo du, 18:30etik 20:00etara.

### Antzerkia eta magia uztartuko dituen antzezlana ekarriko dute domeka eguerdian gaztelekura

Antzerkia, *clown*-a eta magia uztartzen dituen *Magiklown* antzezlana ekarriko dute domekan gaztelekura. 12:30ean hasiko da eta 3 urtetik gorako umeendako da. Sebastian Dunkerke artistak magia, umorea eta trebetasuna eskainiko die umeei. Panaiotis Fassoulas laguntzailea izango du ondoan horretarako, baina nahiko traketsa dela konturatuko dira ume guztiak.

### Hurrengo eguena aurretik eman behar da izena Oñatiko ehiza txapelketan parte hartzeko

Martxoaren 16an jokatuko da Arabako Zanbrana herrian Oñatiko ehiza txapelketa eta izena emateko azken eguna martxoaren 14a da, Alzu ehiza eta arrantza dendan. Txapelketa goizez egingo da, 09:00etatik 13:00etara, eta parte hartzeko derrigorrezkoa izango da ehiza baimena eguneratuta izatea eta federazio txartela eta txaleko distiragarria eramatea.

# Emakumeen eskubideak aldarrikatzeko hainbat ekimen

▶ Oñatiko Emakumeen Sareak eta Udal Berdintasun Sailak antolatu dituzte

▶ Lilatoia eta emakumeen bazkaria dira aurtengo berrikuntza nagusiak

**MIREIA BIKUÑA** | OÑATI

Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira askotariko ekitaldiak egingo dituzte datozen egunetan; besteak beste, emakumeen lasterketa, bazkaria, mahai-ingurua eta hitzaldia. Ekitaldi horietako batzuk Oñatiko Emakumeen Sareak antolatu ditu eta beste batzuk,Udaleko Berdintasun Sailak. Dena den, horietan guztietan, emakumeen eskubideak aldarrikatu dituzte, ozen.

Berrikuntzak ere badaude Martxoaren 8aren harira. Lehenengoa gaur, egubakoitza, 18:00etan egingo duten lasterketa: I. Lilatoia. Oñatiko Emakumeen Sareak eta Abixaran taldeak lau kilometroko ibilaldia zehaztu dute: Foru plaza -Zubikoa kiroldegia-Bidebarrieta -Kalegoiena - Bidaurreta-Euskadi etorbidea - Santa Marina plaza - Portu kalea- Kale Zaharra-Lizaur kalea - Postetxea - Foru plaza.

Aurreko domekan Donostian egindako Lilatoiaren lekukoa hartu gura dute oñatiarrek. Antolatzaileek esan dute "korrika lasai eta denok batera" egingo dutela. Dena den, korrika ez ezik, patinetean eta bizikletan ere egin daiteke proba.

Parte-hartzaileendako dutxa zerbitzua egongo da Zubikoa kiroldegian.

### Emakumeen bazkaria

Beste berrikuntza bat emakumeek egingo duten bazkaria izango da. 14:00etan elkartuko dira, gaztetxean. Asteon saldu dituzte bazkarirako txartelak eta 30 bat emakumek erosi dute.

Bazkaldu ondoren, herriko trikitilariek emanaldia egingo dute.

Emakume horiek, baina, beste hitzordu bat dute bazkaldu aurretik: 13:00etan, herriko emakumeen argazkia egingo dute Foru plazan. Bihar, gainera, emakumearen itxura oinarri duen *Pottola* antzezlana egongo da Santa Ana antzokian, 19:30ean (ikus ondoko albistea).

### Mahai-ingurua

Oñatiko Emakumeen Sareak eta Udaleko Berdintasun Sailak dituzten ekitaldietako batzuk aste bukaeran dira, baina beste hainbat datozen egunetan egingo dituzte. Adibidez, hilaren 13an, mahai-ingurua egingo dute, *Zer da hizkuntza sexista?* gaiaren gainean. Gizarte Zerbitzuetan (Bidebarrieta kalean) egingo dute berba gai horren inguruan, 18:00etan. Hilaren 19an, *Ekonomia eta emakumearen papera* delako hitzaldia egingo dute kultura etxean, 18:30ean; eta 21ean ipuin kontaketa saioa, haur liburutegian, 18:00etan.

**Lilatoiaren ibilbidea korrika, bizikletan edo patinetean egin daiteke**

**Herri bazkarian 30 bat emakume elkartuko dira, gaztetxean**

## Itxuraren garrantzia

Emakumearen itxuraren garrantzia lantzen du Txalo taldeak *Pottola* lanean. Emanaldia Santa Anan izango da bihar, zapatua, 19:30ean.

Gorka, protagonista, behar baino 30 kilo gehiago dituen emakume batekin maitemintzen da. Orduan hasten zaizkio arazoak. "Istorio mingotsa kontatzen dugu. Lodi dagoen pertsona da oinarri. Astakeria galantzak botatzen ditugu. Dena den, komedia estiloan kontatuta, barre egiteko aukera ematen du", esan digu oholtzara igoko den Ainhoa Garai arrasatearrak.



*Pottola* antzezlana. | GOIENA

## From The Jam eta Plan B taldeen kontzertua gaztelekuan

From The Jam eta Plan B taldeek kontzertua egingo dute gaur, egubakoitza, 22:30ean, gaztelekuan.

Bruce Foxtonek gidatzen du From The Jam taldea. Espainian egiten diharduten biran, Oñatikoa izango da Euskal Herrian egingo duten emanaldi bakarra.

Bestalde, Plan B punk-rock taldea, denbora luzez isilik egon ondoren, berriro hasi da doinuak astintzen. *España se muere* eta *La gente es gilipollas* kantuak joko dituzte.

## Emaitza onak lortu zituzten oñatiarrek Eibarko duatloian

Zapatuan, hilaren 2an, jokatu zen Eibarko XII. duatloia. Euskal zirkuituko laugarren proba zen, eta oñatiarrek emaitza onak lortu zituzten: Xabier Luis (Antxintxika Triatloi Taldea) Gipuzkoako txapelduna izan zen taldeka; Mikel Ugarte, Gipuzkoako txapelduorde 23 urtez azpikoetan; eta Iker Arkauz, Gipuzkoako txapeldunorde gazte mailan.

Parte-hartzaileek bost kilometro korrika, 25 bizikletan eta 2,5 egin zituzten.

CALIDAD TURISTICA
leku eta egun ahaztezinak

Etxe-Aundi
Hotela · Jatetxea
Torre Auzo, 9 • 20560 OÑATI
Tel.: 943 78 19 56 • Fax.: 943 78 32 90
etxeaundi@etxeaundi.com • www.etxeaundi.com





Ezkontzetan espezializatuta dagoen jatetxea



Egun ahaztezina izateko osagai guztiak eskaintzen dituen XIII-XIV. mendeko jauregi ikusgarria.

• Lorategiak
• Parking handia
• Ezkonberrien zerbitzura egongo den lantalde zabala
• 220 gonbidaturentzako tokia
• Zure ezkontza eguneko koktela eta dantzaldia egiteko terraza zabala eta egokia. Bertan ezkontza zibilak ospatzeko leku aproposa.
• Gastronomia zaindua eta aukera zabalekoa…

Etxe-Aundiren zilarrezko ezteiak ospatzen ditugula-eta, 2013an ezkontza-bazkaria gurean egiten duten bikote guztiek Tenerifera astebeterako eta mantenu osoan joateko egingo dugun zozketan parte hartuko dute.

# Pilotalekua, merkealdien azoka erraldoi bilakatuta

Musikaz girotuta egongo da Ixadebalde merkealdi azokaren seigarren edizioa

**ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL**

Seigarren aldiz antolatu du Aretxarte Merkatari Elkarteak Ixadebalde. Bihar, zapatua, izango da, Iturrigorri pilotalekuan. Egun osoan bisitatu ahal izango da merkealdi azoka, gainera, 10:00etan irekiko baitute, eta 20:00etan itxi.




Bezeroak iazko Ixadebalde azokan. | GOIENA

**Denetarik, prezio onean**

Aretxarteko hamalau denda egongo dira Ixadebalden bihar, eta asmoa udazkeneko eta neguko beherapenetatik geratzen zaizkien eskaintzak bertan salgai ipintzea izango dute. "Urtero ondo funtzionatzen duen azoka da, eta jendeak denetarik aurkitzen du bertan". Hala esan dio GOIENAri Aretxarte elkarteko lehendakari Idoia Elexpuruk.

Haurren arropak, mendikoak, zapatak... Denetarik aurkitu ahal izango dute pilotalekura bertaratzen direnek. "Baita taberna ere, zer edo zer hartzeko. Hala, erosketetan atsedenalditxo bat hartu eta indarberritzeko".

Gainera, produktuek ohi baino prezio baxuxeagoa izango dute, nahiz eta, salgaiaren arabera, beherapena handiagoa edo txikiagoa izango den. "Kasu askotan, %60koa edo handiagoa izatera irits daiteke".

**Azken beherapenen aukera**

Udaberriaren ataritan, erakusleihoetan sasoi horretarako arropak ikusten dira batik bat. Halere, denda barruetan oraindik merkealdietako arrastoak aurkitu daitezke.

"Gure dendan, gainera, Ixadebalde egin eta astebete gehiagoz mantentzen ditugu azken aukerak". Eta Elexpururen Belar Metan bezala, herriko beste hainbat saltokitan ere joera hori izan ohi dute.

**DENDA PARTE-HARTZAILEAK**

- Amaia ume-denda
- Asensio
- Benito Oinetakoak
- Belar Meta
- Brasileña
- Gertu
- Haurrak
- Kilima
- Kioskoa
- M5
- Orly
- Tinta Beltza
- Titare
- Txilarra

**ESANAK**

**"Biharko Ixadebalden taberna zerbitzua ere egongo da bertara joaten direnen eskura"**

IDOIA ELEXPURU | ARETXARTE

# Zuhaitzaren Eguna domeka honetan izango da

**Z.V.D.M.** | ARETXABALETA

Urkiak, haritzak, ezkiak, sahatsak, lizarrak, pago lizarrak, arteak eta gorostiak. Horiexek landatuko dituzte aurtengo Zuhaitzaren Egunean Aretxabaletan.

Domekan izango da hitzordua, eta aurtengoan, Ospital etxe inguruan egingo dute landaketa. Bertara joateko 11:00etan elkartuko dira Herriko Plazan.

**Herritarrei deia**

Almen eta Kurtzebarriko ikasleek esku hartuko dute Zuhaitzaren Egunean. Baina Udalak dei egin die herritar guztiei parte har dezaten. "Ingurumen Sailetik aretxabaletar guztiok, baita irakasle zein gurasook ere, gonbidatzen zaituztegu parte hartzera, eta ondoren egingo dugun hamaiketakora ere". Udalarekin elkarlanean Landaketa Taldie arituko da, aurrenekoz, guztia koordinatzen.



Iazko une bat. | GOIENA




ARETXABALETAKO LANBIDE ESKOLA

# Ia 300 kilo jaki batu dituzte

Aretxabaletako Lanbide Eskolak elikagai bilketa egin berri du Gipuzkoako Elikagai Bankuaren alde. Ia 300 kilo jaki batu dituzte eta eskerrak eman gura izan dizkiete parte hartzaileei. Gogorarazi dute ibarrean Gipuzkoako Elikagai Bankuaren egoitza Bergaran dagoela, eta, ekarpen ezberdinez gainera, boluntarioak ere behar dituztela.

# Makina bat arrazoi daude gaur kalera irten eta aldarrikatzeko

**Z.V.D.M.** | ARETXABALETA

Aretxabaletako Udalak *Hamaika arrazoi dauzkagu kalera ateratzeko, konplexurik gabe, lotsarik gabe eta beldurrik gabe* adierazpena kaleratu du. Eta arrazoien artean prekarietatea, jipoiak eta gosea aipatzen ditu, baita emakumeei kuxkuxero, hitzontzi edo histeriko izatea egozten zaiela.

"Emakumeok ez gara histerikoak, ezta bigarren mailako gizakiak ere. Badakigu zer gura dugun: beste mundu bat, mundu hobea; konbentzituta gaude emakumeok eta gizonok batzuen zein besteen onerako izango den harreman eta bizikidetza eredu berri bat sor dezakegula elkarrekin". Eta honela jarraitzen du: "Emakumeok gure bizitzaren eta gorputzaren jabe izan gura dugu, bizimodu duina eduki, gure orain ekonomiko eta soziala eraiki, eta, edonon gaudela ere, subjektu politikoak eta etorkizun politikoaren zuzeneko eragileak izango gara".

**Te-hartzea eta agerraldia**

Jatorri askotariko emakumeek udaletxe zaharrean te-hartzea egingo dute gaur, 15:00etan; eta 18:00etarako, agerraldia deitu du herriko emakume taldeak, *Feminismoaren bidetik, emakumeak libre!* lelopean, Herriko Plazan.

# Askotariko ikastaroak antolatu ditu Aretxabaletako KZguneak martxorako

**Z.V.D.M.** | ARETXABALETA

Aretxabaletako KZguneak zenbait ikastaro antolatu ditu martxoan eskaintzeko. Dagoeneko eman daiteke izena datozen asteotan eskainiko diren saioetan parte hartzeko.

Batetik, sare sozialak hartuko dituzte ardatz, eta horien gainean eskolak emango dituzte. Euskarazko saioak izango dira, eta martxoaren 18an hasi eta hilaren 26an amaituko dira; 14 orduko iraupena izango du ikastaroak. *Sare sozialak 2.0* ikastaroa 09:00etatik 11:00etara eskainiko dute.

Bestalde, *Software librea* ikastaroa emango dute KZgunean hilaren 19tik 26ra. Euskarazko saioak 11:00etatik 13:00era izango dira.

# Atzerritartasun araudiari buruzko saioa egingo dute hilaren 14an Arkupen

**Z.V.D.M.** | ARETXABALETA

Martxoaren 14an egingo dute, Arkupen, atzerritartasunaren gaineko legeari buruzko informazio saioa. Udaleko Gizarteratze Zerbitzuak antolatu du, eta 10:00etatik 12:00etara bitartean izango dela adierazi dute.

Ez dira soilik atzerritarrei zuzenduta egongo, haiekin hartu-emana dutenei ere egin diete dei parte har dezaten. "Oro har, legearen nondik norakoez gehiago jakin gura dutenei irekita dago".

Azken urteetan bezala, Eusko Jaurlaritzako Biltzen Zerbitzuko kide batek bertaratutakoen zalantzak argituko ditu, dela nazionalitateari buruz, kanporatzeez, bizi edota lan egiteko baimenez, zigorrez...

# Bi postutarako lan-poltsa deialdia egin du Udalak

**Z.V.D.M.** | ARETXABALETA

Aretxabaletako Udalak arkitekto teknikoa eta herri-lanetako ingeniari teknikoa kontratatzeko lan-poltsa zabaldu du. Martxoaren 15era arte daukate interesatuek izena emateko aukera.

Arkitekto tekniko titulua edo herri lanetako ingeniari tekniko titulua dutenek har dezakete parte. Gainera, 16 urte beteta eduki behar dute, eta ez dute lanpostuari dagozkion eginkizunak normaltasunez betetzea galaraziko lioketen gaixotasunik edo tatxa fisiko edo psikikorik eduki behar.

Oinarri guztiak kontsultatzeko edota informazio gehiagorako, jo Udalaren webgunera: *http://www.aretxabaleta.com.*



On musika taldea, iaz, Eskoriatzako emanaldi batean. | TXOMIN MADINA

# Rock doinuak eta printzesa baten istorioa, asteburuan

On eta Kokein taldeen zuzeneko rock musika gaur eta bihar berriz, Virginia Imazen ipuin kontaketa

Z.V.D.M. | ARETXABALETA

Martxoan zehar emakumeak leku garrantzitsua dauka Aretxabaletan, eta asteburuan ere horrela izango da. Gaur eta bihar musika eta ipuin kontaketa hitzorduekin gozatzeko aukera egongo da: On eta Kokainen doinuekin batetik, eta Virginia Imazen ipuin kontaketako istorioekin, bestetik.

**Doinu rockeroak gaur**

Gaur gauean On eta Kokein taldeak Kurtzebarri ikastolako kantxan oholtza gainera igoko dira 22:00etan (euria egingo balu, berriz, Iturrigorrin).

On taldeko ahotsa eta gitarra da Itsaso Gutierrez, eta gaurko emanaldiaz egin dio berba Goienari: "Urte asko daramatzat musika munduan. Noski, rocka egiteko asmoa izan dut beti, baina emakumezkoen ikuspuntutik. Gure taldearen letretan emakumezkoen kezkak eta aldarriak nagusi dira, eta gaur moduko egun batetara primeran egokitzen dira. Gainera, ez On eta ez Kokein ez dugu bakarrik emakumeok osatzen, baina igarri egiten da emakumearen presentzia". Emanaldi indartsua eskaintzeko prest datoz Aretxabaletara.

**Printzesa baten gorabeherak**

Zapatu goiza umorez hasiko dute etxeko gazteenek. Hain zuzen ere, Virginia Imaz bergararrak 6 eta 8 urte bitarteko neska-mutilei *Bigarren printzesa* izeneko ipuina kontatuko die, 11:00etan hasita. Errege eta erregina baten bigarren alabaren istorioa gerturatuko die Imazek liburutegira bertaratzen direnei; bigarren izateaz nekatuta dagoen printzesaren gorabehera entretenigarriak, hain zuzen.

## Etorkizuna ohorezko mailan egiteko asmoz, azkeneko partida jokatuko dute Bilbon

Z.V.D.M. | ARETXABALETA

Ohorezko mailara igotzeko azken aukera daukate bihar Arrasate-Arlutz A xake taldeko kideek Bilboko Alhondigan.

Donostian jokatutako azken-aurreko hitzorduan ezin izan zuten maila igoera ziurtatu. Aitor Alcaide kideak hauxe esan zuen: "Aurkariek guk baino hobeto prestatu zituzten partidak, eta azkenean galdu". Hala, 3-1 galdu zuten Easoren aurka.

Gros B taldea izango dute aurkari biharko hitzorduan. "Azken bigarren postuan daude, eta, berez, irabazi egin beharko genuke. Dena den, igotzea ez dago gure esku, sailkapena ikusita. Ea zortea daukagun!".

## Londresko kontzertuaren bizipenak, No Hoperen eskutik

Z.V.D.M. | ARETXABALETA

Otsailaren 23an kontzertua eskaini zuten No Hope taldeko kideek Londresko Tottenham auzoan. Hain zuzen ere, *A night of Irish and Basque Solidarity* (Irlanda eta Euskal Herriarekiko Elkartasuna) jaialdian hartu zuten parte. Bada, euren bizipenen berri eman digu taldeak.

**Asteburu pasa ederra**

Asteburu pasa joan ziren otsailaren 22an musika taldekoak Ingalaterra aldera. "Ostiralean joan ginen Londresera; 13 pertsona animatu ginen, gainera, giroa sortzeko, eta primeran joan zen dena. Lehenengo egunean, ostatua topatu, pinta batzuk dastatu eta ohera.

Zapatu goizean turismoa egin genuen, eta arratsaldean Tottenham ingurura joan ginen". Anekdotaren bat edo beste ere bizi izan zuten: "Aretoa aurkitzea kostatu zitzaigun eta pare bat orduz hor zehar ibili ginen instrumentu eta guzti! Baina azkenean aurkitu genuen, eta oso areto ederra zen, handia, jaialdirako bi gunerekin"..

Lau taldek hartu zuten parte elkartasun kontzertuan. "Hasieratik jendez lepo zegoen aretoa. Bitxikeria moduan, Londresen bizi diren euskaldun batzuek txalaparta jo zuten bitartean ikusentzuleek irrintziak egiten zituztela". No Hopekoen txanda izan zen ostean, eta "hasieratik jendea giroan murgilduta zebilen, oholtzatik ere egin zuten salto".

Esperientzia bikaina bizi izan zuten atzerrian jotzen zuten aurreneko kontzertuan. "Nahiz eta kontzertua erdizka geratu zen. Puntualitate ingelesarekin, Bottlejob taldea jotzen ari zela, argindarra moztu zuten, eta denok kalera".

Bidaian, Londresko toki ezagun ugari bisitatzeko aprobetxatu zuten; Candem eta Soho, besteak beste. "Esperientzia borobila izan zen".



Z.V.D.M.

## 'Aldamenekoa'-z, autorearekin

Ainara Gorostizu Aretxabaletako Zaraia aretoan egon zen astelehen iluntzean *Aldamenekoa* liburuaren gaineko solasaldia eskaintzen. Debako Tene Muxika bekaren bidez jaio zen liburuaren sorrera eta bilakaera hartu zituen ahotan idazle eta kazetariak asteleheneko hitzorduan, eta Zaraiara bertaratu zirenek gogoz entzun zituzten Gorostizuren esanak.

### Arrasatearrak izango dituzte aurrez aurre etxeko pilotariek

Gaur, egubakoitza, 20:00etan, Debarroko pilota txapelketako beste hitzordu bat izango dute Iturrigorri pilotalekuan. Hori horrela, Aretxabaletako pilotariek Arrasatekoen kontra jokatuko dute jardunaldi honetan. Etxeko taldea Errastik eta Oionek ordezkatuta egongo da eta Bolinaga eta Zuazua izango dituzte aurrez aurre.

### Heldu eta umeentzako zinema eskainiko dute asteburuan Zaraian

Emakumezko aktore onenaren Oscarra eskuratu berri duen *El lado bueno de las cosas* filma eskainiko dute gaur eta bihar, 22:00etan, eta domekan, 19:30ean. Haurrentzako zinema ere eskainiko dute Zaraia aretoan. Hala, *Herensugea: haritzaren bihotza* euskarazko animaziozko filma proiektatuko dute zapatuan eta domekan, 17:00etan hasita.

### 'Balitzen hioa' antzezlana taularatuko dute eguaztenean

Hitzen balioa abiapuntutzat hartuta, Ainhoa Agirreazaldegi, Uxue Alberdi, Andoni Egaña eta Maialen Lujanbiori gaiari buruz hausnartu eta idazteko eskatu zitzaien. Hala, *Balitzen hioa* antzezlana sortu zuen Begirada taldeak; datorren eguaztenean, martxoaren 13an, 19:00etan Zaraia aretoan ikusgai egongo da emanaldia.

### Martxoan emakume komikigileen lanak ikusgai Arkupen

Umorea, kritika, ebidentziak... 60ko hamarkada ezkeroko hogeita hamar emakume artistaren obrak ikusgai daude Arkupen, hilaren 31ra bitartean. Astelehenetik ostiralera 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. Zapatuetan goizez bakarrik eta domeka eta jaiegunetan itxita egongo da.

Jon Díaz
Harakina
Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

Mobiliario Arenaza
ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

PIENSOS UNZUE S.A.

FELIX PAGALDAY
Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak
Mitarte 7 behea
ARETXABALETA
Tel.: 943 77 00 33 / 943 79 42 56

Rosa Lasagabaster | Kirol aholkularia

# "Erronka handia da herriari ematea daukadana"

Herriko kirol instalazioen erabilpena sustatu eta eskaintza ona gertatu gura du eskoriatzarrak

**MIRIAN BITERI** | ESKORIATZA

Eskoriatzak kirol aholkulari berria du otsaila erdialdea ezkero. Rosa Lasagabaster eskoriatzarra da hura. Lanean buru-belarri topatu genuen eguazten goizean, Manuel Muñoz kiroldegiko harreran egokitu dioten behin-behineko bulegoan. Gustura dagoela jakinarazi digu, lan "polita" delako. Horrekin batera, onartu digu lan handia dagoela kirol alorrean egiteke. Bi urte ditu aurretik, kontratuak bi urteko iraupena izango du-eta, eta beste bi alditan luzatu ahal izango da, urtebetez.

**Aurretik ere Eskoriatzako Udalean egonda zaude, ezta?**

Hala da; orain dela 14 urte inguru. Garai hartan, lau urte egon nintzen herrirako lan egiten; gero, alde egin nuen. Baina, aspalditik, zeregin horretan jarduteko gogoa neukan ostera. Kirol aholkulari lanpostua irten zen, eta aukera ona iruditu zitzaidan. Nekatuta nengoen etxetik kanpo ibiltzeaz. Erronka handia da niretako herriari ematea daukadana, eta uste dut badaukadala zer eman. Nire asmo nagusia da eskaintzea ikasi dudana.

**Zein da zuk zehazki egingo duzun lana?**

Kirol aholkularitza. Eskoriatzako Udalari arlo guztien gaineko iritzia ematen diot, bai herriko kirol instalazioetan eta baita herri mailan egin dezakegun eskaintzaren gainean. Lan polita dela iruditzen zait.

**Kirol alorrean hutsunea igartzen zen Eskoriatzan?**

Bai. Nik uste dut hutsunea aspalditik datorrela. Orain arte bereziki kiroldegia eroateaz arduratu dira, beste barik; ez zegoen arduradunik. Eta gainean egotea inportantea zen. Instalazioen kudeaketarekin batera, nire asmoa da kirol elkarte, Huhezi, ikastetxe eta, azken finean, interesatuta eta inplikatuta dauden guztiak koordinatzea. Ez ditugu kirolarekin lotuta dauden ekintzak bakarrik bultzatuko; bestelakoak ere bai, hala nola dantzak edo musikarekin lotuta daudenak. Eta, modu horretan, eskaintza ona eman ahal izango dugu.


Rosa Lasagabaster, eguaztenean, kiroldegian. | MIRIAN BITERI

**Dagoeneko zerbait gertatzen hasi zarete?**

Bai. Ideia da eskaintza udarako prestatzea; Aste Santua amaitzean, herritar guztiei zuzendutako eskaintza zabaltzea. Udako kanpaina modukoa izango litzateke, eta hor askotariko alorrak lantzeko asmoa daukagu: esaterako, osasuna eta natura. Horrelako ekintzak sustatzea da asmoa, eta harrera ona badute, irailean horiekin jarraitzea.

**Horretaz aparte, kiroldegiaren erabilpena ere sustatu gura duzue...**

Hala da. Ekintza asko daude kiroldegian ematen ez direnak; tartean, pilatesa. Eta badaude beste batzuk kiroldegian ematen direnak, eta, agian, ez direnak hor eman behar. Kiroldegirako birplanteatze plana dago. Horretan ere lan handia daukagu.

**Bestalde, herritarrendako arreta zerbitzua ere baduzu...**

Bai. Asmoa da bereziki osasun aldetik norbait baldin badator aholkuen bila laguntzea. Ez dago zertan kirolarekin bakarrik lotuta egon, elikadurarekin lotutako aholkuak ere emango dizkiot.

**Zein da zure ordutegia?**

Behin-behinekoa baldin bada ere, normalean, astelehenetik egubakoitzera bitartean, goizez 09:15etik 12:30ak arte eta arratsaldez 14:30etik 18:00ak arte aurkituko naute herriko kiroldegiko harreran dudan behin-behineko bulegoan. Ateak zabalik topatuko dituzte.

**"Asmoa da natura eta osasunarekin lotutako ekintza sustatzea"**

**"Kiroldegirako birplanteatze plana dago; horretan lan handia daukagu"**

## Granadarako bidaian izena eman daiteke Olazarren

**M.B.** | ESKORIATZA

Oraindik izena eman daiteke Olazar erretiratuen elkarteak Costa del Solera eta Granadara antolatutako bidaian. Interesa dutenek hilaren 21era arte dute epea; martitzenetan eta eguenetan, 11:00etatik 12:30era pasatu behar dute elkarteak duen egoitzatik. Apirilaren 15etik 22ra bitartean egingo dute esandako bidaia.

**Batzarra hilaren 14an**

Bestalde, Olazartik jakinarazi dute martxoaren 14an, egubakoitza, urteroko batzar orokorra egingo dutela, kultura etxean. Honako gaiak landuko dituzte bilkura horretan: elkarteko presidenteordea, idazkaria eta bi bokal berri aukeratzea; aurtengo kudeaketa plana, kuotak ordaindu ez izanagatik sortutako bajen araudia, 2013ko kuotak, bidaien gaineko araudia, sukaldea eta loteria. 17:30ean hasiko da batzarra eta parte hartzeko dei egin du Olazarrek.

## Mutilendako sexologia tailerra, perkusioa eta zinema gaztelekuan

Beteta dator asteon gaztelekuko agenda. Gaur, egubakoitza, mutilei zuzendutako sexologia tailerra dago; bihar, perkusioak hartuko du lekukoa; eta etzi, zinema izango dute. Bestalde, herrien arteko mahai futbol txapelketa gertatzen dabiltza gaztelekuetan; bikoteek aurrez eman behar dute izena. Martxoaren 17an, Eskoriatzako gaztelekuan jokatuko da txapelketa, 18:00etan.


ESKORIATZAKO EZKER ANITZA-IU

## Hugo Chavez gogoan udaletxean

Venezuelako presidente Hugo Chavezen heriotza dela-eta, haren aldeko elkartasuna helarazteko, Venezuelako Errepublika Bolibariarraren bandera jarri zuten joan den eguaztenean herriko udaletxeko balkoian. Ezker Anitza-IU udal taldeak egin zuen eskaera hori, Chavezekiko "aitorpen eta errespetua" eta venezuelar herriarekiko "elkartasuna" adierazteko asmoz.

## Martxoaren 8aren harira, kafe-tertulia eta saskibaloia

**M.B.** | ESKORIATZA

Emakumeen Nazioarteko Eguna da gaur, eta, horren bueltan, kafe-tertulia egingo dute gaur Ibarraundi museoan. Berdintasunaren alorrean lan egiten duen Equala enpresaren eskutik, egungo emakumeen eta gizonen erronkez egingo dute berba. 18:00etan hasiko da, eta, ordubeteko berbaldiaren ondoren, Ausarta taldeak eskainitako esketxekin gozatuko dute parte-hartzaileek.

Horrez gain, kirolarekin lotutako ekintza bat ere egongo da. Eskoriatza Kirol Elkarteak antolatuta, Hondarribia-Irun taldearen, emakumeen saskibaloiko euskal talde onenaren, entrenamendua izango da Manuel Muñoz kiroldegian, 20:00etan.

## Kromoak trukatu ahal izango dira etzi plazan

**M.B.** | ESKORIATZA

Erepikatuta dituzten kromoak aldatzeko aukera izango dute herriko umeek etzi, 18:30ean, plazan. Gaur egun merkatuan dauden bilduma esanguratsuak trukatu ahal izango dituzte horretan, hala nola *Invizimals*, *Violetta Photocards*, *Monster High Skull Life* eta *Liga BBVA 2012-13*.

Udaleko Kultura batzordean guraso batek proposatuta antolatu dute *Birritan daukat* delakoa. Guraso horrek jakinarazi zuen Eskoriatzan badagoela jendea domeketan Gasteizen egiten den kromo trukaketara joaten dena. Udalari interesgarria iruditu zitzaion, batetik, truke kultura sustatzen delako, eta bestetik, umeen arteko harremanak bultzatzen direlako.

## OHARRAK

**KZGUNEA**

KZguneko dinamizatzailea izango da gaur, egubakoitza, 17:30etik 20:00etara, KZgunean.

**KIROL HITZORDUAK**

Norgehiagoka bi daude bihar kiroldegian: 16:00etan, areto futboleko gazteak Alipendi gasteiztarren kontra lehiatuko dira; eta 18:00etan, areto futboleko lehen erregionalean, Lakua izango dute aurrean.

**OGIA EGITEKO TAILERRA**

Eguaztenean, 18:00etan, erretiratuen sukaldean, ogia egiten ikasteko tailerra izango da. Bada, gaur arte eman daiteke izena (egubakoitza), kultura etxean.

Nagore Igartza | Argazkilaria

# "Irudi zabalak eta zalantzak sortzen dituztenak ditut gustuko"

## Zapatuan eta domekan Olaranen ikusgai izango duzue 'Sortak' argazki bilduma

M.A. | ANTZUOLA

Nagore Igartza antzuolarrak Donostiako Lugaritz kultura etxean *Sortak* argazki bildumaren erakusketa zabaldu ostean, orain etxera ekarri du. Olaranen asteburu honetan ikusgai izango dituzue, 18:30etik 20:30era bitartean.



Nagore Igartza. | MAIDER ARREGI

***Sortak* nolako lan bilduma da?**
Azken lau urteotako lana da. Lau sortak osatzen dute: *Poises* (2011), *Darkaland* (2011), *Profunditats* (2009) eta *No Lugares* (2009). Ezberdinak badirudite ere, kontzeptu berak batzen dituzte. Gabezia, hutsunea, ez dagoen hori da protagonista irudi guztietan. Irudi zabalak, zalantza sortzen dutenak ditut gustuko, bakoitzak imajinazioa erabiliz interpreta dezan argazkia.

**Bisitatu dutenek zer diote?**
Era guztietako iritziak daude; hori da interesgarria. Batzuek beren gustuko sorta dute. Irudiren batekin gertutasuna sentitzen duenean ikusleren batek, zerbait sentiarazten dionean satisfakzio handia sortzen dit.

**Erakusketa ziklo baten bukaera dela diozu. Zergatik?**
Koadernoan, ordenagailuan eta negatiboetan denbora luzez egon diren argazki eta ideiak bukatutzat jotzen ditudanean, nola erakutsi erabakitzen dut: konposizioa, neurriak… Erakusketarekin zikloa ixten dut eta ideia berriekin hasten naiz lanean.

**Erakusketa egitea. Zelako esperientzia da?**
Iritzi kontrajarriak ditut nire lana erakustean. Lan pertsonala, intimoa da; lotsa puntu bat sortzen dit erakusteak, baina, era berean, ikuslearen erreakzioa ikustea gustatzen zait.

**Ze argazki edo irudik ematen dizu atentzioa?**
Seme-alabetako zein duzun maiteen galdetzea da hori. Sorta bakoitzak bere prozesua izan du, esperientzia ezberdinak bizi eta ikasarazten dizu.

**Ze proiektu duzu esku artean?**
Momentu honetan proiektu handi batean sartu naiz… ama izango naiz laster.

# Iaz jasotako hondakinen datuak azalduko dituzte

## Gaikako bilketa sistemaren bigarren urteurrena ospatzeko, bihar argazki masiboa egingo dute

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Iaz egin zen bezala, aurten ere urteko datuei buruzko aurkezpena egingo dute Antzuolako Udalak eta Hondakinen Jarraipen Batzordeak. Hala, 2012ko hondakinen gaineko datuak aurkeztuko dituzte martxoaren 12an, martitzenean, 18:30ean, Olaranen etxeko aretoan. Batzordeak dio datuak "oso positiboak" direla: "Jasotako hondakinen %86 birziklagarriak ziren, %14 besterik ez zen izan errefusa. 2010eko datuekin alderatuta, aldaketa izugarria izan da: urte hartan, %75 zen errefusa; hau da, zabortegira eraman behar izan zena", gaineratu digute.

Ekonomikoki ere aurrerapauso handiak egin direla azaldu digute: "Hondakinen tratamenduak 41.500 euro baino gehiagoko kostua izan zuen Mankomunitatearentzako (Antzuolari dagokionez) 2010ean. 2012. urtean, berriz, 9.500 eurotik gorako irabaziak izan ditu. Kontuan hartu behar da gaur egun askoz tona gutxiago eramaten dela zabortegira (tona bakoitzeko 144 euro ordaindu behar da) eta ontzi, paper, kartoi... gehiago saltzen dela; gainera, material horren kalitatea (purutasuna) askoz handiagoa denez, gehiago ordaintzen dute. Gauzak horrela, esan bezala, iaz kostuak izan beharrean, irabaziak egon ziren tratamenduari dagokionez".

Datu horiei guztiei eta gehiagori buruzko azalpenak emango dituzte, bada, martitzenean Udaleko arduradunek eta Jarraipen Batzordeko kideek.

### 2. urteurreneko ospakizunak

Bi urte bete berri dira Antzuolan hondakinen sistema berria jarri eta hondakinekin selektiboki jarduten dutela –martxoaren 7an–. "Hori dela eta, eta herritar guztien laguntzarekin eta ahaleginarekin lortu dugun hori ospatzeko, argazki masiboa aterako dugu zapatuan Zurrategin, 13:00etan. Herritar guztiei dei egiten die Antzuolako Udalak ekimen horretan parte har dezaten. Gainera, urteurrenaz gain, badugu zer ospatu; izan ere, Antzuolako hondakinen kudeaketa Europa mailan eredugarri aukeratu dute eta hori harro egoteko modukoa da", gaineratu dute.

> **DATUA**
> **144**
> EURO
> Zabortegira eramaten den tona bakoitzeko 144 euro ordaindu behar da; hala, 2012an, 9.500 eurotik gorako irabaziak izan dira.

### Eredugarri Europan

Europako Eskualdeetako Lantaldeak eta Europako Batzordeak Ecologic Institute erakundeari enkargatu diote hondakinen herri eta eskualde mailako kudeaketa aztertuko duen ikerlana. Enkargu horren eginbeharretako bat da Europako Batasuna osatzen duten estatu bakoitzean praktika onen kasu bana identifikatzea.

Espainiaren kasuan, autonomia guztietako ekimenak aztertu ditu Ecologic Institute erakundeak. "Ekimen nabarmenena, eraginkorrena eta berritzaileena Debagoieneko Mankomunitateak hondakinak atez ate biltzeko egin duen apustua dela iritzi diogu", azaldu du Ecologic Instituteko Alejandro Iglesias-Camposek. Horregatik, antzuolarren "esperientziak eta ondo-egitea praktika onen eredu gisa" aurkeztu nahi ditu aipatutako erakundeak. Helburu horrekin, Antzuolako Udalarekin eta Debagoieneko Mankomunitatearekin harremanetan jarri dira Ecologic Institute erakundeko arduradunak, datu zehatzak eta informazio gehigarria eskuratzeko.



MAIDER ARREGI

## Kalebarrengo obrak abian dira

Beheko auzoan hasi zituzten, orain hilabete, irisgarritasun lanak. Orain, eguraldi hobeak lagunduta, irisgarritasun lan horiekin aurrera egiteko aukera dute Bermeosolo enpresako langileek. Lanik handiena Kalebarrenen egingo dute, eta zirkulazioan ere eragina izan dezake egun batzuetan. Lanok ia herrigune osoa ukituko dute, gainera. Horretarako, 150.000 euroko diru partida erabiliko dute.

### Martxoaren 8a: murala eta elkarretaratzea gaur Zurrategin

Emakumeen Nazioarteko Eguna dela-eta, Zurrategin 18:30ean murala egingo dute. 19:30ean elkarretaratzea izango da. Kartel lehiaketara aurkeztu diren kartelak ikusgai egongo dira eta herritarren bozketarekin aukeratuko dute irabazlea. Txokolatea banatuko dute.

### Trakzio mekanikodun ibilgailuen tasak badu ordaintzeko epea

Antzuolako Udalak jakinarazi du dagoeneko ordain daitezkeela trakzio mekanikoko ibilgailuen tasak. Hain zuzen ere, borondatez ordaintzeko epea apirilaren 1etik maiatzaren 31ra bitartekoa da. Iragarkia eguaztenean, martxoaren 6an, argitaratu zuten Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

### Arrola Mendi taldeak zuzendaritza berritu du urteko batzarrean

Zuzendaritza batzorderako kideak izendatu ditu Arrolak azken batzarrean. Hauek dira: Juan Carlos Gomez, Imanol Legorburu, Ibon Urzelai, Deiane Zubikarai, Miren Anduaga, Jabi Etxaniz, Ander Iturbe, Mikel Lizarazu eta Gorka Etxezarreta. Lehen irteera martxoan egingo dute.

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

EGAÑA
Era guztietako arotz lanak
Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatu eta barnizatuak
Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

# Berdintasunaren borrokak "indar handiagoa" behar duela uste du Udalak

## Itur-Zuri elkartearen Emakumeen Astea: bingo afaria gaur eta emakumez osatutako Madrilgo korua bihar

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARAMAIO
Gaur da Emakumeen Nazioarteko Eguna. Bildu eta Aramaioko Alkartasuna alderdiek osatzen duten Udal Gobernuak adierazpen instituzionala atera du asteon, berdintasuna lortzeko borrokak "indar handiagoa" behar duela aldarrikatzeko. Hala, Udalak honako lehentasunak zehaztu ditu, besteak beste: berdintasunerako politika publikoak garatzea, programak zein proiektuak aztertu, garatu edota ebaluatzerakoan udalaren gobernu-ekintza orok genero ikuspegia kontuan hartzeko neurriak bultzatzea eta emakumeen elkarteekiko zein mugimendu feministarekiko elkarrizketa politikoa indartzea.

**Emakumeen Astearen amaiera**
Aramaioko emakume elkarteak Itur-Zuri du izena eta urtero moduan, Emakumeen Astea antolatu dute Udalaren eta Emakunderen laguntzaz. Gaur eta bihar izango dira azken ekintzak. Gaur bingo afaria egingo dute San Martin eskolako jangelan, 19:30ean hasita. Antolatzaileek 40 bat lagun espero dituzte, iazko antzeko kopurua. Bihar, berriz, Madrilgo El Coro Entredos emakumez osatutako abesbatzak emanaldia eskainiko du Kultur etxean (20:00). Era berean, aurten bigarren aldiz antolatu du Udalak Martxoaren 8ko kartel lehiaketa. Aurten ere Mikel Ruiz de Azuak irabazi du lehen saria –200 euro–. Bigarren saria, berriz, Maider Aldaik irabazi du –100 euro.



ARAMAIOKO UDALA

**MIKEL RUIZ DE AZUA** | KARTEL LEHIAKETAKO IRABAZLEA

### "Esperantza eta borrokarako gogoa transmititu nahi izan dut kartelarekin"

Aurten ere irabazi du kartel lehiaketa Mikel Ruiz de Azuak. Esan digunez, ez zuen saria espero.

**Zer erakusten du kartelak?**
Kartelaren bidez esperantza eta borrokarako gogoa transmititu nahi izan dut. Horretarako, itsasoan eta olatuetan oinarritu naiz, indar handia duten naturako elementuak direlako. Hortik atera dut leloa: *Batu zaitez olatu morera!*

**Espero zenuen irabaztea?**
Ez. Lagun batek deitu zidan ea sariketara joan behar nuen galdetuz. Hara gerturatu eta ezusteko ederra, lehenengo saria: 200 euro! Aramaion hau izan da Martxoaren 8a dela-eta egin den bigarren kartel lehiaketa. Iaz ere lehen saria irabazi nuen; pozik.

**Halako lehiaketak garrantzitsuak direla uste al duzu?**
Bai. Udalari, horrelako lehiaketak egiten jarraitzeko eskatu gura diot. Horrez gain, herritarrak animatu gura ditut parte hartzera. Sari banaketan zoriondu ez nuen arren, bigarren sailkatua zoriondu gura dut [Maider Aldai], bere kartela asko gustatu zaidalako.



LARRAITZ ARRIOLABENGOA

## Aramaioarrak Donostiako Lilatoia lasterketan

Azken urteetako ohiturari eutsiz, Aramaioko emakume talde batek parte hartu zuen joan den domekan Donostian egin zen Lilatoia lasterketan. Korrikalariez gain, patinekin ere hartu zuen parte Ainhoa Oiangurenek; zazpigarren postuan amaitu zuen. Gainerakoak ere oso pozik geratu ziren, guztiak irabazle: "Egun zoragarria igaro dugu; bazkaria, Donostian bueltatxoa eta erosketak. Datorren urtean gehiago!".

# Sarrerak salgai Arabako Txapelketako finalerako

## Martxoaren 16an jokatuko da, Gasteizen; sarrerak, 'www.bertsosarrerak.eu' webgunean

**J.B.** | ARAMAIO
Arabako Bertsolari Txapelketako finala martxoaren 16an jokatuko da Gasteizko Printzipal Antzokian (17:30). Manex Agirrek osatuko du Aramaioko ordezkaritza, eta, duela bi urte egin bezala, txapela irabazten saiatuko da. Aramaiokoarekin batera beste bost bertsolari egongo dira final handian: Asier Otamendi, Iñaki Viñaspre, Ruben Sanchez, Oihane Perea eta Jagoba Apaolatza.

Maialen Kortabarriak egingo ditu gai-jartzaile lanak eta Olatz Bayer izango da aurkezlea. Sarrerak salgai daude dagoeneko eta bi modu daude horiek eskuratzeko: Gasteizko Amaia zentroan eta *www.bertsosarrerak.eu* webgunean. Egunean bertan leihatilan ere eskuratu ahal izango dira, lehenago agortzen ez badira, behintzat. Sarrera arruntak hamar euro balioko du; bazkideentzat, zazpi. 16 urtetik beherakoek hiru euro ordaindu beharko dute.


**Manex Agirre, finalaurrekoan.** | GOIENA

### Elurteen ondorioz apurtutako zuhaitzak direla-eta jasandako kalteen berri emateko dei egin du Udalak

Otsaileko elurteen ondorioz apurtutako zuhaitzen jabeek martxoaren 18a baino lehen eman beharko dute jasandako kalteen berri. Ramon Ajuria alkateak sinatutako bando baten bidez jakinarazi diete herritarrei kalteen berri emateko aukera dutela. Bi bide eskaini ditu Udalak kalte horiek jakinarazteko: lehen aukera da udaletxera jotzea. Bestalde, Arabako Basogintza elkartera ere jo daiteke (Amelia: 686 13 18 00).

## ARETO FUTBOLA

**SAILKAPENA**

| | TALDEA | P | J |
|---|---|---|---|
| 1 | Colegio San Prudencio Bat | 41 | 16 |
| 2 | C.D. Lagran | 40 | 15 |
| 3 | Izar Gorri | 31 | 16 |
| 4 | Aramaixo | 28 | 15 |
| 5 | Autoescuela Gasteiz | 23 | 16 |
| 6 | Bar Uriarte | 19 | 16 |
| 7 | Alavesa Maquinaria | 19 | 16 |
| 8 | Arizmendi | 16 | 16 |
| 9 | Bar Copo | 15 | 16 |
| 10 | C.D. River | 14 | 16 |
| 11 | Bar La Paloma | 13 | 16 |
| 12 | Orlegi | 12 | 16 |

**EMAITZA**

Aramaixo 7 - 4 Izar Gorri

**PARTIDUAK**

HILAK 9, ZAPATUA
**17:45** Orlegi - Aramaixo
HILAK 10, DOMEKA
**18:00** Lagran-Aramaixo

### Bi partidu asteburuan, hirugarren posturako

Aramaioko taldeak bi lehia jokatuko ditu aste bukaeran. Bihar azken sailkatuaren etxean jokatuko du eta etzi atzeratutako lehia jokatuko du bigarrenaren aurka. Bi partiduak irabaziz gero, hirugarren postuan amaituko dute jardunaldia.

### Orixol elkarteari esker, mendi buelta eta sagardotegira irteera

Martxoaren 23rako antolatu du irteera Orixol elkarteak. Mendi buelta laburra egingo dute Donostia eta Pasaia artean, eta, ondoren, Astigarragako Bereziartua sagardotegian bazkalduko dute. Gehienez, 30 lagunendako lekua dago eta ordainketa egiten den ordenaren arabera beteko dira lekuak. Izena emateko azken eguna hilaren 17a da; 3035 0161 28 1611005178 kontu korrontean egin behar da ordainketa. Bazkideendako 35 euro; gainerakoek, 40.

### Korrikaren amaierako festan parte hartzeko izen-ematea zabalik

Martxoaren 24an Baionan egingo den Korrikaren amaierako festan parte hartzeko aukera dago oraindik. Zuiako Koadrilak autobusa antolatu du eta hilaren 15a baino lehen eman behar da izena, honako kontu korrontean ordainketa eginda: 2097 0224 98 0102679817. Ordainketa-agiria entregatu behar da udaletxean. 0 eta 3 urte artekoek doan bidaiatuko dute eta 4 urtetik gorakoek, berriz, zortzi euro ordaindu beharko dute. Autobusa 09:20an geratuko da kiroldegian.

ELGETA

# Horma-irudia, elkarretaratzea eta antzerkia Martxoaren 8rako

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Emakumeen Nazioarteko Eguna dela-eta hainbat ekitaldi daude iragarrita arratsalderako. Iaz bezala, horma-irudi erraldoia egiteko proposamena egin die Udalak herritarrei. Bideberri mankomunitatearen kartel lehiaketako lan onena aukeratzeko ere laguntza eskatu du. Kartelak —14 guztira— plazan egongo dira ikusgai, eta botoa ematen duten herritarren artean herriko denda eta jatetxeetan gastatzeko 50 euro zozketatuko dituzte.

Udalak elkarretaratzea ere iragarri du. Aurretik, txokolate beroa banatuko dute plazan, eta 22:30ean bi emakumezko protagonista dituen *Las Viudas* eta *Aitalia* antzezlan pieza motzak aurkeztuko dituzte Espaloia kafe antzokian, 22:30ean. Udaleko Gizarte Departamentuak lagundutako emanaldia da. Sarrera zazpi euro da eta bazkideendako, bost euro.



Herritarrak, iaz, Martxoaren 8an, horma-irudi erraldoia egiten. | L.Z.

**EGITARAUA**

**18:00** Kartel erakusketa, plazan.

**18:30** Horma-irudi erraldoia, plazan.

**18:45** Txokolate-jana, plazan.

**19:00** Elkarretaratzea, plazan.

**22:30** *Las Viudas* eta *Aitalia* antzezlanak, Espaloia

## Santiagoren erretaula ezagutzera emateko bi bisita gidatu antolatu dituzte

L.Z. | ELGETA

Parrokian dago Santiagoren erretaula. Italiar estiloko XVI. mendeko pieza da, eta Mankomunitateko Turismo Sailak bi bisita gidatu antolatu ditu *Ezkutuko altxorrak* izeneko programaren barruan. Bisitak eguerdian egingo dira, eta apirilaren 20rako eta maiatzaren 25erako iragarri dituzte. Prezioa bi euro da, eta aurrez izena emateko eskaera egin dute.

**'Ezkutuko altxorrak'**

*Inaziotar lurraldea* egitasmoaren barruan sortu dute *Ezkutuko altxorrak*. Izenak adierazten duen moduan, gertu ditugun eta ezagutzen ez ditugun piezak nabarmentzea da helburua.



Santiagoren irudia, erretaulan. | L.Z.

# Finalerdien aste bukaera izango da hau

L.Z. | ELGETA

Gizonezkoen ligaxka ere amaituta, areto futboleko bi txapelketetako lau finalerdiak jokatuko dira aste bukaera honetan. Azken orduko aldaketarik ez bada, zapatu eta domeka arratsaldean jokatuko dira bina partidu.

Bihar, zapatua, 18:00etan hasita, Jaitxo-La Kokotxa eta Gaztiak-Etxaon norgehiagokak jokatuko dira. Domekan, berriz, Astuan Villa-Txapela eta Bajaon-Bandoleira, 18:00etan hasita.



Astuan Villa taldea izan da indartsuena gizonezkoen ligaxkan. | L.Z.

**Gizonezkoen ligaxka**

Astuan Villa taldea nagusitu da, azkenean, gizonezkoen ligaxkan. Jaitxo taldearen moduan 15 puntu batu dituzte, baina gol aldea alde dute, eta lehen sailkatuak izan dira. Taulako hirugarren eta laugarren postuan daude La Kokotxa eta Txapela taldeak. Haiek ere puntu berdinketarekin. Ea finalerdiek zer ematen duten. Finalak noiz jokatuko diren zehazteke dago oraindik.

## OHARRAK

**KONTZERTUA ESPALOIAN**

Emon taldeak *Konfeti kolore* izeneko diskoa aurkeztuko du zapatuan, 23:00etan, kafe antzokian. ETS taldea ere bertan izango da. Sarrera sei euro da.

**MENDI IRTEERA**

Kantsatzeke mendi taldeak hilaren 17rako iragarri du hurrengo irteera. Lendoño-Tologorri (1.068 m)-Lendoño da ibilbidea. 08:00etan abiatuko dira plazatik. Izen-emateak, ohiko moduan.

**KIROLDEGIA**

Azken egunak Udalak lehiaketara atera duen kiroldegiko tabernarako izena emateko. Argibideak udaletxean.

**HITZALDIA GURASOENDAKO**

Baikarako Iñaki Saezek anaia-arreben arteko harremanak izango ditu hizpide hilaren 14an, 18:30ean, eskolan. Ludoteka zerbitzua egongo da.

## Mendi Federazioaren domekako irteeran parte har daiteke

Euskal Herriko iraupen luzeko zirkuituaren amaierako ekitaldia egingo du Federazioak domekan. Mendi irteera iragarri dute kiroldegitik 08:00etan abiatuta, eta bazkaria Espaloian. Ibilaldia da Elgetako-Intxorta-Erdella-Egoarbitza-Azkonabitza-Elgeta. 150 bat lagun daude izena emanda. Ekintza irekia da.

## Atlantikoa belaontzian zeharkatu zueneko abenturak Espaloian

Josu Guerra pasaitarra Elgetan izango da martxoaren 14an, eguena. Hondarribitik abiatuta Atlantikoa zeharkatu zuen Spirit of Anuk belaontzian orain dela bi urte. Kanariar Uharteak, Cabo Verde, Antilla Holandarrak... Abentura hori jasotzen duen ikus-entzunezkoa aurkeztuko du Espaloian, 19:00etan.

LEINTZ GATZAGA

# Nafarroako eta Bizkaiko txapeldunekin, bazkaria

### Martxoaren 16rako antolatu du bertso-bazkaria Leintz Gatzagako Korrika batzordeak

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Korrika badatorrela-eta, bertso bazkaria antolatu du Leintz Gatzagako Korrika batzordeak martxoaren 16rako. Ez da, gainera, edozelako bazkaria izango, Julio Soto eta Arkaitz Estiballes, hurrenez hurren Nafarroako eta Bizkaiko txapeldunak, izango dituzte-eta gonbidatu.

**Eguerditik iluntzera artekoa**

Egitarau borobila antolatu dute, gainera, ospakizun horren bueltan. Hasteko, 13:30 aldera herritarrak (eta bisitariak) kalera atera daitezela gonbidatu dituzte, "jai-giroan, herrian zehar umeekin-eta triki-poteoa egiteko, Eskoriatzako trikitilariek lagunduta. Herriko hiru tabernez gainera, Toki Eder elkarteak ere zabalduko ditu ateak tarte horretan, eta ez bazkideendako bakarrik, baizik eta herritar guztiendako; eta, gainera, pintxo berezi batzuk jartzeko asmoa dute", azaldu dute Korrika batzordetik. Kalerik kale ordubete inguruan ibili ostean, 14:30erako egin dute bertso bazkarirako hitzordua, Soran etxean, kasu horretan. Eta bapo bazkaldu ostean, 16:00-16:30 ingururako iragarri dute, berriz, Soto eta Estiballes bertsolarien saioa.

Egunari amaiera borobila emateko, ipuin kontalari batek txikitxoenen belarriak gozatuko ditu kultura etxean, ordubete inguruko saioan.

**Txartelak salgai**

Korrikako bertso-bazkari horretarako izen-ematea zabalik dagoela azpimarratu dute antolatzaileek: "Soran etxean daude salgai, eta bailarako edozein etor daiteke bazkarira. Hori bai, asko jota 60-70 lagunendako lekua izango da". Bi prezio jarri dituzte: 20 euroko menua nagusiendako eta 10 eurokoa umeendako (plater konbinatua).

# Martxoaren 8 berezia ospatuko du Sorginak Emakume Elkarteak

U.M. | LEINTZ GATZAGA

Sorginak Emakume Elkarteak 25 urteko ibilbidea egin du, eta, Martxoaren 8ko berezko ospakizunekin batera, zilarrezko ezteien ingurukoak ere landuko dituzte biharko, zapatua, egin duten hitzorduan. Gure Ametsa jatetxean elkartuko dira, 14:30ean. "Bazkariaren menuan izango dira entsalada, nahaskia, eta entrekota", esan du Rosa Urretak, Sorginak elkarteko kideak. Hori guztia, gainera, "prezio onean" emango dute. "Berez, izen-ematea asteon ixten da, baina azken momentuan izena emateko aukera badago. Labidea dendan egin behar da hori", adierazi du Urretak. Eta hark azpimarratu du, ohi den moduan, "Gatzagako emakume guztiak" daudela gonbidatuta.

**Bidaia berbagai**

Horrez gainera, Rosa Urretak jakinarazi du aurtengo bidaia nora egin ere komentatuko dutela. "Asmoa da bidaia berezia egitea, 25. urteurrenaren harira. Asteburu-pasak egin izan ditugu, baina elkartean emakumezko edadetuak daudela-eta, urteotan egun-pasak antolatu ditugu, batik bat. Oraingoan, urteurrena dela-eta, zerbait berezia egin gura dugu".

FUTBOLA

# Antzuola-Getaria: igoerari begira puntu garrantzitsuak

## Estala futbol zelaian jokatuko dute partidua bihar, zapatua, 15:30ean

MIREIA BIKUÑA | ANTZUOLA
Ohorezko Erregional Mailarako igoera lortzeko bidean, pauso garrantzitsua eman dezake Antzuolak bihar (15:45). Erregional mailako liderrak sailkapeneko bigarrenaren kontra, Getariakoren kontra jokatuko du Estalan. Bien arteko tartea bi puntukoa da, Antzuolaren alde. Kontuak garbiak dira: Juanina Garairen taldeak irabaziko balu, bost puntuko tartea izango luke, liga bukatzeko zazpi partiduren faltan. "Irabazten badugu, aurrerapauso garrantzitsua emango dugu. Ez da behin betikoa izango, baina bai pauso handia", esan digu Juanina Garaik.


Antzuolako Ander Arana, baloia astintzeko gertu. | IMANOL SORIANO

**"Bi talde indatsuenak"**
Estalan Getariako taldearen bisita izango du. Lehia parekatua eta gogorra izango da. Biek ala biek erakutsi dute mailako talde indartsuenak direla. Horren lekuko, adibidez, Antzuolak etxean partidu bakarra galdu duela. "Sailkapenak erakusten du talde indartsuenak garela. Liga hasieran emaitza onak lortu eta hasieratik lehia estua izan dugu. Dena den, Ordizia ezin dugu baztertu. Guk eta Getariak kale egiten badugu, igoerarako hautagaia izango da", esan digu Garaik.

Ohorezko Erregional Mailara igotzea ez zen denboraldi hasierako helburua. "Goiko lekuetan egon gura genuen. Baina, igoera lortzeko onena izan behar da, eta hori oso zaila izaten da 16 taldeko multzo baten eta joan-etorriko liga batean", diote Antzuola futbol taldekoek.

Luzera jakin bateko ligan erregularrenak lortzen du saria, eta Erregional Preferentean, oraingoz, antzuolarrak dira erregularrenak. Baina, badakite borrokan jarraitu behar dutela: "Azken partiduetan erlaxatu egin gara. Igoera eskura daukagu, eta urduri ipintzen hasi gara".

**Multzo bakoitzeko bana**
Ohorezko Erregional Mailan bi multzo daude: bakoitza 16 talderekin. Multzo bakoitzeko lehen taldeak lortuko du igoera. Bigarren sailkatuek euren artean jokatuko dute, hirugarren txartela eskuratzeko. Liga txapelketa maiatzaren 12an bukatuko da.

ESANAK

**"Ez dira puntu erabakigarriak, baina bai oso garrantzitsuak"**
JUANINA GARAI | ENTRENATZAILEA

### Bergara-Mondra derbia Agorrosinen

Ohorezko Erregional Mailako Bergarak eta Mondrak derbia jokatuko dute bihar, zapatua, Agorrosinen. Biak ala biak lasaiago irtengo dira zelaira, aurreko aste bukaerako partiduak irabazi ostean: mahoneroek Lesakan (0-1) eta arrasatearrek Aloñaren kontra (1-0). Bestalde, Aloñak Azkoagainen jokatuko du Touringen kontra domekan eta UDAk Zumarragan jokatuko du Urolaren kontra zapatuan.

MENDIKO BIZIKLETA

## Bergarako gaueko mendiko bizikleta martxarako izen-ematea zabalik

M.B. | BERGARA
Bergarako Basque Adventure enpresak antolatutako gaueko mendiko bizikleta martxako izen-emate epea zabalik dago. Interesatuek *www.basqueadventure.com* atarian egin dezakete inskripzioa. Federatuek 12 euro ordaindu behar dute eta federatu ez direnek, 17. "Oraingoz, 70 bat lagunek eman dute izena, baina 200 onartuko ditugu, gehienez", esan dio GOIENAri Iker Osa antolatzaileak.

Martxa apirilaren 27an egingo dute. Bergarako kiroldegian hasiko da, 21:30ean, eta leku berean bukatuko dute. Agorrosinen dutxak, luncha eta bizikletak garbitzeko gunea egongo dira.

**Berrikuntza: hiru ibilbide**
Bigarrengoz egingo duten probak –lehena, iazko abuztuan egin zuten– berrikuntza bat dauka: luzera ezberdinetako hiru ibilbide zehaztu dituzte: 22, 32 eta 38 kilometrokoak. "Parte-hartzaile bakoitzak aukeratu beharko du egin gura duen ibilbidea. Dena den, ibilbideak elkarren artean lotuta daude", dio Osak. Parte-hartzaileek bete beharreko baldintzak dira: 16 urte beteta izatea eta argia (frontala edo fokua) eta kaskoa eramatea.

PILOTA

## Dorleta pilota txapelketa martxan, 540 parte-hartzailerekin

+ | ESKORIATZA
Dorleta pilota txapelketa martxan dago. Mauri Zubillagak antolatzen duen txapelketaren lehen partiduak hilaren 3an jokatu zituzten Leintz Gatzagako frontoian. "Iazko erantzuna eta balorazioa oso onak izan ziren. Aurtengo erantzuna ere oso ona izan da", esan digu Zubillagak.

Aurrerantzean, 20 jardunaldi jokatuko dituzte, uztailaren 31ra arte. Tarte horretan, domekero izango dituzte partiduak. Abuzturako ez dute partidurik antolatuko. Hori horrela, finala irailean izango da, Dorletako Amaren omenezko jaietan.

Guztira, 15 herri edo elkartetako 540 pilotari lehiatuko dira Dorleta pilota txapelketan, bost mailatan banatuta: beteranoak, seniorrak, benjaminak, alebinak eta infantilak.

Bi elkarte bizkaitarrak dira, lau arabarrak, bederatzi gipuzkoarrak eta bi nafarrak.

**Domekako partiduak**
Etzi, domeka, Dorleta pilota txapelketako bigarren jardunaldia jokatuko dute, 09:00etan. Jarraian dituzue partiduak: beteranoetan, Aizpuru-Bengoa (Gatzaga), Arana-Etxagibel (Arrasate); infantiletan, Sagasta-Iraolagoitia (Elorrio), Madrazo-Martinez (Gasteiz), eta Cuevas-Azkoitia (Azkoitia), Tijera-Gartzia (Bergara); alebinetan, Mendez-Azpiroz (Altsasu), Irañeta-Peralta (Elorrio); benjaminetan, Garitano-Otxandiano (Arrasate), Eguren-Gallastegi (Elorrio), eta Olaizola-Arriolabengoa (Aramaio), Rubinos-Urresti (Amurrio); eta seniorretan, Ansa-Otamendi (Altsasu), Goikolea-Mendibil (Amurrio).


Pilotariak, iazko Dorleta pilota txapelketako finalean. | GOIENA

ESKUBALOIA

### Lehen lekuan jarraitzeko irabazi beharra dauka Ford Mugarrik Usurbilen kontra: bihar, 18:15ean, Iturripen

Pablo Gartziaren taldeak sailkapenaren erdian dagoen Atez Ate Usurbilen bisita izango du Iturripen (bihar, zapatua, 18:15). Bi taldeen arteko puntu aldea handia den arren, arrasatearrek ezinbestean irabazi behar dute lehen lekuan jarraitzeko. Askartza bigarrenak baino puntu bakar bat gehiago dute.

ESKUBALOIA

### Azken partiduan puntu bakarra irabazi ostean, Soraluze BKEk hirurak lortu gura ditu Urdulizen

Soraluze BKEk irabazi egin gura du Urdulizen kontra (bihar, zapatua, 19:30). Egiaren kontra puntu bakarra lortu ondoren, hirurak behar ditu Josetxo Muniategiren taldeak. Bergararren eta urduliztarren artean sei puntuko aldea dago sailkapenean. Hori horrela, mahoneroek ez lukete arazorik izan beharko norgehiagoka irabazteko.

ESKIA

### Askotariko eski irteerak hurrengo asteburuetarako Pol-Pol, Besaide eta Aloña Mendiko eski sailarekin

Askotariko eski irteerak daude aukeran. Bergarako Pol-Polek eski zeharkaldia egingo du martxoaren 16-17ko aste bukaeran, Val d'Aranen; izena emateko azken eguna hilaren 12a izango da. Bestalde, Besaidek Formigalera egingo du irteera aste bukaera berean; izena, astelehenetik eguaztenera, Besaiden. Azkenik, Aloñak Pazko asterako egin du plana, Alpeetara; izena emateko: *leireguene@yahoo.es* edo 649 31 50 15 telefonoa.

MENDIKO BIZIKLETA

# Euskadiko Openeko lehen proba Aramaion jokatuko dute domekan

Patxi Cia, Diego Latasa eta Ismael Esteban dira ziklista aipagarrienak

MIREIA BIKUÑA | ARAMAIO

Mendiko bizikletako Euskadiko Opena Aramaion hasiko dute etzi, domeka. Puntuagarria den lehen lasterketa jokatuko dute Barajuen auzoko parajeetan. Gainerako sei probak Erandion (apirilak 14), Bilbon (maiatzak 5), Legution (ekainak 9), Zallan (ekainak 30), Oiartzunen (uztailak 13) eta Zegaman (irailak 9) egingo dituzte.

Orixol Mendi Elkarteak eta Aramaioko Udalak antolatutako proban 130 bat parte-hartzaile espero dituzte, eta hainbat mailatan banatuko dira: eliteak, 23 urtez azpikoak, emakumeak, master 30ak, master 40ak, gazteak eta kadeteak.


Zigor Urain (29), iazko proban, maldan behera. | ALEX MENDIKUTE

**Bost kilometroko ibilbidea**

Goizeko hamaiketan hasiko dute proba Azkoaga auzoan. Lehen metroak asfaltoan egin ondoren, segituan sartuko dira Barajuen auzoko mendi-pista eta bidexketan. Elite, master 30 eta 23 urtez azpiko mailetakoek bost itzuli egin beharko dizkiote bost kilometroko ibilbideari. Gainerako lau mailetakoek hiru itzuli egingo dituzte.

**Debagoieneko ordezkariak**

Antolatzaileek 130 bat parte-hartzaile espero dituzte. Asko, maila handia dutenak. Elite mailarako hiru izen azpimarratu behar ditugu: Patxi Cia gipuzkoarra, Diego Latasa nafarra eta Ismael Esteban kantabriarra. "Ezustekorik ez badago, euren artean egongo da irabazlea", esan digu Martin Arriolabengoa antolatzaileak.

Dena den, kontuan hartu beharreko izen gehiago ere badaude: debagoiendarrak direlako, eta horietako batzuk, etorkizuneko ziklistak. "Alex Aranburuk eta Julen Axpek gogor entrenatzen dihardute. Ea, bada, zer egiteko gai diren", dio Arriolabengoak.

Iñigo Roldan, Zigor Urain, Aritz Kortabarria eta Asier Beitia dira gure beste ordezkariak.

DATUA

**130**

ZIKLISTA

Horiek dira antolatzaileek domekarako espero dituzten parte-hartzaileak.

**Iñaki Lejarreta, gogoan**

Antolatzaileek ez dute ahaztu abenduaren 16an hildako Iñaki Lejarreta. Urte askoan parte hartu izan du Aramaioko mendi bizikleta txapelketan. Ama aramaioarra zuen Lejarretak. "Iaz ez zen egon gurekin, baina orain bi urte bai. Haren heriotza kolpe gogorra izan zen guretako. Ez dugu omenaldi berezirik egingo, baina haren oroimenezko proba izango da", esan digu Arriolabengoak. Horren lekuko, proba iragartzeko kartela: Iñaki Lejarretaren irudia erabili dute.

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

**FUTBOLA**

**EMAKUMEZKOEN BI. MAILA**
Mondra-Eibar
Zapatua. 16:00. Mojategi.

**EUSKAL LIGA, EMAKUMEZK.**
Arizmendi-Mariño
Zapatua. 15:30. Ibarra.

**EUSKAL LIGA, GAZTEAK**
Hernani-Aretxabaleta
Zapatua. 18:30. Zubipe.

**OHOREZKO ERREGIONALA**
Bergara-Mondra
Zapatua. 16:30. Agorrosin.
Urola-Aretxabaleta
Zapatua. 16:00. Argixao.
Aloña Mendi-Touring
Domeka. 16:30. Azkoagain.

**ERREGIONAL PREFERENTEA**
Antzuola-Getariako
Zapatua. 15:45. Estala.

**LEHEN ERREGIONALA, IGO.**
Aretxabaleta B-Gure Txokoa
Domeka. 16:30. Ibarra.

**LEHEN ERREGIONALA, KOPA**
Arizmendi-Zumaiako
Zapatua. 17:30. Ibarra.
Bergara-Soraluze
Zapatua. 18:00. Ipintza

**OHOREZKO GAZTEAK**
Urola-Mondra
Zapatua. 18:00. Argixao..
Bergara-Ordizia
Domeka. 16:30. Ipintza.
Burumendi-Aloña Mendi
Zapatua. 18:00. Garmendipe.

**GAZTEAK 1. MAILA, IGOERA.**
Pasaia-Aretxabaleta B
Zapatua. 18:45. Don Bosco.

**GAZTEAK 1. MAILA, KOPA**
Bergara-Idiazabal
Domeka. 11:30. Ipintza..

**OHOREZKO KADETEAK**
Amaikak Bat-Aloña Mendi
Zapatua. 12:00. Errotazar.
Ordizia-Bergara
Zapatua. 16:00. Altamira.
Lazkao-Aretxabaleta
Zapatua. 12:00. Arizti Handi.
Arrasate-Urola
Domeka. 10:00. Mojategi.

**KADETEAK, KOPA**
Arizmendi-Aretxabaleta
Zapatua. 11:00. Almen.
Urki-Antzuola
Zapatua. 11:00. Eibar.
Bergara-Arrasate
Zapatua. 11:45. Ipintza.

**ARETO FUTBOLA**

**EUSKADIKO TXAPELKETA**
EHU Araba-Eskoriatza
Zapatua. 17:30. Gasteiz.

**ESKUBALOIA**

**EUSKADIKO TXAPELKETA**
Ford Mugarri-Atez Ate Usurbil
Zapatua. 18:15. Iturripe.
Urduliz-Soraluze BKE.
Zapatua. 19:30. Urduliz.

**SASKIBALOIA**

**EBA MAILA**
Natra Oñati-Estela
Zapatua. 18:00. Zubikoa.

**LEHEN NAZIONAL MAILA**
Biok-MU
Zapatua. 18:00. Ordizia.


JOSETXO ARANTZABAL

**ERRUGBI TOPAKETAK** Gipuzkoako Errubgi Federazioak antolatuta, alebin eta benjamin mailetako 130 neska-mutiko elkartuko dira domekan Mojategin.

SASKIBALOIA

# Hondarribia-Irun emakumeen saskibaloi taldeak entrenamendua egingo du gaur Eskoriatzako kiroldegian

Aurretik, jolasak eta argazkiak egingo dituzte saskibaloi eskolako jokalariekin

M.B. | ESKORIATZA

Manolo Muñoz zenak eta Txingudi Saskibaloi Elkarteak urtetan izandako hartu-emanaren ondotik dator gaurko entrenamendua. Eskoriatza Kirol Elkarteak urtetan sendotu duen adiskidetasuna oinarri hartuta, emakumezkoen gorengo mailan jokatzen duen Hondarribia-Irun taldeak entrenamendua egingo du Eskoriatzako kiroldegian gaur, egubakoitza, 20:00etan. "Goi mailako taldearen entrenamendua kirol hitzordua da, baina martxoaren 8an egin gura izan dugu, egun horri keinu bat egiteko", esan digute Eskoriatza Kirol Elkartekoek.


Hondarribia-Irun taldeko jokalariak eta entrenatzaileak. | TXINGUDI SASKIBALOIA

**Argazkiak eta jolasak**

Hondarribia-Irun taldearen bisita saskibaloi eskolako nesken entrenamenduarekin bateratu gura dute. Lehen mailako jokalariak 20:00 aldera irtengo dira kantxara. Ordurako, kadete mailako neskak entrenatzen egongo dira. Eurekin argazkiak eta jolasak egin ondoren, Hondarribiko jokalariek euren prestaketa saioa egingo dute.

Bukatzeko, partidu bat jokatuko dute, eta horretan parte hartuko dute Eskoriatzako gazte eta senior mailetako jokalariek. Ekitaldia irekia da zale guztiendako.

SASKIBALOIA

# Bolada txarra bukatu gura du Natra Oñatik bihar

Estelaren kontra irabazi beharra dauka lehenengo lekuari eusteko (Zubikoa, 18:00)

M.B. | OÑATI

Natra Oñatik irabazi egin behar du, "bai ala bai". Azken lau partiduak jarraian galdu ostean, "finala" dauka Estelaren kontra (Zubikoa, 18:00). "Irabaztea garrantzitsua litzateke kirol arlotik begiratuta; baina, bereziki, arlo psikologikorako. Puntuak behar ditugu. Bihar irabazten badugu, Aste Santura lehen lekuan heltzeko egoeran ikusten dut taldea", esan digu Eneko Blanco entrenatzaileak.

**Arlo psikologikoa**

Santurtzi, Salamanca, Burgos eta Zornotzaren kontra galdu ostean, arlo psikologikoa landu dute asteon. "Santurtziren kontra 40 puntuko aldearekin galtzea inflexio-puntua izan zen guretako. Porrotak min handia egin zigun. Asteon arlo psikologikoa landu dugu. Garbi utzi diet jokalariei gure esku dagoela bolada txarra bukatzea", dio Blancok.

Garaipen hori, baina, Estelaren kontra lortu beharko dute. "Liga hasieran, Zornotzarekin batera gure multzoko talde indartsuenetakoa zen. Baina lehen itzuli eskasa egin zuten. Gabonetan entrenatzailea aldatu zutenetik, asko hobetu dute. Hiru partidu irabazi dituzte jarraian, azkena Zornotzaren kontra", dio Blancok.

**MUk, Ordizian**

Aurreko aste bukaeran liderra menderatu ostean, lasaiago jokatuko du Mondragon Unibertsitateak Ordizian: Biok taldearen kontra lehiatuko da.

# Bazkideentzat abantaila esklusiboak



## Eraman ezazu beti txartela aldean!

## GOIENA KLUBEKO BAZKIDEEI HONAKOA DUGU ESKAINTZEKO MARTXOAN

### ADI EGON!

GOIENA Klubeko **4.000 bazkideon artean** martxoan honakoa zozketatuko dugu.

aisia HOTELES DEBA



### 3 BONO

Aisia Deba hotelean 2 pertsonarentzako gaua ostatuan, buffet-gosaria eta zirkuitu termala.

### 3 BONO

Aisia Deba hotelean 2 pertsonarentzako relax gastronomikoa (bazkaria enkantuarekin eta spa zirkuitua).

**Parte hartzeko**

BaserriSarea
Korrika
Arrikrutz
Alabatxo
Romeo

**SMS:** KLUBA [SARIAREN IZENA] [bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira
**Telefonoz:** 943 25 05 05
**E-postaz:** *kluba@goiena.com*
**WhatsApp bidez:** KLUBA [SARIAREN IZENA] [bazkidearen zenbakia]688 69 00 08 zenbakira.

**Parte-hartzaile guztien artean zozketatuko da.**

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

### BASERRISAREA .COM

DEBAGOIENEKO BASERRI SAREAri esker baserriko produktuez osoturiko 4 otar zozketatuko ditugu.



### KORRIKA

KORRIKAko materiala dugu GOIENA KLUBEKO bazkideen artean zozketatzeko (kamisetak, polarrak...)



### ARRIKRUTZ

Hilero bezala, Arrikrutz kobak bisitatzeko, 6 sarrera zozketatuko ditugu.



### ANTZERKIA

Bi antzerki hauetako bina sarrera ditugu zozketatzeko.
Arrasateko Amaia Antzokia:
Martxoak 16, 17:00etan Alabatxo haur antzerkia
Martxoak 24, 19:30ean Romeo antzezlana (Teatro Meridional)





### EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA

**2 erosi 1 ordaindu.**
Eureka! Zientzia Museoko eta planetariumerako sarrera bat erosi eta prezio bereko edo merkeagoko beste bat jasoko du doan.

Izena: ..........................................
Abizena: ..........................................
Bazkide Zenbakia: ......................

Kupoi horien balio-epea 3 hilabetekoa izango da.

**DESKONTUAK:** ***www.goienakluba.com***

NINIKA · ALZU · Esko Sport · JAIXAK · LILURA Edertze Institutua · lastai
AVIA · BEGIONDO · Etxe-Aundi · gahir · GAES · Gedeguztiz · naren
MULTIÓPTICAS · ARRIKRUTZ · IMPRESPAL · kuttuna · TXURI-URDIN
Biotika · caravanas oñate · AQVARIVM · OÑATI GARAJEA · eureka! zientzia museoa · argia



## Beste abantaila batzuk:

- Astelehenetan eta ostiraletan *Goiena* papera buzoian.
- Deskontuak iragarki sailkatuetan eta eskeletan.

**goienakluba** Abantailaz betetako kluba!

Urteko kuota: **50 €.**
**943 25 05 05**
*kluba@goiena.com*
*goienakluba.com*

# KULTURA



Iaz Uarkape pilotalekuan egin zuten 25. edizioan ipuin musikatua egin zuten. | GOIENA

# Eskolarteko abesbatzen topaketan, Disneyri kantuan

- Arizmendik antolatuta, Amaia antzokian izango da bihar, 17:00etan
- Arizmendi eta Txantxiku ikastoletako 200 haur izango dira kantuan

**A. ARANBURUZABALA** | ARRASATE

Debagoieneko 200 ikaslek parte hartuko dute bihar, zapatua, Arizmendi Ikastolak antolatutako eskolarteko abesbatzen 26. topaketan. Arizmendiko gune ezberdinetako ikasleez gainera, Oñatiko Txantxiku Ikastolako abeslariak ere izango dira taula gainean.

Azkeneko edizioak Uarkapen izan badira ere, biharkoa Amaia antzokian izango da, 17:00etan. Sarrerak bihar izango dira salgai, hiru eurotan, Amaia antzokiko leihatilan, 15:30etatik aurrera.



Arizmendi Ikastolako Arimazubi guneko LMH taldeko kideak. | ARIZMENDI

### Disneyri euskaraz kantuan

Urtero zerbait berria eskaini guran eta iazko edizioan egin zuten ipuin musikatuaren harrera ona ikusita, oraingoan, parte hartu duten talde guztiei gai komuna proposatu die antolatzaile taldeak: Disneyren pelikuletako kantuak, hain zuzen ere. "Kantu originalak hartu eta euskaraz kantatzeko proposamena egin genien; oso esperientzia polita izan da, haurrek, betiere irakasleen laguntzarekin, kantuen letrak asmatu behar izan dituzte -eta. Kantuaren nota edo silaba bakoitzari hitzak jarri dizkiote, horien artean, 5 urteko haurrek", azaldu du Maider Idigorasek, Arizmendiko Olarte guneko irakasle eta antolaketa taldeko kideak.

Hasierako kantu aukeraketa, baina, antolatzaileek bideratu zuten: "Disneyren kantuen liburuxka bat genuen, eta handik, kantarien adinaren eta kantuaren zailtasunaren araberako aurre-aukeraketa egin genuen".

Hori horrela, honako abesti ezagunekin osatu dute, bada, biharko topaketaren errepertorioa, hurrenez hurren: Arrasateko Umezaintza guneko haurren ahotik, *Mickey-ren martxa* eta *Superkalifragilistikoexpialidoso* entzungo dugu; Arimazubiko guneko Lehen Hezkuntzakoek, *Pocahontas*-en *Haizearen koloreak* eta *Lamiatxo*-ren *Ur azpian;* Txantxiku Ikastolakoek, berriz, *Piztia eta ederra*, batetik, eta *Edurnezuri eta zazpi ipotxak*-en *Heigh ho!* gero; Almen gunekoen txanda izango da gero, *The Family Trap*-en *Elkar gaitezen* eta *Oihaneko ipuina*-ren *Beharrezko premiak* kantuarekin; eta, handienen txanda bukatzeko, Almen eta Gaztelupe BHkoek, *Aladdin*-en *Mundu berri bat* eta *Oihaneko Erregea*-ren kantuaz. Emanaldia borobiltzeko, guztiek elkarrekin, ikusleak ere kantuan jartzeko asmoarekin, aurrez oñatiarrek abestutako *Heigh ho!* kantuarekin itxiko dute 26. edizioa.

### 200 ikasle taularen gainean

Besteetan moduan, gonbidapena ikastetxe guztietara zabaldu duten arren, aurten oñatiarrek bakarrik eman dute baiezkoa; 200 ikasle izango dira agertokian.

Antolatzaileek bereziki eskertu gura izan dute haurrek zein abesbatzak zuzentzen dituztenek biharko ikuskizunerako egindako sakrifizio eta ahalegina, aipatzekoa da-eta eskola orduetatik kanpo entseatzen dutela.

---

**JOSU ZUBIA**
TXANTXIKU IKASTOLA

## "Egindako lana kanpoan erakusteko erakusleiho ona da topaketa"



JOSU ZUBIA

Josu Zubiak eskarmentua du musikagintzan. Abeslaria eta konposatzailea da eta baita Txantxiku Ikastolako abesbatzako zuzendaria ere.

**Zer moduz moldatzen zara zuzendari lanetan?**
Ikasturte hasieratik nabil gustura ikastolako bi abesbatzekin lanean. Iñaki Barrena irakasleak gidatu izan du kantu tailerra, eta aurten, Ganbara Abesbatzarekin elkarlanean gauzatzen hasi gara. Ganbarako kidea naiz, eta, zuzendaritza ikasketak eginda ditudanez, niri eskaini zidaten ardura hori. Eguazten eguerdietan, eskola orduetatik kanpo entseatzen dugu.

**Zer deritzozu eskolarteko topaketari?**
Oso positiboa da, nire ustez; etxean egiten den lana kanpoan erakusteko erakusleiho apropasa da. Entseguetan egindako ahaleginaren oparia. Sekulako ilusioarekin gaude bihar Arrasatera joateko; atera berri ditugun kamisetak estreinatuko ditugu, gainera!

---

## Lehiaketa zena, orain topaketa

**San Frantzisko Xabier Ikastola hasi zen antolatzen hasiera baten abesbatzen lehiaketa zena. Arizmendi sortutakoan, antolatzeko ardura bere gain hartuta, lehiakortasunaren gainetik topaketa izaera eman zion, haurrek musikarekin ondo pasatzea helburu nagusi bilakatuta.**

**Parte-hartzaile guztiak izango dira, beraz, bihar ere irabazle, eta, krisiak jotako garaietan bagaude ere, guztiek izango dute bihar oparitxoa: abesbatza bakoitzeko zuzendariak lore sorta bana jasoko du eta talde bakoitzak, berriz, merienda goxo bat egin edo irteera bat egiteko aukera emango dion dirutxoa, hain zuzen ere.**


Dark Code taldeko kideak | DARK CODE

# Dark Code musika talde bergararra, Wacken Metal Battle lehiaketan

Finalera iritsi dira eta orain irabaztea dute helburu, Alemaniara abiatzeko

MAITE FRAILE | BERGARA
2009. urte amaieran sortutako talde bergarararraren erronka nagusia da abuztu hasieran izango den Alemaniako Wacken Open Air jaialdian izatea. Death metal melodiko taldea da.

Horretarako, Espainia mailako Wacken Metal Battle lehiaketa irabazi beharko dute lehenengo.

**Finalera bigarren aldiz**
Martxoaren 2an lortu zuten finalera bidaiatzeko txartela. Asturiasko Turon herrian jo zuten beste lau talde euskaldunekin batera: Elbereth, 13 left, To Die eta Incursed-ekin, hain zuzen ere. Garaile izan ziren euren death metal melodiko musikarekin, eta, horrenbestez, Bartzelonako Liverpool aretoan izango dira apirilaren 6an.

Finalean Espainia osoko beste zortzi talderekin izango dira: In Mute, Vrademargk, Tralley, Anbil of Doom, Grapeshot, Kitsune Art, Crystal Moors eta Blast Open Odiat. Bada, epaileak limurtu eta bereganatzea lortzen duena izango da irabazlea, Alemaniako Wacken Open Air-era joateko.

Bigarren aldia da finalera iristen direna, lehengo aldiz 2011.urtean iritsi baitziren. Horrenbestez, taldea izugarrizko gogo eta ilusioarekin dago irabazteko.Honela adierazi digu Jon Elortza gitarra-jotzaileak: "Bigarren aldiz iritsi gara, eta, Espainian aurkeztu arren, irabaztea izugarria izango litzateke".

### HURRENGO KONTZERTUAK

**Martxoaren 16an**
Gernikako Gaztetxean.

**Martxoaren 23an**
Zaragozako Utopia aretoan.

**Apirilaren 6an**
Bartzelonako Liverpool aretoan.

**Apirilaren 13an**
Laudioko Drumgorri aretoan.

**Apirilaren 26an**
Guadalajarako Bumerang aretoan.


Abeslaria. | DARK CODE

# 'Las Viudas' eta 'Aitalia' antzezlanak asteburuan

M.F. | ARRASATE
Emakumeen Nazioarteko egunaren harira antolatutako bi antzezlan ikusteko aukera izango dugu bailaran.

Hala, Elgetako Espaloia antzokian gaur, barikua, izango dugu lehen emanaldiaz gozatzeko aukera, 22:30ean hasita. Ordu erdiko bi saio izango dira. Nuria Colorado eta Montserrat Rodriguez aktoreak progonista diren bi antzezlan eskainiko dizkigute: *Las viudas* eta *Aitalia*.

Bergaran, berriz, Zabalotegin, zapatuan izango dira umorea eta drama uztartzen dituzten antzezlanak.



Antzerkiaren kartela. | PIKUPE

# Francis Alun Bell eta Saioa bakarlariak Kulturaten

Musika bereizgarriko emanaldiak eskainiko dizkigute: instrumentala eta folk–rocka

M.F. | ARRASATE
Francis Alun Bell lisboarrak eta Saioa legorretarrak emanaldia egingo dute martxoaren 9an, zapatuan, Kulturaten, 20:00etan.

**Bakarlariak ezagutzen**
Portugalgo Francis Alun Bell musika talentu eta adimen bereziko gizona da. Pianoa oinarritzat duten abesti instrumentalak konposatzen ditu, eta bere melodia entzulearentzat oso gogorazle gertatzen da. Horrez gain, minimalismoa eta elektronika ere jorratzen ditu eta lan guztiak 28 abestiz osaturiko disko bakarrean biltzen du lisboarrak.

Bestalde, Legorretako Saioaren folk eta rock emanaldia izango dugu. Saioak *Natura* izeneko diskoa aurkeztuko digu zapatuan. Joseba Irazokik ekoitzitako diskoa da eta bertan, Saioaz gainera, Felix Buff -ek eta We are Standard-eko Jaime Nietok hartzen dute parte.


Francis Alun Bell bakarlaria. | MOONPALACE RECORDS

# Emon taldeak 'Konfeti kolore' disko berria aurkeztuko du Elgetako Espaloian zapatuan

Martxoaren 9an, zapatuan, 23:00etan izango da diskoaren aurkezpena eta ondoren, ETS ( En Tol Sarmiento) musika talde arabarrak joko du

M.F.| ELGETA
Ska, fusioa eta musika latindarra jorratzen dituen talde bergararra da Emon. Ohikoa den moduan, ska taldeek taldekide asko izaten dituzte, eta hau ez da gutxiago izango. Sei kidek osatzen dute: Eneko (abeslari nagusia eta gitarra), Aritz (trikia), Ekaitz (bateria), Isusko (tronboia), Andoni (tronpeta) eta, azkenik, Anderrek (bajua).

Helburu nagusia ongi pasatzea zuten, jolas modura, baina egun, taldea egonkortu egin da eta ospeari eutsi behar diote ahalik eta itxurosoen. Horrela, gaur arte, Baga Biga diskoetxearen eskutik bi disko argitaratu dituzte: *Piztu herria (2010)* eta *Konfeti kolore* (2013).


Emon taldeko kideak. | EMON TALDEA

**Kolore askotariko musika**
*Konfeti kolore* disko berria aurkeztu zuten otsailaren 28an Bilbon, komunikabideen aurrean. Dantza eta une oro festa antolatzeko egina. 12 abestiz osaturiko disko berria da bigarrena, eta singleak diskoaren izen bera dauka. Musika beroa eta askotariko erritmoetan murgildurikoa, hala nola ska, reggae-ska, runba, cumbia, salsa, tex-mexa, rocka, pop-rocka eta mundu latindarreko soinuak.

**Aurkezpena, 'etxean'**
Taldekideak diskoa aurkezteko gogotsu daudela esan digu Aritz Alustizak: "Gogo eta ilusio handiarekin gaude; gainera, Espaloia antzokia gustuko dugu eta inguruko jende dezente hurbiltzea espero dugu. Ardura handiz hartzen dugu *etxean* aurkeztea eta saiatuko gara festa ederra antolatzen. Ea hirugarren diskoa Bergarako kafe antzokian aurkezteko aukera dugun".

**Kontzertuak**
Elgetan izan ondoren, martxoaren 16an Tolosako Bonberenean izango dira eta 23an, Zornotzako Zelaietan. Apirilari dagokionez, 6an Oiartzungo Pagoan joko dute Bizardunekin batera eta 11n, Gasteizko Gaztetxean.

# Korrika badatorrela eta, berotzeko, agenda kulturala bete egingo da

Hilaren 16ko asteburuRako, barikutik domekara, egitarau zabala dago

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Martxoaren 14an hasiko da Korrika, Andoainen, eta egun horretan bertan Bergaran pintxo-poteoa egingo dute, hasteko. Ibarretik hilaren 20 eta 21 arteko goizaldean igaroko da, baina, horrez gain, egun handia 16koa ere izango da. Lehenago, musikazaleek puntako jaialdia izango dute, martxoaren 15ean, Oñatin, Gaztelekuan, Anai Arrebak eta Kerobia taldeekin.

**Korrika asteburua**

Arineketan egin aurretik, aurreko asteburuan Korrika Kulturalak lagunduko du eguaztenerako beroketa lanak egiten. Eskoriatzan, 15ean, kontzertua egongo da, Inkernun 23:00etan, baina egun handia hurrengoa izango da. Zapatu goizean (11:30) Korrikaren arropa salgai izango dute plazan eta gero bazkaria egongo da. Bazkalostean *Eskotribiala* lehiaketa egingo dute (14:30) eta arratsaldean ume eta gazteentzako jolasak egingo dituzte eta taloak jateko aukera ere egongo da(17:00). 18:30ean arropa



Arkaitz Estiballes. | BERTSOA.COM

salmentarekin jarraitu eta 19:00etan kantu-pintxo-poteoa hasiko da. Oñatin ere zapatuan egun osorako plana daukate. Goizez Oñatz taldekoek aurkezpen dantza egingo dute, eta, girotzeko, txaranga ibiliko da herrian plazako material salmentarekin batera. Herri bazkaria ere ez da falta izango. Berdura plazan izango da bazkaria eta txartelak salgai daude Gaztelekuan, Onan, Pakelekun, Arranon eta Ongin. Horren ostean, bertsolariek jardungo dute. Arratsaldean, herri kirola egongo da eta gauean herriko taldeek joko dute Gaztetxean.

**Bertso-bazkaria Gatzagan**

Gatzagarrek bertso-bazkariarekin berotuko dute giroa. Soran Etxea jatetxean izango da, 16an baita ere, eta Arkaitz Estiballes eta Julio Soto bertsolariak egongo dira. Txartelak Soranen eta Labidea tabernan eros daitezke (20 euro helduek; umeek, 10 euro).

**Korrika Txikia**

Martxoaren 20an, Korrika *handia* baino lehenago, gaztetxoenek Korrika Txikian esku hartzeko aukera izango dute, ohi moduan. Oñatin 14:30ean hasiko da, Foruen plazatik, eta amaieran txokolatea banatuko dute Pago Uso eta Makalena elkartekoek. Eskoriatzan 15:30ean izango da Korrika Txikiarekin hitzordua, eta, horren ostean, txokolatea eta DJak izango dituzte. Bergaran San Martin eskolan 15:20an hasi eta, hemen baita ere, txokolatea eta jolasak izango dituzte gero. Korrika ofizialari dagokionez, Elosutik (Bergara) sartuko da Debagoienera, 00:00etan.



Kerobiak hilaren 15ean joko du Gaztelekuan. | KEROBIA.COM




# 'Baserrisarea.com' webgunean Debagoieneko produktuak erosteko aukera eskaintzen dute

'Baserrisarea.com' Debagoieneko landa eremuaren erakusleihoa da; bertan, ibarreko baserritarrek euren produktuak webgunearen bitartez saltzeko aukera dute.



> Webgunean, *on line* dendan, bederatzi ekoizleren produktuak daude, eta, horretaz gain, 24 baserritarren fitxa informatiboak ere badaude, zuzeneko harremana egiteko.

Itziar Urizarbarrena arduratzen da Deba Garaia Landa Garapenerako Elkarteak zuzendutako proiektua dinamizatzeaz. Webgunearen helburuetako bat landa ingurua teknologia berrietara gerturatzea da.

**Zeintzuk dira *Baserrisarea.com* webguneak dituen atalak?**

Hiru dira: landa eremuari buruzko informazioa, *on line* tramiteak eta produktuen salmenta puntu bat. Azken honek bi aukera ditu: batetik, denda dago, erosketa egin eta ordaintzeko; eta, bestetik, zuzeneko harremana nahi duenarentzat, ekoizleei buruzko informazioa eta kontakturako bideak fitxategian jasotzen dira. Azoka eta kontsumo taldeen informazioa ere badago; hala, bertako produktuak erosteko ohiko moduak erakusten dituen leihoa ere bada.

**Ze produktu daude salgai?**

*On line* dendan, oraingoz, bederatzi ekoizle daude. Kiwiak, gaztak, txakolina, kontserbak, haragia eta babarrunak daude. Kiwiak bere sasoian saltzen dira eta haragia, aldiz, eskaintzaren arabera. Fitxetan, 24 baserritar, eta produktuen gama zabalagoa da. Hemen sasoiko produktuak eskura daitezke, baserritarrarengandik zuzenean. Ateak irekita dituzte ibarreko baserritar eta ekoizleek.

**Kontsumitzaileengana heltzea errazagoa da?**

Ez da batere erraza. Jendeak badu interesa, baina erosketa *on line* egiteko urratsa falta da. Dena dela, garrantzitsua iruditzen zaigu lehenengo urratsak egitea eta landa eremuetara teknologia berriak hurbiltzea.

**Erosketa nola banatzen da?**

Oraingoz, banaketa astean behin egiten da, ostegunetan, zehazki. Asteazken eguerdirako formalizatuta dauden erosketak ostegunetan etxeraino eramaten dira. Biltegia Leintz Gatzagan dago eta baserritarrek euren produktuak bertara eramaten dituzte, eta erosketako saskia bertan osatu eta banatzen da.

**Bertako produktuak kontsumitzeko ohiturarik badago?**

Baserrietako jarduera jaitsi egin da, eta baita salmenta zuzena ere. Jendeak supermerkatu handietan erosteko ohitura hartu du eta ez da jabetzen bertako produktuak kontsumitzeak dakarren onuraz. Ezin dugu ahaztu landa eremuaren garrantzia. Izan ere, baserritarrek gestionatzen dituzte gure eskualdeko lursail gehienak. Gainera, gure osasunerako onuragarria da bertako produktuak eta sasoikoak kontsumitzea, eta honek bertako ekonomia ere sustatzen du eta landa eremuak bizirik mantentzen ditu.

**Zer da *Elkarlana* erreminta?**

Bailarako landa eremu bakoitzaren fitxa bat diseinatu da: jaiak, ikastaroak... azaltzen dira. Denon laguntzarekin eguneratzen joan nahi dugu. Bestalde, eskualdeko landa eremuen topaleku izateko helburuarekin *Elkarlana* erreminta ere sortu da. Landa eremuen arteko sare bat era daiteke horrela, eta landa eremu ezberdinen artean ekintza komunak landu daitezke.





Saioa Arriola | Keinu hizkuntzako ikaslea

Saioa Arriola, bere izena zeinu bidez adierazten.

ANDER LARRAÑAGA

# "Hezkuntzan keinu hizkuntza landu beharko lukete; sikiera, elkarrizketa minimo bat izateko"

**ANDER LARRAÑAGA** | ARRASATE

Saioa Arriola (1991, Arrasate) keinu hizkuntzako ikaslea da gaur egun eta iaz amaitu zituen Hezkuntza Bereziko ikasketak Donostian, EHUn. Ikastaroek eskaintzen dituzten hiru mailetako bigarrena ateratzen ari da Gasteizen. Aspace Garuneko Elbarritasunen Elkartean boluntario ibiltzen da, eta hori gimnasia aerobikoarekin eta ikasketekin uztartzen du.

**Hezkuntza Berezia ikasi eta orain keinu hizkuntzan espezializatzen ari zara. Zerk motibatu zintuen adar horretatik jotzeko?**

Betidanik izan dut jakin-mina komunikazio mota honen inguruan. Unibertsitatean negoenean hasi ginen gaia lantzen, hezkuntza bereziarekin lotura oso estua duelako.

**Nolakoa da, orokorrean, jendeak duen ikuspuntua keinu hizkuntzarekiko?**

Jendeak zerbait bitxia dela pentsatzen du. Beti galdetzen didate nola esaten den zerbait keinu hizkuntzan. Hizkuntza oso polita eta bisuala da eta horregatik pizten du jendearen arreta.

**Egunerokoan erabilerarik ematen diozu keinu hizkuntzari?**

Eskoletan eta ikaskide batekin, gehienbat. Duela hilabete eta erdi hasi nintzen Aspaceko eguneko zentroan, denbora libreko taldean boluntario. Bertan gazte gor bat dago eta harekin praktikatzen dut. Udalekuetan ere, haur gormutu batzuekin tratatzeko aukera izan dut. Hala ere, kolektibo honekin harreman gertuagoa izatea gustatuko litzaidake.

**Ze motatako praktikak egiten dituzue eskoletan?**

Hasieran, hitz solteak ikasi genituen oinarrizko elkarrizketa bat izateko, eta gero, poliki-poliki, gaika hasi ginen hiztegia jorratzen. Eskolak nahiko dinamikoak eta eramangarriak dira eta izugarrizko protagonismoa dugu. Jendearen aurrean banakako nahiz taldeko ariketa asko egiten ditugu: elkarrizketak, antzerkiak... Lotsa txikia izan behar dugu horretarako. Gainera, oraingoa izan ezik, gainontzeko irakasle guztiak gormutuak izan dira eta ezin izan dugu ahozkotasuna erabili eskoletan. Honek asko ahalbidetzen du ikasketa prosezua, beharrezkoa delako eskuekin, keinuekin eta gorputzarekin komunikazio hau bideratzea.

**Zaila da keinu hizkuntza ikastea?**

Bergaran hasi nintzen ikastaro txiki batean eta hutsetik hasi ginen. Nik uste dut hizkuntza hau ikasteko gogoa duen edonor gai dela keinu hizkuntza benetan menperatzeko. Ez da samurra, baina eskolak dinamikoak dira eta hizkuntza bera oso bisuala da, eta apurka-apurka fruituak jasotzen dira.

**Geografikoki desberdina da keinu hizkuntza. Badago komunikatzeko sistema internazionalik?**

Ez, ez da hizkuntza unibertsala. Niri asko kostatuko litzaidake Amerikako gormutu batekin komunikatzea, baina, gormutuek gorputzarekin daukaten komunikatzeko berezko gaitasun horrekin, bizpahiru egunean elkarrizketa normal bat izateko gai izango lirateke. Komunikazioan hitzek %20 betetzen dute; keinu hizkuntzan keinuak, aurpegia eta mugimenduak erabiltzen dira, eta hau bada nahiko unibertsala. Askotan, gehiago esan daiteke keinuekin hitzekin baino.

**Gizarteak ikasi beharko lukeen funtsezko hizkuntza dela uste duzu?**

Bai. Ez dut esaten denok izugarrizko maila izan behar dugunik. Zaila izan daiteke gizarte hizlari batean bizi garelako, baina nik uste dut minimo bat ikasteak beharrezko izan beharko lukeela. Gainera, nik dakidanez, hizkuntza hau ikasten hasi den orok gustuko izan du, oso entretenigarria baita.

**Hezkuntza munduan sartuta zaude. Uztartuta dago keinu hizkuntza hezkuntza sisteman?**

Hor dezente dago egiteko. Eskoletan ez da askorik uztartzen ikasle gormutu bat ez dagoen arte; orduan hasten dira zerbait lantzen. Hezkuntzan, keinu hizkuntza gehiago landu beharko lukete; sikiera, elkarrizketa minimo bat izateko.

**PERTSONALA**

**Zure bertuterik onena:** Oso irekia naiz.
**Janari gustukoena:** Marmitakoa.
**Zure gorputzeko atalik maiteena:** Hankak.
**Kantu gustukoena:** *Blue jeans.*
**Bidaiatzeko leku bat:** Argentina.
**Kirol bat:** Gimnasia aerobikoa.
**Zaletasun bat:** Janaria prestatzea.
**Liburu gustukoena:** *Malka Mai.*
**Bizi izateko leku bat:** Mutriku.
**Erronka bat:** Etorkizunean nire ikasketekin erlazionatutako lanpostu bat izatea.

## 1. ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Arrasate.** Apartamentua salgai erdigunean, Uharkape kalean. 53 metro koadro erabilgarri. Egongela-sukaldea, bainugela, logela bat, balkoia eta jantzi-gela. Igogailuarekin. Berokuntza indibiduala. Jantzita. Ondo zainduta. Bizitzera joateko prest. 130.000 euro. Garajea aukeran. Interesatuok deitu 619 18 14 86 edo 665 74 82 43 telefono zenbakietara.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan Jose Luis Iñarran. Hiru logela, egongela-jangela, bi komun eta trastelekua. Hilean 600 euro, komunitateko gastuak barne. Deitu telefono zenbaki honetara: 653 71 22 42

**Bergara.** 80 metro koadroko etxebizitza ematen da errentan erdigunean. Deitu telefono honetara: 680 33 36 36

**Eskoriatza.** Etxebizitza errentan ematen da Eskoriatza erdian. Etxea berri da, hiru logela eta bi komunekoa. 652 70 08 00 edo 620 50 08 49

### 104. ERRENTAN HARTU

**Aramaio.** Bikotea pisu bila Aramaion. Deitu zenbaki honetara:. 620 15 13 11

**Arrasate.** Etxebizitza behar dut errentan, merke. Deitu 634 41 90 51 telefohnora.

**Arrasate.** Etxebizitza behar dut errentan. 400 euro inguru ordain ditzaket. Daniela. 727 74 42 36 edo 686 07 39 33

**Bergara.** Bikote euskalduna etxe bila alokairuan, gerora erosteko eskubidearekin. 695 72 55 96

**Bergara.** Etxebizitza behar dugu errentan. Bi edo hiru logelakoa. 638 93 11 48

**Bergara.** Etxebizitza behar dugu errentan. Bi logelakoa. Urgentea da. 608 02 24 69

### 105. ETXEAK OSATU

**Aretxabaleta.** Logela ematen da errentan erdigunean, Andra Mari auzunean. 603 14 28 89

**Arrasate.** Etxea osatzeko logela ematen da errentan. 699 11 45 14

**Arrasate.** Logela ematen da errentan erdigunean. 629 80 77 73

**Arrasate.** Pertsona bat behar da etxea osatzeko erdialdean. Jone. 636 05 36 18

**Bergara.** Pertsona bat behar da etxea osatzeko Bolun. 230 euro dena barne. 670 85 86 68

## 2. GARAJEAK

### 203. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Garaje itxia errentan edo salgai Kontzezino kalean, Iturbide egoitza parean. 15 metrokoa. 943 77 08 02 edo 628 14 92 74

**Arrasate.** Uarkapen garaje itxia ematen da errentan. Deitu telefono zenbaki honetara: 680 77 64 05

**Bergara.** Garaje itxia, 18 metro koadrokoa, ematen da errentan Burdinaten. 943 76 06 60

### 204. ERRENTAN HARTU

**Oñati.** Errekalde auzoko 45 zenbakiaren inguruan, garaje bat hartuko nuke errentan. Deitu 950 27 05 78 telefonora.

## 4. LANA

### 401. ESKAINTZAK

**ARRASATE**
Neska bat behar da tabernan lan egiteko.
Soldata ona.
Tel. 605 76 08 29

### 402. ESKAERAK

**Arrasate, Bergara edo Aretxabaleta.** Mutila gertu tabernan laguntzen edo nagusiak zaintzen lan egiteko. Esperientziaduna. 662 08 22 03

**Arrasate.** 18 urteko neska euskalduna goizetan umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko gertu. 943 79 52 50

**Arrasate.** Bertako emakumea, 54 urtekoa, nagusiak edo umeak zaindu zein etxeko lanak egiteko gertu. Esperientziaduna. Deitu telefono zenbaki honetara: 943 79 60 89

**Arrasate.** Emakume euskalduna goizetan lanerako gertu: umeak zaindu, plantxa lanak eta abar. Deitu telefono zenbaki honetara: 699 54 17 27

**Arrasate.** Neska euskalduna gertu goizez lan egiteko: umean zaindu, etxeko lanak egin eta abar. Maialen. 688 80 06 79

**Arrasate.** Neska gertu lan egiteko egun osoz, orduka, gauetan zein asteburuetan. Sukaldean, tabernatan, nagudi edo umeak zaintzen eta abar. Esperientziaduna. Deitu telefono honetara: 645 58 71 61

**Basolanak.** egingo nituzke. Basoak garbitu zein baserri edo lorategietan. Javier.Deitu telefono zenbaki honetara: 690 38 16 98

**Bergara.** 48 urteko neska lanerako gertu. 606 24 79 09

**Bergara.** Bergarako emakumea gertu gauetan emakumeak zaintzeko. 665 75 41 32

**Debagoiena.** Bikotea gertu baserri lanak egiteko, bai ortuan eta baita animaliak zaintzen ere. 632 08 76 19

**Debagoiena.** Emakumea lanerako gertu. Eskarmentua dut umeak zaintzen, etxeko lanetan, lantegian zein jatetxetan. 647 10 58 72 edo 943 79 96 25

**Debagoiena.** Emakumea nagusiak zaindu eta garbitasun lanetarako gertu. Orduka, egun osoz edo etxean bertan bizi izaten. 637 07 23 70

**Debagoiena.** Emekumea lanerako gertu. Nagusiak edo umeak zaindu, etxeko lanak egin, sukaldatu... Letitia. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 632 08 76 19

**Debagoiena.** Erizain titulua daukan neska lan egiteko gertu. Gauean edo egunean zehar ospitalean edo etxean nagusiak zaintzeko gertu. 688 80 27 01 edo 943 25 02 96

**Debagoiena.** Erizaintza laguntzailea gertu nagusiak edo umeak zaintzeko. Etxeko garbitasunak ere bai. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 630 20 12 03

**Debagoiena.** Esperientziadun emakumea gertu nagusiak zaindu edo etxeko garbitasunak egiteko, orduka. Maite. 650 17 74 87 edo 943 76 48 26

**Debagoiena.** Gizona gertu lanerako. Nagusiak zaintzen, etxean bertan bizi izaten edo bestela, egun osoz. Deitu 602 07 12 06 telefonora.

# ZURE IRAGARKIAK

**IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:**

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Egueazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.
GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:** PREZIO BEREZIA GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

**- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.**
Egubakoitzean + Astelehenean: 22 € (BEZ barne).
Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
**- Profesionalen moduluak.**
Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).
Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

**Debagoiena.** Gizonezkoa edozein lan egiteko gertu. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 636 60 48 51

**Debagoiena.** Mutila gertu makanikari lanak egiteko. Baita igeltsero, margolari eta berritze lanak egiteko ere. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 691 795 334

**Debagoiena.** Mutila lanerako gertu: eraikuntzan, margoketa lanetan, soldatzen edo nagusiak zaintzen. Orduka, egun osoz edo etxean bertan bizi izaten. Gidabaimena daukat. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 637 07 23 70

**Debagoiena.** Nagusi edo umeak zaintzen edo atariak garbitzen lan egingo nuke. 679 30 65 28

**Debagoiena.** Neska arduratsua geru garbitasun lanak egin eta nagusiak zaintzeko. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. 629 80 77 73

**ARRASATE**
Arrasateko plazan dagoen
Zuk Nahi taberna errentan ematen da.
Sukaldea dauka.
Tel. 605 76 08 29

**Debagoiena.** Mutil arduratsua, legezko paperekin, lanerako gertu: igeltsari edo nekazaritza laguntzaile, zerbitzari zein nagusiak zaintzen. Gidabaimena eta autoa dazkat. Deitu 648 75 24 96 telefonora.

**Debagoiena.** Neska arduratsua orduka edo jardun osoz nagusiak zaintzeko gertu. Legezko paperak eguneratuta dauzkat. 636 80 87 68

**Debagoiena.** Neska esperientziaduna lan bila etxean bertan bizi izaten. Berehala hasteko moduan. 727 74 42 36 edo 686 07 39 33

**Debagoiena.** Neska euskalduna, esperientzia eta informeekin, umeak eta nagusiak zaintzeko gertu. Baita gauez ere. Disponibilitate osoa, gidabaimen eta autoarekin. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 671 35 22 60

**Debagoiena.** Neska gertu lanerako. Esperientzia daukat nagusiak eta umeak zaintzen edota atari eta abarren garbiketan. Deitu telefono zenbaki honetara: 632 09 72 93

**Debagoiena.** Neska gertu lanerako. Esperientzia daukat nagusiak eta umeak zaintzen edota atari eta abarren garbiketan. 617 64 08 48

**Debagoiena.** Neska gertu lanerako: umak edo nagusiak zaintzen eta atari garbiketak egiten. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. 617 64 08 48

**Debagoiena.** Neska gertu nagusi zein umeak zaintzeko edota garbitasun lanetan jarduteko. Orduka, egun osoz edo etxean bertan bizi izaten. Orain Eibarren bizi naiz. Deitu telefono honetara: 631 22 32 92

**Debagoiena.** Neska gertu sukalde laguntzaile edo garbiketa lanetan jarduteko. Baita nagusiak zaintzeko ere. Etxean bertan bizi izaten ere bai. 660 21 97 46

**Debagoiena.** Neska lan bila dabil. Nagusiak edo umeak zainduko nituzke. Gauez, etxean bertan, orduka... Garbiketa lanak egiteko ere gertu. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 617 64 08 48

**Debagoiena.** Neska lanerako gertu. Nagusi edo umeak zainduko nituzke. Etxean bertan bizi izaten, orduka zein egun osoz. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 672 70 71 25

**Debagoiena.** Neska lanerako gertu: ume zein nagusiak zaintzen, garbiketak, atariak eta abar. Orduka, egun osoz edo etxean bertan bizi izaten. Baita asteburuetan ere. Erreferentziak ditut. 636 41 98 14

**Debagoiena.** Neska nagusi edo umeak zaintzeko gertu. Etxean bizi izaten edo bestela. Geriatria ikasketak, gidabaimena eta erreferentzia onak ditut. Danni. 680 87 38 66

**Debagoiena.** Neska orduka edo gauez lan egiteko gertu. Silvia. 630 99 11 85

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zainduko nituzke gauez, orduka edo etxean bertan bizi izaten. 674 93 20 47

**Debagoiena.** Sukaldari esperientziaduna lanerako gertu: menuak, pintxoak edo bestela. Sukaldaritza ikasketekin eta urte askoan lanean aritutakoa. Aurel. 666 83 21 95

**Lan ezberdinak egiteko prest.** Basoan lan egiteko, margo lanak eta elektrizitate lanak egiteko mutila eskaintzen da. Esperientzia handia eta orduka edota jornada osoa lan egiteko prest. 697 74 79 61

**Mutila gertu edozein lan egiteko.** Etxeko mudantzak, jardineko lanak, etxeko mantenu orokorreko lanak egiten ditut. 663 34 70 36

KOROSTI INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA:**
- 150.000€ baino gutxiagotan pisuak salgai egoera onean.
- Zubieta 70 $m^2$, 3 logela. Oso ondo. 132.223 €.
- Masterreka 73 $m^2$, 2 logela. Oso ondo. Igogailua.
- Aranerreka 84 $m^2$, 3 logela, trastelekua. Garajea aukeran. 150.000 €.
- Barrenkale 90 $m^2$, 3 logela. Erabat berriztua.
- San Pedro 70 $m^2$, 4 logela. Erabat berriztua. Garakea aukeran. 150.000 €.
- Bolu 66 $m^2$. 2 logela. Trastelekua. Garajea aukeran. Oso ondo. 150.250 €.
- Bidekurutzeta 65 $m^2$. 2 logela. Trastelekua. 120.000 € PREZIO JEITSIERAREKIN
- Zubiaurre 56 $m^2$. 2 logela. Igogailua, erabat berriztua. 135.000 €.
- Matxiategi 65 $m^2$, 3 logela. Berogailua, igogailua eta trastelekuarekin. 150.000 €.
- Koldo Eleizalde 74 $m^2$. 3 logela. Trastelekuarekin. 160.000 €. Aukera ona
- Zabalotegi 80 $m^2$. 3 logela. Igogailua. 154.760 €.
- Azkarruntz 75 $m^2$. 3 logela. Berrituta. Oso ondo. 144.243 €.
- Zubieta 60 $m^2$, 3 logela. 126.213 €.
- Zubieta 70 $m^2$, 2 logela. 150.253 €.
- Ibarra 65 $m^2$. 3 logela. Berriztua. 150.000 €.
- Bolu 66 $m^2$. 2 logela. Trastelekua. Garajea aukeran. Oso ondo. 150.250 €.
- Artzamendi 70 $m^2$. 2 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 154.760 €.
- Zubiaurre 82 $m^2$. Igogailu eta berogailuarekin. Egoera onean. 132.223 €.
- Zabalotegin 2 eta 3 logeletako pisuak 120.000 € baino gutxiagotan. AUKERA BIKAINA
- Bidekurutzeta 147 $m^2$. Igogailuarekin. 135.000 €. Prezio jeitsierarekin.
- Martzial Agirre 60 $m^2$, logela bat. Terraza eta trastelekuarekin. Garajea aukeran.
- Matxiategi 60 $m^2$. 2 logela. Igogailua. Erabat berriztua.
- Fraizkozuri 100 $m^2$, 4 logela, 2 balkoirekin. Igogailua. Prezio jeitsierarekin.
- Fraizkozuri 78 $m^2$. 3 logela. Balkoia, trastelekua eta garajearekin. 205.000€.
- Boni Laskurain 90 $m^2$, 3 logela. Trastelekua eta garajearekin. Oso ondo.
- Arrizuri 160 $m^2$, 4 logela. Igogailua, garajea. Oso ondo.

**ANTZUOLA:**
- Beheko Auzoa 60 $m^2$. 2 logela. Oso ondo. Prezio jeitsierarekin.
- Errekalde 94 $m^2$. 3 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 120.202 €.
- Zurrategi 83 $m^2$. Oso ondo. Prezio ona.
- Sagasti 90 $m^2$. 3 logela. Oso ondo. Prezio jaitsierarekin.
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa, Ibarre auzoa, San Josepe, Aierra eta Errekalde. Etxe onak.

**SORALUZE:**
Sagar Erreka, Rabal, Atxuri eta Rekalde. Etxe onak.

**ELGETA:**
- Domingo Iturbe 90 $m^2$, 4 logela. 126.212 €. Prezio jeitsierarekin.
- Torrealdea 77 $m^2$. 3 logela. Berria. Oso ondo.
- Domingo Iturbe, adosatua 150 $m^2$ + 45 $m^2$ garajea + 90 $m^2$ lursaila.

**KULTUR-LAGUNTZAILEEN LAN-POLTSA**

**Izena emateko epea:** martxoaren 9tik 18ra arte. (biak barne).

**Oinarri-arauak:** BAZen (goiz eta arratsalde) eta udaletxeko webgunean jaso daitezke: www.arrasate-mondragon.org.

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

**Pertsonal Saila**

## 5. IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Frantsesa.** Neskatila batentzako frantses irakasle bat behar dugu, zerotik hasteko.634 43 80 66

## 6. MOTORRA

### 601. SALDU

**Karabana.** 6 plazakoa. Egoera onean. Extra askorekin. Ez du matrikula gorri beharrik. Jon. Deitu 670 49 83 62 edo 685 75 29 17 zenbakietara.

## 7. ANIMALIAK

### 703. EMAN

**Katuak opari.** 2012ko uztaileko katu txikiak ematen dira opari. Interesatuok deitu telefono honetara: 660 92 70 71

**Txakurkumeak.** Arratoi-txakurkume bat eta artzain-txakurkume bat ematen dira opari. Interesatuok deitu telefono honetara: 685 75 86 49

**Txakurra opari.** "Bodegero Andaluz" arrazako txakurra emango nuke opari. Emea. Deitu telefono honetara: 600 05 50 74

### 704. BESTELAKOAK

**Ninfa txoria galdu.** Ninfa txoria galdu dut Oñatiko Errekalde auzoan. Gorputza gris eta zuria dauka eta aurpegia zuria. Aurkitzen baduzu deitu zenbaki houetara mesedez. 943 78 26 07 edo 610 81 99 31

**Setter txakurra galdu da Oñatin.** Setter arrazako txakurra galdu zen Oñatin ostiralean, otsailaren 8an. Zuri kolorekoa da eta lepoko laranja dauka. Norbaitek aurkitzen badu dei dezala telefono honetara: 678 62 40 07

## 8. DENETARIK

### 801. SALDU

**Taxi lizentzia** salgai Bergaran. Interesatuok deitu 617 42 97 45 telefonora.

### 802. EROSI

**Aramaio.** Lursaila erosiko nuke. (Naiara). 615 79 17 07

**Elurretarako erraketak.** erosiko nituzke. Salgai badituzu deitu telefono zenbaki honetara: 655 71 41 24

### 804. HARTU

**Sukaldea janzteko materiala behar dugu.** Oñatiko gaztetxean sukalde herrikoia egiteko asmoa daukagu. Horretarako, edalontzi eta plateretatik hasi, eta sukaldea lortzeraino, esker onez jasoko ditugu era guztietako tresna, gailu eta aparatuak. 688 68 14 60

### 806. GALDU

**Belarritako baltzak Aretxabaletan.** Igande karnabaletan belarritako baltzak galdu nituen Aretxabaletan. Norbaitek aurkitu badu deitu zenbaki honetara. Eskerrikasko. 675 00 66 03

**Bideo kamera Arrasaten.** Larunbatean, otsailaren 9an, bideo kamera bat galdu nuen. Norbaitek aurkitu badu, BAZen utzi edo telefono hontara deitu. Mila esker. 616 81 21 25 .

**Giltzak.** Zorro beltz baten barruan zeuden giltzak galdu ditu. Norbaitek aurkitu baditu, BAZen utzi dezala.

**Iphone.** iPhone 4S telefono beltza galdu dut. Norbaitek aurkitu badu dei dezala telefono zenbaki honetara. 943 10 91 79. Eskertuko da.

### 808. BESTELAKOAK

**Baratza Oñatin.** Lursail bat nahiko nuke baratza jartzeko, Oñatin. 647 24 40 54

**Lekuko bila Bergaran.** Astelehenean, otsailak 18, Ibargarai 11 kalean, fruta denda parean autoa kolpatu zidaten aparkatuta nuela. Eguerdi aldera. Norbaitek zerbait ikusi badu mesedez deitu zenbaki honetara. Mila esker. 660 04 77 70

## 9. HARREMANAK

### 904. BESTELAKOAK

**Arrasateko elkarte gastronomiko baten plaza erosiko nuke.** Elkarte gastronomiko bateko kide bazara eta zure plaza saltzeko asmoa baduzu nik erosiko nizuke. Alde zaharrean bada hobe, baina ez ditut beste aukerak baztertzen. 943 10 91 79.

Bergarako Udala

Bergarako Udala **DELINEATZAILE-TOPOGRAFO** bat lehiaketa oposizio libreko sistemaren bitartez lan-jardun erdiarekin kontratatzeko, aldi baterako, Udaleko plantillan aurreikusia dagoen plaza behin betiko bete arte. Presazko deialdia.

**Lehiakideen baldintzak:**

**a)** 16 urte beteta izatea.
**b)** LH-II delineazioa edo baliokidea.
**c)** 3. HE, derrigorrezkoa.
**d)** Gidabaimena indarrean.
**e)** Oinarrietan jasotako besteak.

**Instantziak aurkezteko epearen amaiera:** 2013/03/23an.

**Oinarriak:**
Idazkaritzako bulegoetan, eta webgunean (*www.bergara.net*).

Bergara, 2013ko martxoaren 1a.
ALKATEAK

## ASTEA GOIENAN


GOIENA

### Korrika 12, 13 eta 14 ikusgai telebistan

Hilaren 14an emango zaio Korrika 18ri hasiera, Andoainen, eta, giroan sartzen joateko, Korrikak beste edizio batzuetan gure bailaran emandakoa jasoko dugu Goiena telebistan. 2001eko, 2003ko eta 2005eko edizioak ikusi ahal izango dituzue.

**'Korrika'**
Zapatua, 22:04


GOIENA

### Txertoak hizpide 'AsteOn' saioan

Txertoei buruzko informazioa jaso ahal izango duzue gaurko *AsteOn* saioan. Informazio hori lortzeko, Arrate Bengoa pediatrarekin eta Dorleta Martinez medikuarekin izan gara eta haiek kontatuko dizkigute txertoei buruzko xehetasunak.

**'AsteOn'**
Egubakoitza, 22:00

## GOIENA TELEBISTA

**EGUBAKOITZA, 8**

**12:00** Planik bai?
**12:20** Magazinea
**13:05** Zorion Agurrak
**13:10** Gurean gaur
**13:40** Onein
**14:11** Bizitegia
**15:05** Eguraldia
**15:08** Planik bai?
**15:28** Erreportajea
**15:58** Laino arteko plana
**16:28** Beranduegi.tv
**16:48** Zorion Agurrak
**16:53** Berriak
**17:13** Eguraldia
**17:16** Planik bai?
**17:36** Erreportajea
**18:06** Zorion Agurrak
**18:09** 28.Klip
**18:41** Beranduegi.tv
**19:05** Zorion Agurrak
**19:08** Berriak
**19:28** Eguraldia
**19:30** Planik bai?
**19:50** Goierri Creation Center
**20:23** Laino arteko plana
**20:53** Gurean gaur
**21:25** Berbetan
**22:00** AsteON
**22:30** Berriak
**22:50** Eguraldia
**22:53** Esatea libre
**00:47** Planik bai?

**ZAPATUA, 9**

**10:00** 28.Klip
**10:31** Zorion Agurrak
**10:36** Ekogune
**11:06** AsteON
**11:46** Planik bai?
**12:06** Onein
**12:31** Berriak
**12:46** Magazinea
**13:46** Hitzlandia
**14:14** Laino arteko plana
**14:44** Zorion Agurrak
**14:49** Berriak
**15:04** Onein
**15:40** Planik bai?
**16:00** Laino arteko plana
**16:30** Zorion Agurrak
**16:35** Berriak
**16:50** Beranduegi.tv
**17:14** Magazinea
**18:14** Planik bai?
**18:34** Hitzlandia
**19:02** AsteON
**19:38** Beranduegi.tv
**20:02** Magazinea
**21:02** Planik bai?
**21:22** Klaketa
**22:04** Korrika
**23:34** Magazinea
**01:07** Magazinea

**DOMEKA, 10**

**10:00** Klaketa
**11:00** Zorion Agurrak
**12:00** Onein
**13:00** Magazinea
**14:00** Planik bai?
**14:20** Berriak
**14:35** Onein
**15:11** Korrika
**16:41** AsteON
**17:16** Zorion Agurrak
**17:21** Ekogune
**17:51** Berriak
**18:06** Magazinea
**19:06** Beranduegi.tv
**19:30** Magazinea
**20:30** AsteON
**21:05** Zorion Agurrak
**21:10** Klaketa
**21:52** Ekogune
**22:22** Magazinea
**23:22** Berriak
**23:37** Korrika
**00:36** Berriak
**00:56** Eguraldia

**ASTELEHENA, 11**

**12:00** Magazinea
**12:45** Gurean gaur
**13:15** Zorion Agurrak
**13:18** Onein
**13:52** Laino arteko plana
**14:17** Ekogune
**14:42** Zorion Agurrak
**14:45** Berriak
**15:10** Eguraldia
**15:13** Zorion Agurrak
**15:18** AsteON
**15:58** Bizitegia
**16:28** Zorion Agurrak
**16:33** Berriak
**16:58** Eguraldia
**17:01** Ekogune
**17:31** Korrika
**19:01** Hitzlandia
**19:29** Beranduegi.tv
**19:49** Zorion Agurrak
**19:54** Berriak
**20:14** Eguraldia
**20:16** Magazinea
**20:59** Gurean gaur
**21:28** AsteON
**21:58** Harmailatik
**22:43** Berriak
**23:03** Eguraldia
**23:06** Magazinea
**23:51** Harmailatik
**00:19** Eguraldia

**MARTITZENA, 12**

**12:00** Magazinea
**12:45** Gurean gaur
**13:15** Zorion Agurrak
**13:22** Harmailatik
**14:07** Ekogune
**14:40** Zorion Agurrak
**14:45** Berriak
**15:07** Eguraldia
**15:10** Harmailatik
**15:55** Onein
**16:29** Berbetan
**17:01** Nere herrie
**17:33** Berriak
**17:53** Eguraldia
**17:56** Esatea libre
**19:14** Harmailatik
**19:59** Zorion Agurrak
**20:02** Berriak
**20:22** Eguraldia
**20:24** Magazinea
**21:09** Gurean gaur
**21:39** Klaketa
**22:21** Berriak
**22:41** Eguraldia
**22:46** Magazinea
**23:31** Bizitegia
**23:59** Berriak
**00:27** Berriak
**00:32** Eguraldia
**00:35** Magazinea

**EGUAZTENA, 13**

**12:00** Magazinea
**12:45** Gurean gaur
**13:10** Korrika
**14:40** Zorion Agurrak
**14:45** Berriak
**15:05** Eguraldia
**15:08** Klaketa
**15:50** Onein
**16:25** Harmailatik
**17:10** Berbetan
**17:43** Zorion Agurrak
**17:48** Berriak
**18:08** Eguraldia
**18:10** Ikusmira
**18:33** Hitzlandia
**19:01** Bizitegia
**19:31** Beranduegi.tv
**19:51** Zorion Agurrak
**19:54** Berriak
**20:19** Eguraldia
**20:21** Magazinea
**21:06** Gurean gaur
**21:37** Hitzlandia
**22:05** Ekogune
**22:35** Berriak
**22:55** Eguraldia
**22:57** Magazinea
**23:42** Harmailatik
**00:09** Berriak
**00:29** Eguraldia

**EGUENA, 14**

**12:00** Magazinea
**12:45** Gurean gaur
**13:10** Nere herrie
**13:42** Ikusmira
**14:06** Onein
**14:41** Zorion Agurrak
**14:45** Berriak
**15:05** Eguraldia
**15:08** Berbetan
**15:40** AsteON
**16:20** Berriak
**16:40** Eguraldia
**16:43** Onein
**17:18** Ikusmira
**17:41** Planik bai?
**18:01** AsteON
**18:41** Ikusmira
**18:58** Zorion Agurrak
**19:03** Beranduegi.tv
**19:28** Berriak
**19:48** Eguraldia
**19:50** Planik bai?
**20:12** Zorion Agurrak
**20:15** Magazinea
**21:00** Gurean gaur
**21:30** Laino arteko plana
**21:59** Planik bai?
**22:19** Berriak
**22:39** Eguraldia
**22:42** Magazinea
**23:27** Klaketa
**00:05** Planik bai?
**00:25** Berriak
**00:45** Eguraldia

## ARRASATE IRRATIA

### Asteburuko gainbegiratua goizeko hamarretan

Astean egindako elkarrizketak entzuteko aukera zapatuan eta domekan, 10:00etan. Zuhaitz Egunaz emango dizkigu azalpenak Pello Garaik, Landa Inguruneko teknikariak; eta, Emakumeen Egunaren harira, Amets Beltran De Gebarak, Emakume Txokokoak.

### 'Alabatxo' haurrendako antzerkirako sarrerak

Hilaren 16an, 17:00etan, Amaia Antzokian eskainiko dute *Alabatxo* izeneko haurrendako antzerkia. Bada, Arrasate Irratian bertara joateko sarrerak dauzkagu zozketan. Parte hartzeko, deitu 943 25 05 05 telefonora edo idatzi *irratia@goiena.com* helbidera. Zorte on!

## GUARDIAKO FARMAZIAK

| | | | |
|---|---|---|---|
| **ARRASATE** | | | |
| **Egubakoitza, 8** | IRIZAR | Erguin, 11 | 943 79 12 39 |
| **Zapatua, 9** | AMEZUA | Sta. Marina, 32 | 943 79 09 74 |
| **Domeka, 10** | ESPAÑOL MORALES | Araba Etorb., 14 | 943 79 18 65 |
| **Astelehena, 11** | RUIZ | Nafarroa Etorbidea 1 | 943 79 14 09 |
| **Martitzena, 12** | ETXEBERRIA | Zarugalde kalea 38 | 943 77 16 30 |
| **Eguaztena, 13** | ALBERTO AZKOAGA | Ferrerias kalea 1 | 943 79 15 15 |
| **Eguena, 14** | M.FCA. AZKOAGA | Iturriotz 17 | 943 79 79 99 |
| **BERGARA** | | | |
| **Egubakoitza, 8** | ESTELLA | Matxiategi 5 | 943 76 19 63 |
| **Zapatua, 9** | MOZOS | Iparragirre 2 | 943 76 12 15 |
| **Domeka, 10** | MOZOS | Iparragirre 2 | 943 76 12 15 |
| **Astelehena, 11** | URRUTIKOETXEA | Orixondo plaza 4 | 943 76 11 74 |
| **Martitzena, 12** | ZABALA | Barrenkale, 25 | 943 76 16 87 |
| **Eguaztena, 13** | GUALLAR | San Antonio, 5 | 943 76 11 05 |
| **Eguena, 14** | ESTELLA | Matxiategi 5 | 943 76 19 63 |
| **OÑATI** | | | |
| **Egubakoitza, 8** | IGARTUA | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |
| **Zapatua, 9** | IGARTUA | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |
| **Domeka, 10** | IGARTUA | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |
| **Astelehena, 11** | GARATE | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |
| **Martitzena, 12** | GARATE | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |
| **Eguaztena, 13** | JULDAIN | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |
| **Eguena, 14** | JULDAIN | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |

**Farmazien eskuko telefonoetarako 2013 egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 25600 zenbakira.**
Gehienezko kostua 1,9 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera, Altiria TICek kudeatuta (www.altiria.es).

## EGURALDIA ASTEBURUAN

### DEBAGOIENA



**Max.** 17º
**Min.** 10º

**ZAPATUA, 9**
Giro eguzkitsua izango dugu eguerdi partean. Goizaldean hodei ugari egongo dira eta zaparradaren bat bota dezake.



**Max.** 17º
**Min.** 9º

**DOMEKA, 10**
Euri pixka bat egiteko arriskua egongo den arren, orokorrean, zeruan ostarteak nagusituko dira domekan.

### EUSKAL HERRIA



Zapatuan tenperatura zertxobait jaitsiko da, baina domekan tenperatura mantendu egingo da.

## GAZTE INFORMAZIOA

### UDALEKUAK

**Udalekuak.** Foru Aldundiak 7-13 urte arteko haurrentzat antolatutako udalekuetako zozketan izena emateko epea: martxoaren 14tik 24ra bitartean.

### UDATXOKO

**Udatxoko.** Hainbat informazio aurkituko duzu bertan: udarako ekintzak (udalekuak, kanpaldiak, auzolandegiak, brigadak...) eta baita aisialdiaren esparruko lan eskaintzak. *www.gipuzkoagazteria.net/uda*.

### LANA

**Berdintasun teknikaria.** Tolosako Udalak lan poltsa sortu nahi du, lanaldi erdiz eta aldi baterako. Baldintzak: erdi mailako titulua, unibertsitate diplomatura edo baliokideren bat edukitzea. 3. HE. Epea: martxoak 13.

**Hezitzaileak.** Iruñeko Udalerako. Baldintzak: Haur Hezkuntzako goi mailako teknikari titulua, Haur Hezkuntzako maisu-maistren graduko titulua, EGA edo baliokidea, ingelesa. Martxoak 21.

**Bi teknikari.** Bai Euskarari Elkarteak egun erdiko bi lanpostu bete nahi ditu, apirilaren erditik ekainaren erdialdera arte. Baldintzak: harreman eta antolakuntza gaitasuna, lan esperientzia, euskara eta frantsesa, gidabaimena eta autoa. Epea: otsailak 20.

### BEKAK

**Graduondokoak.** Obra Social La Caixa, EEBBetan eta Kanadan graduondoko ikasketak burutzeko 48 beka. Baldintzak: lizentziatura edo gradua, ingelesa edo frantsesa. Epea: apirilak 15.

**INFORMAZIO GEHIAGO NAHI IZANEZ GERO:**
**Arrasateko Gazte bulegoa:** Biteri etorbidea 3 | 943 25 20 65 | gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net
**Oñatiko Gazteendako Informazio Gunea:** Foruen plaza 4 | 943 71 82 57 | gazteinformazioa@oinati.net



**ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05**
**Egubakoitzean nahiz astelehenean argitaratzeko.**

Eskelaren prezioa: 130 euro.
Egubakoitzean eta astelehenean, bietan, argitaratuz gero, 175 euro.
**Goiena: irakurriena Debagoienean.**

**ASTE BARRUAN, BAITA ERE:**
**ARRASATE** Goiena: Otalora Lizentziaduna 31. 943 25 05 05.
**BERGARA** Jardun elkartea: Errotalde (kultura etxean). 943 76 08 19.
**OÑATI** Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.
**ARETXABALETA** Goiena: Basabe poligonoa E05. 943 25 05 05.
**ARAMAIO** Kintelena janari-denda: Nardeaga 11. 945 44 50 22.
**ELGETA** Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98.
**ANTZUOLA** Itzar liburu-denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

## HILDAKOAK

**Felisa Laspiur Bengoa.**
Bergaran, otsailaren 28an. 87 urte.

**Antonio Atxa Altuna.**
Aretxabaletan, martxoaren 1ean. 77 urte.

**Leon Valle Ortiz.**
Arrasaten, martxoaren 1ean. 86 urte.

**Jose Luis Elkoro Pagaldai.**
Aretxabaletan, martxoaren 3an. 68 urte.



### Iker eta Ainhoa

Iker Lobo debarra eta Ainhoa Eraña arrasatearra zapatuan, martxoaren 9an, ezkonduko dira. "Zorionak, bikote! Ondo-ondo pasatu zuen eguna eta eztei-bidaia ahaztezina eduki! Koadrilakoak".

---

OROIGARRIA

## Jose Luis Elkoro Pagaldai



Aretxabaletan hil zen, 2013ko martxoaren 3an, 68 urte zituela.

*Aurtengoan bai, negu gordina,*
*guk ez dugu zalantzarik*
*baina badator udaberria atea jotzen atzetik.*
*Jose Luis joan da ta bizi poza*
*eraman digu hemendik.*
*Mila esker danagatik, ikasi duguna zugandik*
*ume, gazte eta heldurik.*
*Azkenerate laguntzeko prest ta eskuzabala betik,*
*besarkada bat Jose Luis, ta gero arte bakarrik.*

**Zure emaztea eta alabak.**
**Aretxabaletan, 2013ko martxoaren 8an.**

---

OROIGARRIA

## Jose Luis Elkoro Pagaldai

Agurtzane Elkororen aita



Aretxabaletan hil zen, 2013ko martxoaren 3an, 68 urte zituela.

Bat egiten dugu senideen saminarekin

goisolutions

**Goisolutionseko langileak.**
**Arrasaten, 2013ko martxoaren 8an.**

---

URTEURRENA

## Jose Unzueta Arteaga



2012ko martxoaren 12an hil zen, 85 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da,
martxoaren 10ean, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.
—
*Joan zara baina zure izana gurekin da.*

**Elizkizunetara joango zaretenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.**
**Bergaran, 2013ko martxoaren 8an.**

---

URTEURRENA

## Felisa Zuazubiskar Arrizabalaga

Jacinto Elorzaren alarguna



2012ko martxoaren 6an hil zen, 95 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da,
martxoaren 10ean, 11:00etan,
Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokian.

**Elizkizunetara joango zaretenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.**
**Arrasaten, 2013ko martxoaren 8an.**

---

URTEURRENA

## Braulio Zubia Zubia



2012ko martxoaren 6an hil zen, 99 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza zapatuan izango da,
martxoaren 9an, 19:00etan,
Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.

**Elizkizunetara joango zaretenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.**
**Oñatin, 2013ko martxoaren 8an.**

---

URTEURRENA

## Petra Jausoro Aperribai



Lehen urteurreneko meza domekan izango da,
martxoaren 10ean, 11:30ean,
Aretxabaletako Andra Mari parrokian.

**Elizkizunetara joango zaretenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.**
**Aretxabaletan, 2013ko martxoaren 8an.**

---

URTEURRENA



## Josu Lazpiur Bilbao



2012ko martxoaren 29an hil zen, 77 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, martxoaren 10ean, 12:00etan,
Bergarako Santa Marina parrokian.
—
*Beti izango zara gure artean.*

**Elizkizunetara joango zaretenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.**
**Bergaran, 2013ko martxoaren 8an.**

---

ESKER ONA

## Felisa Laspiur Bengoa



2013ko otsailaren 28an hil zen, 87 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta
samin-agurrak bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

**Bergaran, 2013ko martxoaren 8an.**

# ZINEMA

## ARRASATE

**AMAIA ANTZOKIA**

**El lado bueno de las cosas**
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.

**Objetivo Terrum (3D)**
Domeka: 17:00.

## BERGARA

**ZABALOTEGI**

**Viaje al centro de la Tierra 2**
Domeka: 17:00, 19:30.

## OÑATI

**KULTUR ETXEA**

**Amor**
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30 eta 22:30.
Astelehena: 19:30.

**Kerity ipuinen etxea**
Zapatua eta domeka: 17:00.

## EIBAR

**COLISEO 1**

**Hitchcock**
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

**COLISEO 2**

**Las ventajas de ser un marginado**
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

**ANTZOKIA**

**Oz (3D)**
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 19:45, 22:30.
Astelehena: 20:30.

## GASTEIZ

**GORBEIA**

**Oz**
15:40 (Z,D.), 18:15, 20:50, 23:25 (Z).

**Oz (3D)**
16:40 (Z., D.), 19:15, 21:50, 00:25 (Z.).

**Django desencadenado**
21:50.

**Las flores de la guerra**
16:00 (Z.), 19:00, 22:00.

**¡Rompe Ralph!**
17:30.

**Argo**
21:30, 23:50 (Z.).

**Parker**
E.eta D.: 17:30, 20:05, 22:35.
Z.: 15:45, 18:30, 21:15, 00:10.

**Hansel y Gretel**
Z.: 16:40, 18:40, 20:40, 22:40, 00:40.
D.: 16:40, 18:40, 20:40, 22:40.
E.: 18:30, 20:30, 22:30.

**La extraña vida de Timothy**
15:30 (Z., D.), 17:40.

**El lado bueno de las cosas**
20:30.

**Abuelos al poder**
15:45 (Z., D.), 18:30.

**El origen de los guardianes**
Z., D.: 15:30.

**La jungla**
19:50.

**Hansel y Gretel (3D)**
19:40, 21:40, 23:40 (Z.).

**Hermosas criaturas**
15:45 (Z.), 18:30.

**El alucinante mundo de Norman**
Z. eta D.: 15:30.

**Mamá**
22:50, 00:55 (Z.).

**FLORIDA**

**Hansel y Gretel**
E.: 22:30.
Z. eta D.: 12:00, 17:30.

**Los amantes pasajeros**
17:00, 18:45, 20:30, 22:30, 00:30 (Z.).

**Un asunto real**
17:20, 22:00.

**El cuarteto**
20:10.

**Oz**
12:00 (Z., D.), 17:15, 19:50, 22:30.

**En la niebla**
17:30, 20:00, 22:30, 00:30 (Z.).

**Argo**
18:00, 22:30.

**El atlas de las nubes**
19:00, 22:00.

**El lado bueno de las cosas**
17:30 (E.), 20:00 (E.), 20:30 (Z. eta D.), 22:30 (Z. eta D.).

**Blackie eta Kanuto**
Z. eta D.: 12:00.

**Blue Valentine**
20:15.

**Hermosas criaturas**
16:50.

**BOULEVARD**

**Oz**
15:40 (Z., D.), 18:15, 20:50, 23:25 (E., Z.).

**Hansel y Gretel**
16:30 (Z., D.), 18:30, 20:30, 22:30, 00:30 (E., Z.).

**Hansel y Gretel (3D)**
17:30, 19:30.

**Hermosas criaturas**
15:30 (Z., D.), 17:55.

**La jungla: un buen día para morir**
17:45, 19:45.

**Django desencadenado**
21:45.

**La trama**
21:30, 00:30 (E., Z.).

**Mamá**
20:15, 22:15, 00:15 (E., Z.).

**El lado bueno de las cosas**
20:20, 22:40.

**¡Rompe Ralph!**
18:00.

**Oz (3D)**
16:10 (Z., D.), 18:45, 21:20, 23:55 (E., Z.).

**Dando la nota**
15:30 (Z., D.), 17:45, 20:05, 22:25, 00:45 (E., Z.).

**La extraña vida de Timothy Green**
Z., D.: 17:00.

**Los amantes pasajeros**
15:45 (Z., D.), 17:45, 19:45, 21:45, 23:45 (E., Z.).

**El alucinante mundo de Norman**
Z. eta D.: 15:45.

**El origen de los guardianes**
Z. eta D.: 16:00.

**Blackie & Kanuto**
Z. eta D.: 15:30.

KRITIKA

# Bizikidetzaren higadura

**BLUE VALENTINE** ★★★☆☆
**Zuzendaria:** Derek Cianfrance.
**Herrialdea:** AEB.
**Aktoreak:** Ryan Gosling, Michelle Williams.

*Blue Valentine*-n bikote baten istorioa kontatzen zaigu, baina istorioaren osotasuna erakutsi barik. Hasieran, bikotea gaur egun ikusten dugu. Euren arteko harremanetan maitasuna izan dela sumatu daitekeen arren, bikotearen krisialdiaren aurrean gaudela argi dago. 6 urteko alaba bat dute, biek alaba maite dute, baina euren arteko harremanetan tentsioa eta hoztasuna antzematen da. Senarrak, harremanak sendotu nahian, emaztea hotel batera gaur erromantiko bat pasatzera eramaten du. Gau hori ikusteaz gain, *flash back* batzuk agertuko dira bikotearen ezagutzea eta amodio sentimenduen sorkuntza azaltzen. Horrela ikusleok ezagutuko ditugu amodio istorioaren momentu onak: euren arteko erakarpena, ilusioak, sortzen diren zailtasunak gainditzeko ahalmena… Ez dugu ikusten erdiko zatia, hau da, harreman horien higaduran eragina izan duten eszena edo momentu latzak. Iraganeko eta oraingo garaiko eszenak agertzen dira, euren artean paralelotasun batzuk ematen dira eta garai batetik bestera gauzak nola aldatu diren eta bizikidetzaren higadura igarri dezakegu.

Zuzendariak garrantzi handia ematen dio pertsonaien deskribapenari: nolakoak diren, zer ari diren sentitzen momentu bakoitzean. Kamera mugitzen du pertsonaiekin gertutasuna ez galtzeko. Ia horiei itsatsiak sentitzen gara. Horien keinu, begiradak lehen planoan ikusten ditugu. Eta honekin batera behar-beharrezkoa da aktore onak izatea pertsonaien izaera nolakoa den ulertzeko. Ryan Gosling eta Michelle Williamsen interpretazioak bikainak dira. Biak filmaren ekoizpenean sartuta daude, baina horrek ez du esan nahi euren trebezia erakusteko egin dutela filma. Interpretazioak benetakoak dira, neurtuak eta gehiekerietan erori barik. Igartzen da proiektuan gogoz sinetsi dutela eta portaera horrek zerikusi handia du lortutako emaitzan.

**ANTONIO ZABALA**



EL PATIO DE MI CASA

**BERGARA, ELGETA Emakumeen Egunaren harira, antzerkia**
El Patio de mi Casa taldeak bi emanaldi egingo ditu. Lehenengoa Elgetako Espaloian izango da gaur, barikua. *Las viudas* eta *Aitalia* antzezlan laburrak egingo dituzte bi aktorek; eta Bergarako Zabalotegin, bihar, zapatua, *Las viudas*.
Elgetako emanaldia, 22:30ean; Bergarakoa, 22:00etan.

**OÑATI From the Jam**
Bruce Foxton The Jam taldeko baxu-joleak gidatzen duen taldea da From the Jam. The Jam taldea 70eko bukaera eta 80ko hasierako talderik garrantzitsuenetako bat izan da punk, mod eta new wave mugimenduetan. Horiez gain, Plan B punk rock taldeak joko du. Sarrerak, *www.barrabarra.eu*-n eta txarteldegian.
Gaur, egubakoitza, gaztelekuan, 22:30ean.



# NON-ZER

MARTXOA 8
MARTXOA 15

**Emaiguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.**
Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

## MUSIKA

**ARETXABALETA DJ Pino Voice**
DJ Pino Voiceren emanaldia izango da.
Bihar, zapatua, Orly tabernan, 23:30ean.

**ELGETA Emon + En Tol Sarmiento**
Emon taldeak *Konfeti kolore* diskoa aurkeztuko du. Hego Euskal Herrian emango duten lehen kontzertua izango da. Emanaldian En Tol Sarmiento taldea izango dute lagun.
Bihar, zapatua, Espaloia kafe antzokian, 23:00etan.

**OÑATI Zuen Azkena eta Klabo Oxidado taldeen kontzertua**
Oñatiko Zuen Azkena eta Soraluzeko Klabo Oxidado taldeen kontzertua.
Bihar, zapatua, Antixena gaztetxean, 22:30ean.

**BERGARA Screamers & Sinners**
Talde arrasatearra da.
Gaur, egubakoitza, Laino skate parkean, 22:30ean.

**ARETXABALETA On + Kokein**
Kurtzebarriko kantxan. Euria eginez gero, Iturrigorri frontoian.
Gaur, egubakoitza, 22:00etan.

## ANTZERKIA

**OÑATI 'Magiklown' umeendako antzerkia**
Sarrera, 2 euro.
Etzi, domeka, gaztelekuan, 12:30ean.

**OÑATI 'Pottola' antzezlana**
Sarrera: 10 euro.
Bihar, zapatua, Santa Ana antzokian, 19:30ean.

## OSPAKIZUNAK

**ELGETA Finalisten jaia**
Euskal Herriko iraupen luzeko ibilaldien 11. zirkuitua, 2012ko Ibiltarien Jaia, egingo dute. Mendi irteera, bazkaria eta diploma banaketa egingo dituzte. Argibideak: *www.zirkuitua.com.*
Etzi, domeka, Elgetan, 08:00etatik 19:00etara.

## UMEAK

**ESKORIATZA 'Birritan daukat' kromo trukaketa**
Errepikatuta dituzten kromoak aldatzeko aukera izango dute herriko umeek.
Etzi, domeka, Herriko plazan, 18:30ean.

**ARETXABALETA Bigarren Printzesa**
Virginia Imaz ipuin kontalariak berdintasunaren inguruko ipuinak kontatuko ditu 5 eta 8 urte bitarteko haurrentzat.
Bihar, zapatua, liburutegian, 11:00etan.


GOIENA

**ARRASATE Eskolarteko abesbatzak, Disneyri kantuan**
Arizmendi ikastolaren eskutik, 26. Eskolarteko Abesbatzen Topaketa egingo dute. Arizmendiko eta Txantxiku ikastolako 200 bat ikaslek abestuko dute. Aurten, Disneyren filmetako abestiak eskainiko dituzte, euskaraz.
Bihar, zapatua, Amaia antzokian, 17:00etan.

## HITZALDIAK

**BERGARA Iñaki Perurena**
*Herri eta harri* hitzaldian, Iñaki Perurenak harriak eman dion bizia edo harriarekin bizitzeko zentzua azalduko du. Jardun euskara elkarteak antolatutako hitzaldia da.
Martxoaren 13an, eguaztena, Irizar jauregian, 19:00etan.

**OÑATI Sexismoaz hitzaldia**
*Zer da hizkuntza sexista?* delako hitzaldia egingo dute.
Martxoaren 13an, eguaztena, gizarte zerbitzuetan, 18:00etan.

**ARETXABALETA, OÑATI 'Diabetesa. Ondo jan, ondo bizi'**
Debagoieneko Ospitaleak eta anbulatorioek antolatuta. Mar-



TENACITY

**ARRASATE Francis Alun Bell**
Pianoa oinarritzat duten abesti instrumentalak konposatzen ditu Francis Alun Bell lisboarrak. Minimalismoa eta elektronika ere jorratzen ditu. 28 abestiz osaturiko disko bakarra merkaturatu du bakarlari horrek. Bestalde, Saioa legorretarrak *Natura* diskoko abestiak aurkeztuko ditu.
Bihar, zapatua, Kulturaten, 20:00etan.


FRANCIS BELL

txoaren 12an, martitzena, Oñatiko kultur etxean izango da, eta 19an, martitzena, Aretxabaletako Arkupen.
19:00etan.

**ESKORIATZA Kafe tertulia**
*Nuevos y viejos retos para las mujeres (¡y hombres!) del siglo XXI* lelopean kafe tertulia izango da, Equalaren eskutik. Jarraian, Ausarta taldearen esketxak.
Gaur, egubakoitza, Ibarraundi museoan, 18:00etan.

**OÑATI 'Zigorraren aurrean beste bide batzuk' hitzaldia**
Zaintza zerbitzua egongo da.
Martxoaren 13an, eguaztena, kultur etxean, 18:15ean.

## KIROLA

**OÑATI Oñatiko I. Lilatoia**
Bizikletan, atxintxiketan, patinetean... 4 kilometro.
Gaur, egubakoitza, Foruen plazan hasita, 18:00etan.

**ARRASATE V. Takarraran**
Emakumeon herri-lasterketa. Emakume Txokoak antolatuta.
Bihar, zapatua, Seber Altube plazan, 12:30ean.

**ESKORIATZA Hondarribi-Irun taldearen entrenamendua**
Emakumeen saskibaloiko euskal talde onena ikusteko aukera.
Gaur, egubakoitza, Manuel Muñoz kiroldegian, 20:00etan.

## IKASTAROAK

**ESKORIATZA 'Ogia nola egin'**
Interesa dutenak kultura etxera joan behar dira, edo 943 71 46 88 telefono zenbakira deitu. Prezioa: 5 euro.
Martxoaren 13an, eguaztena, erretiratuen sukaldean, 18:00etan.

**BERGARA Bizikleta konponketa eta mantenua, aurreratua**
Antolatzaileak: Basque Adventure eta Bizikasi. Izena emateko, deitu 943 76 93 94 zenbakira edo bidali mezua *info@bizikasi.com* helbidera.
Martxoaren 11n, astelehena, Miguel Altunan, 18:30ean.

**BERGARA Elikagaien manipulatzaile karneta**
Karnet hori atera nahi dutenendako bi eguneko ikastaroa emango du Bizikasik astelehenean, hilak 11, eta martitzenean, hilak 12. Arratsaldez izango da, 16:00etan hasita. Izena emateko, deitu 943 76 93 94 zenbakira edo bidali mezua *info@bizikasi.com* helbidera.
Miguel Altuna Institutuan.

## BESTELAKOAK

**BERGARA Bisita gidatua Dorretxe eta Jauregi artean**
XVI. mendeko balkoi ederrak, fatxada ikaragarriak, blasoiak eta bitxikeriak ikusiko dituzte. Bisitan parte hartzeko, izena eman beharra dago.
Etzi, domeka. Argibideak, turismo bulegoan.

**BERGARA Naturaren Eguna**
Bergarako gerriko berdea ezagutzeko ibilbideak eta zuhaitz landaketa izango dira.
Bihar, zapatua, San Martzialen, 10:00etan.

**ARAMAIO Bingo afaria**
Itur-Zuri emakumeen elkarteak antolatutako urteroko ekintza.
Gaur, egubakoitza, San Martin eskolako jangelan, 19:30ean.

**OÑATI Odol-ateratzea**
Odola eman gura dutenei dei egiten diete.
Gaur, egubakoitza, ikastolan, 17:30ean.

**OÑATI Txandaren 'outlet' salmenta egubakoitzean eta zapatuan**
Beherapen berezi horietanarte hartuko duten komertzioak hauek dira: Bellotza loradenda, Beloki Iturgintza, Mendizabal Kirolak, Baio arropa denda, Urrutia arropa denda, Ni moda, Maibi etxeko ehungintza, Alzu, Urtaza Mertzeria, Arantxa Mertzeria, Chic moda, Arkauz optika, Olalde zapata-denda, Sua bitxitegia, Haritza, Itziar optika, Ane haur arropa denda, Aramburu pinturak, Juanitosa, D'or estetika eta Kuttun lentzeria.
Ordutegia: egubakoitzean:, 10:00etatik 13:00etara eta 16:30etik 20:00etara; eta zapatuan, 10:00etatik 13:00etara.
Herriko kaleetan.

MIGUEL ALTUNA INSTITUTUA

Ibargarai kalea 1, 20570 Bergara. Tel: 943 76 70 49
*ikastaroak@imaltuna.com • www.imaltuna.com*

**Langile eta langabetuentzat IKASTAROAK, %100ean diruz lagunduta**

| FABRIKAZIO MEKANIKOA | | | |
|---|---|---|---|
| IKASTAROEN IZENAK | ORDUAK | DATAK | ORDUTEGIA |
| UF0879: TXIRBIL-HARROKETA BIDEZKO PIEZEN FABRIKAZIORAKO CNC PROGRAMEN GARAPENA | 70 | 2013/03/18 – 2013/05/30 | A,A,A,O 14:00 - 16:30 |
| UF0880 TXIRBIL-HARROKETA BIDEZKO MEKANIZAZIOAN FABRIKAZIO PROZESUEN ERAGIKETA OSAGARRIAK | 70 | 2013/04/17 – 2013/06/04 | A,A,A,O 18:00 - 21:00 |
| UF1009: URRADURA, ELEKTRO HIGADURA ETA PROZEDURA BEREZIEN BIDEZKO PIEZEN FABRIKAZIORAKO CNC PROGRAMEN SORTZEA (Sarpen bidez /hari bidez). | 80 | 2013/04/08 - 2013/05/29 | A,A,A,O 18:00 - 21:00 |
| UF0453: FABRIKAZIO MEKANIKOKO PRODUKTUENTZAKO IRUDIKAPEN GRAFIKOA 3D | 40 | 2013/04/15 – 2013/05/14 | A,A,A,O 18:00 - 20:30 |
| ELEKTRIZITATEA | | | |
| IKASTAROEN IZENAK | ORDUAK | DATAK | |
| UF0884: ERAIKUNTZETAKO LOTUREN INSTALAZIO ELEKTRIKOEN MUNTAIA | 60 | 2013/04/22 - 2013/05/29 | A,A,A,O 18:00 - 21:00 |
| OINARRIZKO ELEKTRONIKA | 50 | 2013/03/11 – 2013/04/16 | A,A,A,O 18:00 - 21:00 |
| ADMINISTRAZIOA ETA INFORMATIKA | | | |
| IKASTAROEN IZENAK | ORDUAK | DATAK | |
| UF0319: SISTEMA OPERATIBOA, INFORMAZIOA BILATZEA: INTERNETA/INTRANETA ETA POSTA ELEKTRONIKOA | 30 | Zehaztu gabe | A,A,A,O 18:00 - 20:30 |
| UF0323: AURKEZPENERAKO APLIKAZIO INFORMATIKOA: INFORMAZIO GRAFIKOAK (Power Point) | 30 | 2013/04/08 - 2013/04/25 | A,A,A,O 18:00 - 20:30 |
| UF0314: KUDEAKETA KONTABLEA | 90 | 2013/03/18 - 2013/06/05 | A,A,A,O 18:00 - 21:00 |
| BESTE BATZUK | | | |
| IKASTAROEN IZENAK | ORDUAK | DATAK | |
| HOTZEKO ESTANPAZIOKO PROZEZUEN OINARRIZKO DISEINUA | 20 | 2013/03/11 - 2013/03/25 | A,A,A 15:00 - 18:00 |
| HOTZEKO ESTANPAZIOKO PROZESUEN DISEINUA | 20 | 2013/04/08 – 2013/04/18 | A,A,A,O 15:00 - 17:30 |
| HOTZEKO ESTANPAZIOKO MAKINEN DOIKUNTZA | 30 | 2013/04/15 – 2013/04/30 | A,A,A,O 15:00 - 18:00 |
| FORGE AURRERATUA. ERREMINTEN ANALISIA | 20 | 2013/04/15 – 2013/04/19 | A,A,A,O,O 08:30 - 12:30 |
| HOTZEKO ETA BEROKO FORJAKO SIMULAZIO FORMAZIOA | 21 | MARTXOAK 19,20 eta 21 | 09:00etatik 17:00etara (Ordu bete bazkaltzeko) |

Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzua Servicio Vasco de Empleo
EUSKO JAURLARITZA ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETARAKO SAILA
GOBIERNO VASCO ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETARAKO SAILA
HOBETUZ

## TIRA-BIRAKA

ana zubillaga ©




goiena“ 2013-03-08

## BUKATZEKO

# Aloñako maldak eski estazio bihurtuta

▶ Aurtengo neguan ere sarri ikusi ditugu eskiatzaileak Arantzazun gora, traste guztiak aldean hartuta

▶ Oñatiko eta bailarako jendeaz gain, Euskal Herriko txoko askotako zaleak etortzen dira eskiatzera

**ARRITXU BARRUSO** | OÑATI

Eskiatzea gustuko duten debagoiendarrek urrutira joan barik etxean bertan eskiatzeko aukera izan dute azkenaldian. Aurreko asteetako bi elurteek zuritu egin dituzte gure mendiak, eta horietako batzuk, teleaulki barik, baina eski estazio bilakatu dira. Aloña eta Urbia inguruak, esaterako, eskiatzailez bete-bete eginda zeuden joan den aste bukaeran. Urrutitik begiratuta, Buetraitzeko eta Artzanburuko maldetan puntu beltz mordoa ikus zitezkeen mendi magalaren alde batetik bestera, batzuk beherantz, beste batzuk gorantz.

Izan ere, estazioetakoarekin alderatuta, horixe du mendiko eskiak, taulen azpian jarritako larruen laguntzaz, gora ere norberak joan behar duela. Badira gorako bidea oinez egiten dutenak ere, dena den: snowboarda egiten dutenak, adibidez, eta hori nekezagoa da. Baina edozer, neguko kirolez etxean bertan disfrutatzeagatik; ilunduta, argiekin ibiltzen denik ere bada.

"Egundoko plazera da; lanetik goiz atera eta eskiatzera, eta gero ardo pare bat hartu", dio mendian behera topatu dugun Gotzon Ormazabalek. Zumarragakoa da, baina tontorretan sumatzen diren berbakerek eta haietan entzundakoek diote urrutiagotik ere etortzen direla gurera eskiatzera: "Jaizkibelen ere zuritu zuen"; "Saioa mendian ere leku onak daude eskiatzeko", entzundakoetako batzuk. Aurten berriz elurrik egingo duen jakin ez, bestela datorren neguan gehiago.


Aloña eta Urbia inguruak eskiatzailez bete ziren joan den aste bukaeran ere. | JULEN IRIONDO


Arantzazuko aparkalekua. | J.I.


Jaitsierarekin gozatzen. | J.I.

## AZKEN BERBA



**MIKEL IRIZAR**

### Bestelako Mallorca

Lagun batek gonbidatuta etorri naiz Mediterraneoko irlara, aurreiritziz josita etorri ere. Uste nuen turismo neurrigabeak honezkero hondatua izango zuela ingurunea, eta nortasuna ere ez zela oso indartsu ibiliko biztanleen herena jatorri alemaniarrekoa duen komunitatean. Gainera, ziur nengoen agintari ustelen soka jasan izanaren eragina ere nabarmena izango zela edonon. Errematerako, bertako txorimaloak nahikoa ez eta abizen euskalduneko aristokrata berria bueltaka darabilte epaitegira, hiriburuaren izen ona kakazten. Konbentzituta nengoen lagunarengandik penak entzungo nituela, gehienbat.

Eta, nire pozerako, aurkitu dut oso bestelako Mallorca bat. Herri dotore askoak, turistei baino herritarrei begirakoak; ingurune bikaina eta zaindua, oinbidez zeharkatua ibiltari ugarien zorionerako; herritar abegikorrak eta direnarekin harro, katalan hiztunak guk pozik hartuko genukeen neurrian...

Ulertzen ez dudana da nola bozkatzen duten bozkatzen dutena. Lagunak ere ez dauka horrentzat azalpen argirik eta, makalaldietan, aipatu izan du gurean eskatuko duela babes politikoa. Egunotan ikusi dudanarekin, ni prest etxe trukerako.

